

OLABIDE IKASTOLA

BARNE-ARAUTEGIA

BIZIKIDETZA ARAUTZEKO AGIRIA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

I. ATALBURUA.- IKASTOLAREN ANTOLAKETAZ ETA EGITURAZ. ANTOLAKETA OROKORRA

1. KAPITULUA. ELKARTEAREN ERABAKITZEKO ORGANOAK

1. artikulua. Elkartearen Organoak
2. artikulua. Batzar Nagusia
3. artikulua. Artezkaritza Kontseilua.
4. artikulua. Artezkaritza Kontseiluko kideak hautatzeko prozesua
5. artikulua. Batzordeak
6. artikulua. Proposamenak Artezkaritza Kontseiluari aurkeztea
7. artikulua. Zaintza Batzordea

2. KAPITULUA. OLABIDE IKASTOLAREN KUDEAKETA

8. artikulua. Funtzioen eskuliburua

1. atala. Zuzendaritzak

9. artikulua. Zuzendaritza
10. artikulua. Zuzendaritza Taldea

2. atala. Zuzendaritzak

11. artikulua. Zuzendaritza Nagusia
12. artikulua. Garapen Taldea
13. artikulua. Etapa bakoitzaren Zuzendaritzak

3. atala. Zuzendaritza Kontseiluaz

14. artikulua. Zuzendaritza Kontseilua
15. artikulua. Zuzendaritza Kontseiluaren funtzioak

16. artikulua. Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa

17. artikulua. Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiak

4. atala. Eskola Kontseiluaz

18. artikulua. Eskola Kontseiluaz

Artículo 19. De las actas del Consejo Escolar

5. atala. Koordinazioko beste organo batzuk

20. artikulua. Irakasleen organoak

21. artikulua. Koordinazioko beste organo batzuk

Sección 6ª.- Departamento de Orientación

22. artikulua. Orientazio Saila

7. atala. Administrazio Arloa

23. artikulua. Administrazio Arloaren funtzioak

24. artikulua. Administrazioaren kudeaketa-esparruak

II. ATALBURUA. IRAKASLEEZ

25. artikulua. Irakasleen ardurak

26. artikulua. Ikastolako ikasleek dituzten jarrera ezegokien aurrean irakasleek duten funtzioa

27. artikulua. Irakasle tutoreen ardurak

28. artikulua. Tutorearen lanak

29. artikulua. Irakasleen eskubideak

30. artikulua. Irakasleen betebeharrak

31. artikulua. Irakasleak atxikitzea

32. artikulua. Irakasleen diziplina-araubidea

33. artikulua. Ez-betetzeak. Arau-hausteak eta zigorrak

34. artikulua. Irakasleak kontratatzeko prozedura

III. ATALBURUA. IKASLEEZ

35. artikulua. Ikasleek dituzten betebeharren eta eskubideen inguruko irizpide nagusiak.

1. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK

36. artikulua. Ikastolaren berezko izaerarekin eta hezkuntza proiektuarekin bat etorritik hezkuntza osoa jasotzeko oinarritzko eskubideak

37. artikulua. Eskola orientazioa eta orientazio profesionala jasotzeko eskubidea

38. artikulua. Berehalako arreta jasotzeko ikasle adin txikikoek duten eskubidea.

39. artikulua. Ikasle adin txikikoek Ikastolaren babesa edukitzeko duten eskubidea.

40. artikulua. Errendimendu akademikoaren balorazio objektiboa izateko eskubidea.

41. artikulua. Kontzientzia askatasunerako eskubidea

42. artikulua. Eraso fisiko edo moralik ez jasateko eta norberaren identitate eta duintasunerako eskubidea

43. artikulua. Aukera-berdintasunerako eskubidea

44. artikulua. Gizarte babeserako eskubidea.

45. artikulua. Parte hartzeko eskubidea

46. artikulua. Biltzeko eskubidea

47. artikulua. Grebarako eskubidea

48. artikulua. Elkartzeko eskubidea

49. artikulua. Adierazpen-askatasunerako eskubidea

50. artikulua. Informazio eskubidea

51. artikulua. Eskolarako ez-etorrerak arautzea

54. artikulua. Ikastolan ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea

55. artikulua. Teknologia berrien erabilera eta mugak

2. KAPITULUA. IKASLEEN BETEBEHARRAK

56. artikulua. Ikasteko betebeharra

57. artikulua. Prestakuntza jardueretan parte hartzeko betebeharra.

58. artikulua. Euskara erabiltzeko betebeharra

59. artikulua. Bertaratzeko betebeharra.

60. artikulua. Bizikidetza errazteko betebeharra.

61. artikulua. Norberaren kontzientzia askatasuna errespetatzeko betebeharra.

62. artikulua. Garbitasuneko eta identifikatzeko modukoak izateko betebeharra

63. artikulua. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra

64. artikulua. Instalazioa errespetatzeko betebeharra

3. KAPITULUA. BIZIKIDETZARAKO DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEK ZUZENTZEA

1. atala. Xedapen orokorrak

65. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak.

66. artikulua. Ikasleek euren betebeharrak ez betetzearen ondorioz egiten dituzten jokabideak zuzentzearen inguruko irizpide nagusiak

67. artikulua. Ikastolatik kanpo egindako jokabide edo ekintzengatiko erantzukizuna.

68. artikulua. Ikasleen adinari egokitzea.

2. atala. Jokabide motak

69. artikulua. Jokabide desagokiak.

70. artikulua. Ikastolako bizikidetzaren aurkakoko jokabideak.

71. artikulua. Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

3. atala. Hezkuntzako neurri zuzentzaileak eta desagokiak eta bizikidetzaren aurkakoak edo bizikidetzarako larriki kaltegarriak diren jokabideen beste ondorio batzuk

72. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko neurriak.

73. artikulua. Ikastolako bizikidetzaren aurkakoko jokabideak zuzentzeko neurriak.

74. artikulua. Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko neurriak.

75. artikulua. Zenbait kasutan aplikatu beharreko zuzentze-neurriak.

76. artikulua. Ikastetxez aldatzeko proposamena.

77. artikulua. Behin eta berriz ikaslea bertaratu ez denez, ebaluazio jarraitua egiteko ezintasuna.

78. artikulua. Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak.

79. artikulua. Sor daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

80. artikulua. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

4. atala. Jokabideak zuzentzeko aukerako bide batzuk

81. artikulua. Xedapen orokorrak.

82. artikulua. Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

83. artikulua. Prozedura bertan behera uztea adiskidetzea gertatu delako.

84. artikulua. Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.

85. artikulua. Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.

86. artikulua. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

87. artikulua. Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

5. atala. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurei buruzko gogoeta orokorrak

88. artikulua. Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko erabili behar diren prozedurak.

89. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.

90. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.

91. artikulua. Denbora igarotzeagatik prozedurari ekiteko debekua.

92. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.

93. artikulua. Ikastola barruan jakinarazpenak eta erreklamazioak egiteko modua eta epea.

94. artikulua. Araudi honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak landu, babestu eta ezeztatzea.

95. artikulua. Erreklamazioak eta helegiteak.

96. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduretan erabiliko den hizkuntza

97. artikulua. Ezkontideen esku-hartzeak neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduretan

6. atala: Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura

Jokabide desagokiak zuzentzeko ahozko prozedura.

7. atala. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko ohiko prozedura

99. artikulua. Ohiko prozedura erabiltzea.

100. artikulua. Hasierako egintzaren gutxienerako edukia.

101. artikulua. Hasierako jakinarazpena eta alde zuzentzailearen entzunaldiaren zitazioa.

102. artikulua. Behin-behineko neurriak.

103. artikulua. Entzunaldiaren tramitea.

104. artikulua. Zein izango den aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.

105. artikulua. Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.

106. artikulua. Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioa jartzea.

107. artikulua. Eskola Kontseiluaren erabakia

108. artikulua. Erabakia jakinaraztea

8. atala. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko ez-ohiko prozedura

109. artikulua. Ez-ohiko prozedura noiz erabili behar den.

110. artikulua. Ez-ohiko prozedurari ekiteko epea.

111. artikulua. Hasierako egintzaren gutxienerako edukia.

112. artikulua. Izapidegilea izendatzea.

113. artikulua. Hasierako egintzaren eta jar daitezkeen neurrien jakinarazpena.

114. artikulua. Izapidegilea ez onartzeko aukera.

115. artikulua. Izapidegilearen jardunak.

116. artikulua. Fiskaltzari jakinaraztea.

117. artikulua. Entzunaldirako zitazioa.

118. artikulua. Entzunaldiaren tramitea.

119. artikulua. Ebazpena proposatzea.

120. artikulua. Ez-ohizko prozedura amaitzeko epea.

121. artikulua. Espedientea ebaztea eta jakinaraztea.

4. KAPITULUA. EBALUAZIO AKADEMIKORAKO IRIZPIDEAK

122. artikulua. Gogoeta orokorrak

123. artikulua. Ebaluazio akademikorako irizpideak Lehen Hezkuntzan

124. artikulua. Ebaluazio akademikorako irizpideak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

125. artikulua. Ebaluazio akademikorako irizpideak Batxilergoan

5. KAPITULUA. KALIFIKAZIOAK ERREKLAMATZEKO PROZEDURA

126. artikulua. Ikastolako instantzien aurrean kalifikazioak erreklamatzeko prozedura

127. artikulua. Ikastolatik kanpoko instantzien aurrean behin-betiko kalifikazioak erreklamatzeko prozedura

6. KAPITULUA. GAINDITU GABEKO AURREKO IKASTURTETAKO IKASGAIK ERREKUPERATZEKO SISTEMA

128. artikulua. Gainditu gabeko ikasgaiak errekuperatzeko prozedura

7. KAPITULUA. ETAPAZ IGOTZEKO IRIZPIDEAK

129. artikulua. Lehen Hezkuntza

130. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

131. artikulua. Batxilergoa

8. KAPITULUA. TITULUAK ESKATZEKO IRIZPIDEAK

132. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua

133. artikulua. Batxilergoko titulua.

IV. ATALBURUA. IKASLEEN GURASOEZ ETA LEGE-ORDEZKARIEZ

1. KAPITULUA. IKASLEEN GURASOEK ETA LEGE-ORDEZKOEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREZ

- 134. artikulua. Ikasleen gurasoek eta lege-ordezkoek dituzten eskubideak
- 135. artikulua. Ikasleen gurasoek eta lege-ordezkoek dituzten betebeharrak
- 136. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea
- 137. artikulua. Ikastolaren eta familien arteko komunikazioak
- 138. artikulua. Ikasleen gurasoen eta lege-ordezkarien eta irakasleen, tutoreen eta Etapako zuzendarien arteko komunikazioa
- 139. artikulua. Zuzendaritza Organoei bisitak egiteko araubidea
- 140. artikulua. Gurasoek edo tutoreek ikasleen gorabeheren eta jokabide-arazoen aurrean jarraitu beharko duten prozedura
- 141. artikulua. Gurasoen Eskola

2. KAPITULUA. GELAKO ORDEZKARIAK

- 142. artikulua. Gelako ordezkariaren funtzioak
- 143. artikulua. Gelako ordezkariaren betebeharrak
- 144. artikulua. Gelako ordezkarien bitartekoak
- 145. artikulua. Gelako ordezkari karguaren izaera eta horren hautaketa
- 146. artikulua. Gelako ordezkarien bateraezintasunak
- 147. artikulua. Gelako ordezkarien funtzionamendu arauak
- 148. artikulua. Gelako Ordezkarien Kontseilua

V. ATALBURUA. IKASLEEN GURASOEZ ETA LEGE-ORDEZKARIEZ

- 149. artikulua. Administrazio eta zerbitzuetako langileen funtzioak

VI. ATALBURUA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

- 150. artikulua. Xedea.
- 151. artikulua. Printzipioak
- 152. artikulua. Kirol eta kultur elkarteak

- 153. artikulua. Kirol eta kultur modalitateak eta kirol eta kultur Elkartetako atalak
- 154. artikulua. Elkartetako, Ataletako, Ekipoetako eta Taldeetako koordinatzaileen funtzioak
- 155. artikulua. Eskolaz kanpoko jardueretan izena ematea
- 156. artikulua. Eskolaz kanpoko jardueretan izena ematen duten pertsonen betebeharrak
- 157. artikulua. Eskolaz kanpoko jardueren aseguruak
- 158. artikulua. Kirol eta kultur instalazioak erabiltzea

VII. ATALBURUA. URGATZI KIROL KLUBA

I. KAPITULUA. GOBERNUA, ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

- 159. artikulua. ***Urgatzi Kirol Klub (Kirol Elkartea)***
- 160. artikulua. Gobernua, ordezkaritza eta kudeaketa
- Artículo 161. *Kirol Elkartea*

II. KAPITULUA: EKONOMIA ETA AGIRI ARAUBIDEA

- 162. artikulua. Diru-sarrerak
- 163. artikulua. Kooperatibarekiko mendetasuna.
- 164. artikulua. Agirien araubidea

III. KAPITULUA. ELKARTEKIDEEN ARAUBIDEA

- 165. artikulua. Kideak.
- 166. artikulua. Kideen eskubideak eta betebeharrak

IV. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

- 167. artikulua. Diziplina ahalmena
- 168. artikulua. Diziplina araubidea
- 169. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea
- 170. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura.
- 171. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

172. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

VIII. ATALBURUA. KULTUR ELKARTEA

I. KAPITULUA. GOBERNUA, ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

Artículo 173. Gobierno, representación y gestión de *Kultur Elkartea*

174. artikulua. *Kultur Elkartearen* Batzordea

II. KAPITULUA: EKONOMIA ETA AGIRI ARAUBIDEA

175. artikulua. Diru-sarrerak

176. artikulua. Kooperatibarekiko mendetasuna.

177. artikulua. Agirien araubidea

III. KAPITULUA. ELKARTEKIDEEN ARAUBIDEA

178. artikulua. *Kultur Elkarteko* kideak.

179. artikulua. Kideen eskubideak eta betebeharrak

IV. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

180. artikulua. Diziplina ahalmena

181. artikulua. Diziplina araubidea

182. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

183. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura.

184. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

185. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

IX. ATALBURUA. JANTOKI-ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA ARAUAK

186. artikulua. Jantoki-zerbitzuaren xedea eta irismena

187. artikulua. Jantoki-zerbitzuan izena ematea.

188. artikulua. Jantoki-zerbitzuko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

189. artikulua. Jantoki-zerbitzuari buruzko informazioa eta familiekiko komunikazioa

190. artikulua. Jantokian bete beharreko arauak.

191. artikulua. Atsedendian bete beharreko arauak

II. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

192. artikulua. Diziiplina araubidea

193. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

194. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura.

195. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

196. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

X. ATALBURUA. AUTOBUS-ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA ARAUAK

197. artikulua. Autobus-zerbitzuaren xedea eta irismena

198. artikulua. Autobus-zerbitzuan izena ematea.

199. artikulua. Autobus-zerbitzuko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

200. artikulua. Zerbitzuari buruzko informazioa eta familiekiko komunikazioa

201. artikulua. Autobuseko arduradunen funtzioak

202. artikulua. Autobusean bete beharreko arauak.

203. artikulua. Geltokietan bete beharreko arauak.

II. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

204. artikulua. Diziiplina araubidea

205. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

206. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura.

207. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

208. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

XI. ATALBURUA. ZAINZA-ZERBITZUA

209. artikulua. Zaintza-zerbitzuaren xedea

210. artikulua. Zaintza-zerbitzuaren arduradunak

211. artikulua. Zaintzako aldian egingo diren jarduerak

212. artikulua. Zaintza-zerbitzuko ikasle erabiltzaileen ordutegiak eta ekarri eta jasotzeko lekuak

213. artikulua. Jatea eta higiena Zaintza-zerbitzuan

XII. ATALBURUA. APARKALEKUAK

I. KAPITULUA. AZPIEGITURAREN IRISMENA ETA ARAUAK

214. artikulua. Aparkaleku-motak eta funtzioak

215. artikulua. Aparkatzeko eremuak eta orduak

216. artikulua. Aparkalekuen erabilerari buruzko arauak

II. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

217. artikulua. Diziiplina araubidea

218. artikulua. Diziiplina ahalmena

219. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

220. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura eta neurriak.

221. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura eta neurriak.

222. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura eta neurriak.

XIII. ATALBURUA. TRUKEALDIK

223. artikulua. Trukealdien xedea

224. artikulua. Ikasleak inskribatzeko prozedura

225. artikulua. Trukealdian ikasleek dituzten eskubideak eta betebeharrak

226. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzea

227. artikulua. Mediku-gaien inguruan

228. artikulua. Trukealdiaren arduradunak

XIV. ATALBURUA. IRTEERAK, TXANGOAK ETA IKASTURTE AMAIERAKO

229. artikulua. Helburuak

230. artikulua. Irteerei eta txangoei buruzko informazioa.

231. artikulua. Trukealdian ikasleek dituzten eskubideak eta betebeharrak

232. artikulua. Jokabide desegokiak zuzentzea

233. artikulua. Mediku-gaien inguruan

234. artikulua. Bidai edo irteeraren arduradunak

XV. ATALBURUA. BERARIAZKO EREMU KOMUNEN ERABILERA

1. KAPITULUA. "IKASLE GUNEAK" EREMU SOZIALA

235. artikulua. *"Ikasle Guneak"* eremu sozialaren helburua

236. artikulua. Familiek *"Ikasle Guneak"* eremua erabiltzea

2. KAPITULUA. LIBURUTEGIA

237. artikulua. Liburutegiaren helburua

238. artikulua. Liburutegia erabiltzeko arauak

3. KAPITULUA. TABERNA ETA BESTE AISIALDI-EREMU BATZUK

239. artikulua.- Tabernaren eremuaren xedea

240. araua. Tabernaren eta beste aisialdi-eremu batzuen erabilera

XVI. ATALBURUA. ESKOLA-OSASUNA, ISTRIPUEI AURREA HARTZEA ETA ESKOLA-JAZARPEN EGOERAK

241. artikulua. Arriskuari aurrea hartzea eta arriskua gutxitzea

242. artikulua. Medikatzea

243. artikulua. Elikadura-dieta bereziak

244. artikulua. Istripu kasuan jarraitu beharreko protokoloa

245. artikulua. Eskola-jazarpenari buruz

XVII. ATALBURUA. KOMUNIKAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA

246. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak

247. artikulua. Komunikazio, gardentasun eta parte-hartze plana.

248. artikulua. Gardentasuna

249. artikulua. Informazio eskubidea

250. artikulua. Komunikazioa

251. artikulua.- Parte hartzea

XVIII. ATALBURUA. HIZPRO PROIEKTUA

252. artikulua. *Hizpro* proiektuaren funtzioak

253. artikulua. *Hizpro* proiektuaren ezaugarriak

XIX. ATALBURUA. XEDAPEN GEHIGARRIAK

1. ERANSKINA. Haur Hezkuntzan ebaluatzeko sistematika eta txostenak eta familiekiko komunikazioa

AURKEZPENA

Elkartearen Estatutuek adierazi dutenarekin bat etorriz, Barne Araudia, Batzar Nagusiak onetsitakoa, Estatutu horiek garatuko dituen eta gizarte, lan eta antolaketa esparruan **barne harremanak definitu eta arautuko** dituen agiria da, bereziki, **bizikidetza arauen** inguruko arloei dagokienez, baita Estatutuak berariaz jaso ez dituen **antolaketa, kudeaketa eta gizarte eta lan** arloko alderdiei ere.

Hori dela eta, Barne Araudiak Elkaratearen Estutuak eta Hezkuntza Proiektua osatu eta garatuko ditu, baina ezingo ditu horiek hautsi.

Baina Araudia, ikastolako komunitatearen eta han diren talde guztien alderdien aniztasuna eta konplexutasuna **zabaltzeko eta ezagutzeko agiri** bat ere bada, eta Olabide Ikastolako komunitate osoari aukera emango dio Ikastolaren eguneroko bizitzaren gai eta alderdi anitzen aurrean norengana jo eta zer mekanismo erabili jakiteko.

Aniztasun eta konplexutasun hori etengabe aldatzen da, ez soilik arau berriak egiten direlako, baita ikastolak berak eta gizarteak bilakaera bat dutelako. Hori dela-eta, Araudia azkar eta eraginkortasunez egokitzeke tresna bat izan beharko da, **behar berriak agertzen direnean erantzun bat** emateko modukoa.

Beraz, Ikastola Ondo Zuzentzeko estrategiaren esparruan, **gardentasunerako eta parte-hartzerako tresna** bat izan beharko da Araudia. Artezkaritza Kontseiluak egin beharko du Barne Araudia aldatzeko proposamena, baina bazkideek Kontseilu horri horren inguruko proposamenak helarazi ahal izango dizkiote Barne Araudiak berak horretarako finkatu dituen moduei jarraituz.

I. ATALBURUA.- IKASTOLAREN ANTOLAKETAZ ETA EGITURAZ.

ANTOLAKETA OROKORRA

1. KAPITULUA. ELKARTEAREN ERABAKITZEKO ORGANOAK

1. artikulua. Elkartearen Organoak

Ondoko erabakitzeako elkarte organok osatzen dute *Olabide Ikastola Kooperatiba Elkartea* (hemendik aurrera Olabide Ikastola):

- a) Batzar Nagusia.
- b) Artezkaritza Kontseilua.
- c) Zaintza Batzordea.
- d) Eskola Kontseilua.

2. artikulua. Batzar Nagusia

1. Batzar Nagusia, bazkide guztiek osatua, elkartearen borondatea adierazten duen organo gorena da, indarreko legediak egozten dizkion gai guztietan.
2. Batzar Nagusiaren akordioak akta-liburu batean idatziko dira eta akordio horiek bazkide guztiek bete beharko dituzte.
3. Eskumenak, deialdiak, funtzionamendua, gehiengoak, erabakiak eta erabaki horiek aurkaratzea, indarreko legeriak eta Kooperatibaren Elkarte-estatutuek xedatutakoaren araberrako burutuko dira.
4. Batzar Nagusiaren aktak euskaraz eta gazteleraz idatziko dira.

3. artikulua. Artezkaritza Kontseilua.

1. Artezkaritza Kontseilua administratzaileek osatzen duten gobernu organoa da, eta horiei dagokie soilik Kooperatiba ordezkatu eta kudeatzea; Artezkaritza Kontseiluak, beraz, horretarako ahalmen guztiak izango ditu, Legeak edo Estatutuek beste elkarte-organismo batzuei berriaz egozten dizkienak izan ezik.
2. Artezkaritza Kontseiluaren eskumenak, osaketa eta berriztapena, baita funtzionamendua eta kideen funtzioak, eskubideak eta ardurak ere, indarreko legeriak eta Kooperatibaren Elkarte-estatutuek xedatutakorekin bat etorriko dira.
3. Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak Artezkaritza Kontseiluaren deialdi eta bilera guztiak egin, sustatu, koordinatu eta zuzenduko ditu, baita horietan landu beharreko gaiak eta

beharrezkoa izango den dokumentazioa prestatu ere; gainera, aktei oniritzia emango die. Horretarako guztirako, Zuzendaritzaren laguntza eta kudeaketa izango ditu.

4. Artezkaritza Kontseiluak funtzioak era ardurak eskuordetzeko, Kontseiluak berak berariaz onesti beharko du eta aktan jasoko da.

5. Artezkaritza Kontseiluak ondoko funtzionamendu arau hauek bete beharko ditu:

a) Aurretiazko informazioa

Erabaki behar diren gaiak bakar-bakarrik gai-zerrendan sartuko dira Artezkaritza Kontseiluko kideek aldeztatik horien inguruko beharrezko informazio dokumentatua eduki badute, bilera egin baino bost egun lehenago eta, salbuespen kasuetan, bi egun lehenago. Lehendakariak egiaztatuko du Zuzendaritzak emandako informazioa nahikoa den. Artezkaritza Kontseilura erabaki bat hartzeko erabaki proposamena bidali baino lehen, lehendakariak edota dagokion batzordeak landu beharko du proposamen hori.

b) Elkarlaneko ingurunean lan egitea

Artezkaritza Kontseiluan kantu beharreko gaien inguruko informazio eta dokumentazioa, nahikoa aurrerapenarekin, kide guztientzat eskuragarri den lankidetzarako baterako ingurune batean kokatu behar da, ekarpenak eta iradokizunak egiteko aukera izan dezaten. Lankidetzarako ingurune horren bidez, akta guztiak eskuratzeko aukera izan beharko dute (Artezkaritza Kontseilua, Zuzendaritzako Kontseilua, Zuzendaritza, Batzordeak), baita Ikastolaren oinarritzko agiriak ere.

c) Bilerak eta gai-zerrenda egitea

Zuzendaritza Nagusiak proposatuta eta lehendakariaren oniritziarekin egingo da. Lehendakariak garrantzitsuak jotzen dituen beste gai batzuk sar ditzake. Gai-zerrendan informatzeko gaiak edo erabaki beharreko gaiak sartuko dira, eta kasuan-kasuan adieraziko da zer gai mota den. Deialdia/gai-zerrenda, erabaki proposamenarekin batera, aurreko asteko ostiralean jaso beharko dute askoz jota. Informatzeko gaietarako, ahal den neurrian, lankidetzarako inguruneko tresnak erabiliko dira, iradokizunak eztabaidatzeko eta proposatzeko utziko dira bilerak.

d) Lan egiteko hizkuntza

Bilerak euskaraz eta gaztelaraz egingo dira, baina Artezkaritza Kontseiluko kide guztiak zailtasunik gabe ulertzeko gai direla bermatuko da.

e) Denbora kudeatzea

Bilera hasten denean, puntu bakoitzerako zenbat denbora erabiliko duten finkatuko dute, eta Artezkaritza Kontseiluko kide batek, txandaka, denbora kontrolatzeko lana burutuko du.

Artezkaritza Kontseiluak egiten dituen bileren iraupena mugatzen saiatuko dira, hiru ordukoak izango dute gehien jota.

f) Erabakiak hartzea

Adostu beharreko gai moduan gai-zerrendan sartu diren gaiak, modu ordenatuan landuko dira ondoko eskemari jarraituz:

- 1) Azalpena
- 2) Eztabaidatzeko txanda
- 3) Erabakia hartzea eta, beharrezkoa bada, bozkatzea.

g) Akta eta jarraipena egitea

Lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute bileraren akta, eta akta horrek erabakien testua laburtuta eta bozketen emaitzak jasoko ditu. Artezkaritza Kontseiluko kide batek edo batzuek, hartutako erabakien jarraipena egingo dute, eta gainontzekoei unean-unean horren berri emango diete. Puntu edo erabaki bakoitza hobeto ulertzeko informazio zehatzak, aktari erantsiko zaizkio.

Artezkaritza Kontseiluaren aktak euskaraz eta gazteleraz idatziko dira.

h) Osatutako Kontseiluak, Urteko Ohiko Batzarraren osteko lehenengo bileran, kide guztien artean ondoko karguak hautatuko ditu: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria eta diruzaina. Gainontzekoak kide izango dira.

Halaber, Urteko Ohiko Batzarraren ostean egiten den lehen bileran, Artezkaritza Kontseiluak ardura-eremuak banatuko ditu urtebeterako eta, bereziki, ondokoak:

- a) Hizkuntza Proiektuaren lehendakaritza
- b) Kultur Elkarteko lehendakaritza
- c) Kirol Elkarteko lehendakaritza
- d) Ekonomia Batzordeko lehendakaritza
- e) Mantentze-lanen eta Obren Batzordeko lehendakaritza
- f) Gardentasun, Komunikazio eta parte-hartze Batzordeko lehendakaritza
- g) Informatikako eta Antolaketako arduraduna/ak
- h) Arduradun juridikoa/ak

- i) Familien arduraduna/ak
- j) Hartutako erabakien jarraipena egiteko arduraduna/ak
- k) Elkarbizitza Behatokiko arduraduna
- l) *Gurasoen Euskera Batzordean* izango diren ordezkariak
- m) *Olabide Ikastetxean* Olabide Ikastolak dituen ordezkariak
- n) Ordezkariak Ordutegi Batzordean
- o) Ordezkariak *Garapen Taldean*.

4. artikulua. Artezkaritza Kontseiluko kideak hautatzeko prozesua

1. Batzar Nagusi Arrunta egin baino hogeita hamar egun baliodun lehenago, Kooperatibako

bazkide guztiei idatziz jakinaraziko zaie Artezkaritza Kontseiluan berritu behar diren kide eta ordezkioetarako hautagai-zerrendak aurkezteko epea irekiko dela.

2. Hautagaiak idatziz aurkeztu beharko zaizkio Kontseilu Errektoreko lehendakariari, Batzar Nagusia egin baino 72 ordu lehenago, gutxienez.

5. artikulua. Batzordeak

1. Artezkaritza Kontseiluak batzordeak edo gai jakin edo estrategikoak lantzeko lan-taldeak sortu ahal izango ditu kooperatibaren helburu sozialaren barruan bazkideei ematen zaizkien zerbitzuak hobetearren zerbitzu zehatzak edo jarduerak sustatu eta zuzentzeko.

2. Batzordeak sortzeko erabakian, horien osaketa, jarduera-esparrua, Artezkaritza Kontseiluak eskuordetutako eskumenak eta Artezkaritza Kontseiluarekiko koordinazio modua finkatuko dira.

3. Gaur egun ondoko batzordeak osatu dira:

- a) Garapen Taldearen Batzordea
- b) Hizkuntza Proiektuaren Batzordea
- c) Kultur Elkartea
- d) Kirol Elkartea
- e) Gardentasun, Komunikazio eta parte-hartze Batzordekoa
- f) Batzorde Ekonomikoa

g) Mantentze-lanen eta Obren Batzordea

h) Ordutegia Batzordea

6. artikulua. Proposamenak Artezkaritza Kontseiluari aurkeztea

1. Kooperatibaren bazkide orok Artezkaritza Kontseiluari bere proposamenak aurkeztu ahal izango dizkio finkatuta dauden moduen arabera, Artezkaritza Kontseiluak gai horiek bileraren gai-zerrendetan sartzea egokia den edo ez azter dezan, bilera horietan gai horren inguruan informatzeko edo horri buruz erabaki bat hartzeko, kasuaren arabera.

2. Proposamen bat egiten duenak, Artezkaritza Kontseiluak horren inguruan zer erabaki duen ezagutzeko eskubidea du.

3. Proposamenak idatziz egingo dira beti, ondoko bide hauetako bat erabiliz:

a) Artezkaritza Kontseiluaren berezko helbide elektronikoa, Ikastolaren web-orrian agertzen da.

b) Artezkaritza Kontseiluko lehendakariari idazki bat bidaliz.

4. Ikasturte bakoitza amaitutakoan, Artezkaritza Kontseiluak bilera egingo du Langileen Batzordearekin.

7. artikulua. Zaintza Batzordea

1. Zaintza Batzordeak, Kooperatibaren funtzionamenduaren "ikuskaritza" lanak burutzen ditu; Artezkaritza Kontseiluak hiru hilabeteetan behin kooperatibaren jardueren eta jarduera horiek izan dezaketen bilakaeraren berri emango dio.

Bazkideen artean Batzar Nagusiak hautatuko dituen lau kidek eta langileen ordezkari batek (behin betiko kontratua duten soldatapeko langileek aukeratutakoa) osatuko dute.

2. Zaintza Batzordearen funtzioak eta gaitasunak, baita funtzionamendua ere, Legeak eta Gizarte-estatutuek finkatutakoarekin bat etorriko dira.

3. Zaintza Batzordearen aktak euskaraz eta gazteleraz idatziko dira.

4. Zaintza Batzordeak ondoko moduan funtzionatuko du:

a) Zaintza Batzordea gutxienez hiru hilean behin bildu behar da, eta Administrazioaileek Kooperatibaren jardueren eta jarduera horiek izan dezaketen bilakaeraren berri emango dute.

b) Baina edozein administrazioailek edo batzordekidek organo horretako lehendakariari deialdia egiteko eska diezaioke, eta eskaeraren arrazoiak zein diren esan beharko du. Artezkaritza Kontseiluaren edo Batzordearen beraren herenek (gutxienez) eskaera

egiten badute eta hilabeteko epean deialdia egiten ez bada, edozein talde eskatzailek egin ahal izango du deialdia.

2. KAPITULUA. OLABIDE IKASTOLAREN KUDEAKETA

8. artikulua. Funtzioen eskuliburua

1. Ikastolako Funtzioen Eskuliburua, kudeaketa organoen antolatzeke egitura orokorra, organigramak eta lanpostuen monografiak finkatzen dituen agiria da.
2. Lanpostuen monografiak, gutxienez, eta zehatz-mehatz, bakoitzari buruzko ondoko informazioa jasoko dute:
 - a) Funtzioak (erantzukizunak).
 - b) Lan garrantzitsuenak.
 - c) Saila edota Etapa eta hierarkia-mendetasuna.
 - d) Eskatzen den titulazioa eta prestakuntza.
 - e) Lanpostuaren profilaren bestelako baldintzak, ezagupenak, jarrerak, gaitasunak, abilezia eta esperientzia aintzat hartuta.
3. Artezkaritza Kontseiluak du Funtzioen Eskuliburua eta horren inguruko aldaketak onesteko eskumena.

1. ATALA. ZUZENDARITZAZ

9. artikulua. Zuzendaritza.

1. Artezkaritza Kontseiluak finkatuko du zer Zuzendaritza egitura behar den Ikastolaren jardueraren kudeaketa profesionalizatua burutzeko.
2. Pertsona batek edo talde batek osa dezake zuzendaritza, eta Artezkaritza Kontseiluak eskuordetutako eskumenak eta ardurak izango ditu; Artezkaritza Kontseiluak zuzendaritzarekiko etengabeko kontrol zuzena burutuko du.
3. Zuzendari izateko edo Zuzendaritzako kide izateko, ez da beharrezkoa Kooperatibako bazkide izatea.
4. Ezingo dute Zuzendaritzako kide izan Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legearen, ekainaren 24koaren, 42. artikulua aurreikusi dituen debekuren edo bateraezintasunen bat dutenek.

Artículo 10. Garapen Taldea.

1. Garapen Taldea osatuko dute Zuzendaritza Nagusiak, Ikastolako etapa guztietako ordezkariak eta Artezkaritza Kontseiluaren Garapen Taldeak.

2. Los representantes de las diferentes etapas de Garapen Taldea junto a la Dirección se deberá reunir como mínimo una vez a la semana.

3. Hauexek dira Garapen Taldearen funtzioak:

- a) Ikastola modu koordinatuan, efikazia eta efizientziarekin, kudeatzea, ikastolaren jardueraren alde eginez (maila guztietan) etengabeko hobekuntza prozesu baten eta etengabeko berrikuntza eta kalitate esparru baten barruan.
- b) Ikastolan egunero egiten diren mota guztietako jardueren kontrola, jarraipena eta ebaluaketa burutzea.
- c) Artezkaritza Kontseiluak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak burutzea eta, kasua balitz, buruaraztea.
- d) Artezkaritza Kontseiluari Ikastolako jardueraren inguruko edozein alderdi, gai edo jazoeraren berri garaiz ematea, Kontseiluak berak eskatuta edo Zuzendaritza Taldearen ekimenez eta, zehazki, ondokoen berri:
 - Plan Estrategikoaren burutzapenaren berri, baita hori garatzeko egiten diren urteko Kudeaketa Planen burutzapenaren berri ere, ikasturteak metatuz eta horien arteko konparaketa eginez; gainera, helburuak kuantifikatuta, ebaluatzeko irizpideak eta emaitzak ere zehaztu beharko dira. Erraz erabiltzeko moduko informazio sintetiko eta esanguratsu horrekin batera, planen burutzapenari buruzko alderdi esanguratsuen inguruko txostena ere bidaliko du. Behintzat urtean behin aurkeztu behar da, ikasturtea amaitu baino lehen eta, edozein kasutan, hurrengo ikasturtearen Kudeaketa Planaren proposamena aurkeztu baino lehen.
 - Urteko memoria-txosten bat, hezkuntza etapa guztietan ikasturtean egin diren ebaluazio akademikoak eta horien emaitzak laburtuko dituen. Erraz erabiltzeko moduko informazio sintetiko eta esanguratsu horrekin batera, alderdi esanguratsuen inguruko txosten-laburpen bat ere bidaliko da. Horretarako, Araudiaren 1. eranskinak jaso ditu ebaluazioaren eta txostenen sistematika eta Haur Hezkuntzan familiekin egiten diren komunikazioak.
 - Hurrengo ikasturterako planifikazioa egitea, eta ikasturtea amaitu baino lehen hori organoetara bidaltzea —edozein kasutan ere, urteko ekainaren 30a baino lehen bidali beharko da—; irakasleen adskripzioari, aukerako ikasgaiei, eskolaz kanpoko jarduerari, ebaluatzeko sistemei, eta gertaera eta jazoera garrantzitsuei buruzko alderdi garrantzitsu eta berriak modu berezian aipatuko dira.

- La evolución de la ejecución del presupuesto aprobado por la Asamblea y los aspectos de la contabilidad y de la financiación más significativos, tanto de forma global como desglosada en cuántos órganos y comisiones existan en la Ikastola.
- Ikasturterako aurrekontu proposamena, bai ikastolarena orokorrean, bai Ikastolan diren organo eta batzorde guztiak xehatuta.
- Ikastolaren komunitatean gertatu den edozein jazoera, gertaera edo gai garrantzitsu, horren izaera edozein izanda ere.

4. Garapen Taldeak eginiko bileren aktak euskaraz idatziko dira.

2. ATALA. ZUZENDARITZAK

11. artikulua. Zuzendaritza Nagusia

1. Kooperatibaren jarduera guztiaren kudeaketaren azken ardura du zuzendaritza nagusiak, jarduera horren izaera edozein izanda ere, eta, zehazki, pedagogia- eta gerentzia-jardueraren azken ardura du Artezkaritza Kontseiluaren aurrean, hierarkiari eta funtzionamenduari dagokionez horren pean baitago.

2. Hierarkiari dagokionez Kooperatibako langile guztiak zuzendari nagusiaren pean daude, nahiz eta bakoitzak zuzenean funtzioetako arduradun bat ere izan gutxienez eta, orokorrean, arduradun hori izango den zuzendari nagusiarekin hitz egingo duena.

3. Bere funtzio garrantzitsuenak ondokoak dira:

a) **Zuzendaritzako funtzioak:** Zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea:

- Ikastolaren jarduera guztiak, hezkuntzakoak eta eskolaz kanpokoak barne.
- Ikastolako langile guztiak.
- Ikastolako talde guztien lan-harremanak.
- Ikastolako lan alderdi, alderdi laboral eta juridiko, ekonomia mailako eta finantza mailako alderdi guztiak, baita Ikastolan diren organo eta batzorde guztienak ere.
- Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzu osagarriak: garraioa, jantokia eta zaintza, eta ikasturte bakoitzean finkatzen diren guztia.

b) **Kudeaketa funtzioak:**

- Pedagogia eta administrazio esparruarekin zuzenean lotutako langile eta material beharrak kudeatzea.

- Kooperatibaren ondarea, horren inbentarioa eta dokumentazioa eguneratua izatea.
- Obra, instalazio eta altzari beharrak programatzea, eta horien guztien mantentze-lanen ardura ere gain hartuko du.
- Plan Estrategikoa egitea, eta urteko Kudeaketa Planen bidez hori garatu eta burutzea; gainera, Artezkaritza Kontseiluari horren burutzapenaren, kontrolaren eta jarraipenaren berri emango dio.
- Plan eta Proiektuak diseinatu, planifikatu eta burutzea.
- Artezkaritza Kontseiluko lehendakariari uneoroko laguntza ematea, Artezkaritza Kontseiluaren sustapen, koordinazio eta zuzendaritzarako eta behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa eta egokia den informazio eta dokumentazioa emanaz.
- Artezkaritza Kontseiluaren lehendakariarekin Kooperatibaren intereserako gaiak egokia den aldizkakotasunarekin bideratzea.

c) Ordezkapen funtzioak:

- Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak berariaz eskuordetzen duen kasuetan, hezkuntza erakundeekiko eta pedagogia-, lan eta ekonomia eta administrazio-esparruko beste organismo batzuekiko harremanetan Ikastolaren ordezkaritza gain hartzea.
- Beste ikastetxe batzuetako pedagogia- eta administrazio-arduradunekin harremanak edukitzea.
- Artezkaritza Kontseiluan parte hartzea (hitz egin ahal izango du baina ezingo du bozkatu) Kontseiluak berak edo Kontseiluko lehendakariak dei egiten badio.

12. Artikulua. Garapen Taldearen funtzio pedagogikoak

Honako funtzio hauek izango ditu, besteak beste:

- a) Langile horniduren inguruko plan orokorra finkatzea. Irakasle kopurua, profila eta trebakuntza zehaztea.
- b) Artezkaritza Kontseiluari proposatu beharreko irakasleak aukeratzea; Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du horiek kontratatzea edo ez.
- c) Langile guztientzako trebakuntza eta birziklatze plana egitea, beharrezkoak diren bitartekoak eta ekintzak proposatuz.
- d) Pedagogia-materialen inguruko beharrak planifikatzea, instalazioak ere sartuta.
- e) Hezkuntza programak ebaluatzea.

- f) Pedagogia-berrikuntza sustatzea, hezkuntza eskaintza eta kalitatea hobetzeko helburuarekin.
- g) Zuzendari nagusiak eskuordetuta, Kultur eta Kirol Elkartetako koordinatzaileen-arduradunen lanak gainbegiratzeko eta koordinatzea.
- h) Zuzendari nagusiak eskuordetuta, IKT mintegiko langileen lanak gainbegiratzeko eta koordinatzea.
- i) Hizkuntza Proiektuaren Batzordea koordinatzea
- j) Ikuskaritza bazkaldu aurreko eta ondorengo bizikidetzako eta epe horretan egiten diren jardueren osagarrien antolaketa.

13. artikulua. Etapa bakoitzaren Garapen Taldea (HHko Garapen Taldea, LHko Garapen Taldea, DBHko Garapen Taldea eta BATXIko Garapen Taldea)

1. Etapa bakoitzean (HH, LH, DBH eta BATXI) 3 ordezkari izendatuko dira, eta horiek osatuko dute aro bakoitzaren Garapen Taldea, hala:

-HHko Garapen Taldea

-LHko Garapen Taldea

-DBHko Garapen Taldea

-BATXIko Garapen Taldea.

Salbuespen gisa, etapa bakoitzaren Garapen Taldeak bi kidez osatuta egon beharko du, betiere Garapen Taldeak horrela izan behar duela uste badu. Halaber, Artezkaritza Kontseiluak onartu beharko du.

Garapen Talde bakoitzaren ordezkariak horrela hautatuko dira: etapa bakoitzean haren Garapen Taldea osatu nahi duten boluntarioak aurkeztuko dira. Zuzendaritza Nagusiak zein Artezkaritza Kontseiluak berretsi beharko dituzte.

Garapen Taldea osatzen duten kide guztiek, gutxienez, bertan hiru urtez irauteko konpromisoa hartu beharko dute. Salbuespen gisa, bi urtez egon ahal izango dira baldin eta Garapen Taldeak hala baloratzen badu. Hala ere, iraupen hori bi edo hiru urtez luzatu ahal izango da, betiere Garapen Taldea ados badago. Hori guztia Artezkaritza Kontseiluak berretsi beharko du.

Etapa bakoitzeko Garapen Taldeko kideak aldatzeaz haratago, ezagutza eta aditu-jakinduria mantentze aldera, kideak era mailakatuan ordezkatu beharko dira, urtero etapa bakoitzeko bat ordezkatzuz.

2. Garapen Taldearen jarraibideen eta orientazioenpean, zeinaren eragin zuzena duen, etapa bakoitzaren Garapen Taldeak honako erantzukizun eta funtzio hauek izango ditu:

- a) Etapa horretan kudeaketa plana, hezkuntza jarduera, material beharrak eta giza baliabide beharrak planifikatu, kontrolatu, jarraitu eta ebaluatzea.
- b) Irakasleen lanak orientatu, koordinatu eta gainbegiratzea, bai tutoreena, bai irakasle zehatzena eta etapako teknikariena.
- c) Ikasleengan antzeman diren ikaskuntza-arazoen inguruan informazioa bilatu eta arazo horien jarraipena egitea; irakasleek izango dute arazo horien berri emateko ardura. Gainera, arazo horien diagnostiko eta bilakaerari adi egingo da eta Orientazio Sailak proposatutako neurriak betetzen direla zainduko du.
- d) Ikastolaren Hezkuntza Proiektua sustatzea eta Curriculum Proiektuaren jarraipena egitea.
- e) Etaparen eskaintza akademikoa proposatzea.
- f) Klaustroa koordinatzea eta gutxienez hilean behin horren deialdia egitea.
- g) Etapako ikasleei arreta egitea.
- h) Irakasle eta tutore aldaketen berri ematea familiei ahalik eta lasterren.

4. Los integrantes de Garapen Taldea de cada etapa ejercerán las funciones disciplinarias tal y como se recoge en el artículo 66.

3. ATALA. ZUZENDARITZA KONTSEILUAZ

14. artikulua. Zuzendaritza Kontseilua

1. Zuzendaritza Kontseilua, Ikastolako erabakitze- eta kudeatze-organoen topaketarako eta koordinaziorako organoa da, bai kudeaketa arloei bai pedagogia- eta administrazio-arloei dagokienez. Bertan kideak ordezkatzeko dira Artezkaritza Kontseiluaren kideen – horiek osatuko dute Garapen Taldea -, Garapen Taldeko kideen, irakasleen, administrazio- eta zerbitzuetako langileen eta ikasleen bitartez.

2. Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak, edo hark izendatutako kide edo pertsonak, Zuzendaritza Kontseiluko lehendakari lanak burutuko ditu.

3. Zuzendaritza Kontseilua, eskolarik ez dagoen aldietan izan ezik, behintzat hiru astean behin bilduko da. Akta bat egingo da Zuzendaritza Kontseiluan landutako gaien inguruan eta akta

horrek, gainera, esku-hartzeen laburpena, egin diren eztabaidak eta trukatu dituzten iritzia, ondorioak eta hartutako erabakiak jasoko ditu.

4. Zuzendaritza Kontseiluaren deialdia Klaustroaren bilera baino lehen egingo da, iradokizunak eta ekarpenak garaiz egiteko aukera izan dezan klaustroak.

5. Bilkuren deialdiak (horien gai-zerrendak barne) eta aktak Zuzendaritza Kontseiluko, Artezkaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kide guztiei bidaliko zaizkie, haiek ezagutu ditzaten.

6. Zuzendaritza Kontseiluaren aktak euskaraz idatziko dira, baina Artezkaritza Kontseiluko kideei bi hizkuntzetan bidaliko zaizkie.

7. Zuzendaritza Kontseiluko lehendakariak, egokia jotzen duen guztietan, hezkuntza komunitateko zenbait kide etortzea eskatu ahal izango du haiei zuzenean axola zaizkien gai zehatz batzuen inguruan aritzeko edo gai horien inguruan ekarpen esanguratsuren bat egin ahal badute.

15. artikulua. Zuzendaritza Kontseiluaren funtzioak

Zuzendaritza Kontseiluari ondoko funtzioak dagozkio:

- a) Pedagogia arloa sustatu eta kontrolatzea
- b) Ikastolaren eguneroko jardueren jarraipen-funtzioak burutzea
- c) Artezkaritza Kontseiluari erabakiak hartzeko proposamenak bideratzea.
- d) Artezkaritza Kontseiluak berariaz eskuordetzen dizkion funtzioak

16. artikulua. Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa

1. Honako hauek osatuko dute Zuzendaritza Kontseilua:

- a) Artezkaritza Kontseiluko bost ordezkari: presidenteak, presidenteordeak eta idazkariak, nahiz bi bokalek; horiek Garapen Taldearen Batzordearen parte dira.
- b) Zuzendaritza Nagusia
- c) Etapa bakoitzaren Garapen Taldeko kide bat
- d) Orientazio Saileko pertsona arduraduna.
- e) Administrazio Saileko pertsona arduraduna.
- f) Ikasleen bi ordezkari: bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoa eta beste bat Batxilergakoa. Salbuespen gisa, eta Zuzendaritzak alde aurretik baimena ematen

badu, haiekin batera beste ikaskide bat etorri ahal izango da landu beharreko gaien edo haien proposamenen arabera.

g) Etapa bakoitzeko irakasle bat.

h) Administrazio eta zerbitzuetako taldeko langile bat.

2. Ikasleen ordezkarien funtzioa ekimenak edo iradokizunak eramatea izango da, baita ekimen edo iradokizun horiei buruzko edo ikasleentzako interesgarri izan daitekeen bestelako edozeri buruzko informazioa jasotzea ere. Ikasle guztiek ikasturte hasieran egingo duten bozketa baten bidez aukeratuko dira ordezkari horiek; etapa guztietako gela-ordezkarien artean aukeratu beharko dituzte.

3. Halaber, langileen taldeko ordezkariak langileek eurek bozketa bidez aukeratuko dituzte ikasturte hasieran. Etapako ordezkariak euren burua proposa dezakete etapako klaustroaren oniritzia baldin badute.

Ordezkaritza ikasturterako izango da.

17. artikulua. Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiak

Erabakiak adostasunez hartuko dira, nolanahi ere, eta hori ezinezko gertatuko balitz, Artezkaritza Kontseiluan Kontseiluko ordezkari direnei egokituko zaie, ordezkaturako funtzioen berezko ordezkariak baitira, beharrezko izan dadin erabakia hartzea edo sortutako auziak eta izandako jarrerak Artezkaritza Kontseiluaren osoko bilkurari bidaltzea, osoko bilkurak egokiak diren erabakiak har ditzan.

4. ATALA. ESKOLA KONTSEILUAZ

18. artikulua. Eskola Kontseiluaz.

1. Eskola Kontseilua, gutxienez, urtean bitan bilduko da, ikasturtearen hasieran eta ikasturtearen amaieran. Gainera, kide herenek eskatuz gero, Eskola Kontseiluaren deialdia egin beharko da.

2. Zuzendari nagusiak egingo ditu bileretarako deialdiak eta kide guztiei, behintzat astebete lehenago, bileraren gai-zerrenda bidali beharko die aztertu, eztabaidatu eta, kasua balitz, onartuko dituzten gaien inguruko dokumentazioarekin batera.

3. Eskola Kontseiluak ez-ohiko bilera egingo du premiazko gairen bat badute. Kasu horretan, premia hori duen gai edo duten gaiak bakarrik sartuko dira gai-zerrendan. Premiazko bilera horiek, Eskola Kontseilua osatzen duten pertsona guztien herenek eskatuta edo Batzorde Iraunkorrak eskatuta, halakorik balego, deitu ahal izango dira. Zuzendari nagusiak egingo du deialdia, behintzat 48 ordu lehenago, betiere parte-hartzaile guztiek deialdiaren berri izango dutela bermatu ahal bada.

4. Eskola Kontseiluko lehendakariak, edo kideen herenek, egokia jotzen duten guztietan, hezkuntza komunitateko zenbait kide etortzea eskatu ahal izango dute haiei zuzenean axola

zaien gai zehatz batzuen inguruan aritzeko edo gai horien inguruan ekarpen esanguratsuren bat egin ahal badute.

Artículo 19. De las actas del Consejo Escolar

1. Idazkariak Eskola Kontseiluan landutako gaien inguruan akta bat egingo du eta akta horrek ondokoak jasoko ditu:

- a) Bertaratukoen zerrenda, izen-abizenekin eta Eskola Kontseiluan duten karguarekin
- b) Bilkura non eta zer egun, ordu, hilabete eta urtetan egin den
- c) Landutako gai nagusiak, baita egin diren parte-hartzeen, eztabaiden eta trukaturako iritzien inguruko laburpena, ondorioak eta hartutako erabakiak ere; gainera, bozketen emaitzak zein izan diren jarriko da. Norbait gehiengoaren irizpenarekin ados ez badago, boto partikularrak ere adieraz daitezke.

Eskola Kontseiluaren aktak euskaraz eta gazteleraz idatziko dira.

Idazkariak eta lehendakariak izenpetu beharko dituzte aktak. Eskola Kontseilu horretan edo hurrengoan onetsi ahal izango dira.

2. Deialdiak eta Gai-zerrendak Lehendakariak Eskola Kontseilua eta Artezkaritza Batzordea osatzen dituzten kide guztiei bidaliko dizkie haiek ezagutu ditzaten.

3. Lehendakariak aktak Eskola Kontseiluko, Artezkaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideei bidaliko dizkie posta elektronikoz, horien berri izan dezaten.

5. ATALA. BESTE ORGANO BATZUK

20. artikulua. Irakasleen organoak

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko gai edo arloetako **Mintegiak**, euren arloen planifikazioa dinamizatzen duten eta arlo horiek koordinatzen eta ebaluatzen dituzten organoak dira, betiere Saileko arduradunaren zuzendaritzapean. Saileko arduraduna, gainontzeko mintegiekiko eta zuzendaritza-taldearekiko komunikazioaz arduratuko da. Irakasleak mintegi horietara atxikiko dira irakasten dituzten irakasgaien arabera. Mintegiak ondokoak dira:

- a) Matematika.

- b) Natur Zientziak.
- c) Gizarte Zientziak.
- d) Euskara
- e) Espainiera.
- f) Atzerriko hizkuntzak.
- g) IKT
- h) Nahastea: Heziketa Fisikoa, Musika, Teknologia eta Marrazketa.

Irakasgai bakoitzeko irakasleek Saileko arduraduna aukeratuko dute. Etapako zuzendaritzek berretsi beharko dute egindako proposamena, eta Zuzendaritza Kontseiluari horren berri emango zaio.

2. Klaustroa

Zuzendaritza nagusiaren zuzendaritzapean, irakasle guztiak bilduko dituen Ikastolaren gobernuan parte-hartzeko talde organo bat da; ikastetxearen egunerako bizitza akademikoa arautuko du eta irakaskuntza-alderdiei buruzko informazioa emango du.

Klaustroak ondoko funtzioak ditu:

- a) Formular al equipo directivo propuestas para la elaboración de la programación general anual, así como evaluar su aplicación.
- b) Formular propuestas para la elaboración del Proyecto Educativo.
- c) Urteko Kudeaketa Plana burutzeko proposamenak egitea.
- d) Curriculumaren zehaztasuna eta proiektuen eta urteko programazio orokorraren hezkuntza alderdi guztiak egin, onetsi eta ebaluatzea.
- e) Ikasleei Ikastolaren Barne Araudiaren eta bizikidetza arauen berri ematea ikasturtearen hasieran gelako ordezkarien bitartez.
- f) Pedagogia esperimenezkoaren eta ikerketaren eremuan eta ikastetxeko irakasleen trebakuntzan zenbait ekimen sustatzea.
- g) Ordezkariak hautatzea Ikastolaren Eskola Kontseiluan eta Garapen Taldean.
- h) Irakasleen orientazioari, tutoretzari, ebaluazioari eta errehabilitazioei buruzko funtzioak burutzea.
- i) Ikastetxearen funtzionamendu orokorra aztertu eta baloratzea langileei, gogobetetasun inkestak eginez, besteak beste; gainera, eskola-errendimenduen eta Ikastolak burutzen dituen barneko zein kanpoko ebaluazioen emaitzak ebaluatuko ditu.

- j) Diziplina-gatazkak ebazteko bideak zein diren ezagutzea eta zehapenak jartzea eta zehazpen horiek indarreko arauen arabera izango direla zaintzea.
- a) Ikastetxean bizikidetzaren aldeko zenbait neurri eta ekimen sustatzea.

3. Etapako bilerak

Klaustroak zenbait etapatan bildu daitezke. Etapa bakoitzaren bileraren buru izango da haren Garapen Taldea.

Bilereek ondoko funtzionamendu-arauak dituzte:

- a) Gutxienez hilean behin egingo dira.
- b) Etapek Garapen Taldearekin koordinatuta egingo dute lan, eta koordinazio-talde bat finkatuko da horien, Garapen Taldearen eta Orientazio Sailaren artean.

21. artikulua. Koordinazioko beste organo batzuk

1. Prozesuaren edo eta prozesu sistemen jabea: Prozesu bat kudeatzeko edo eta bere sistemako prozesuen jarraipena egiteko ardura duen pertsona da. Zuzendaritzak, kalitatea koordinatzeko taldearen aholkularitzarekin, izendatuko du organo hori.

2. Kalitatea koordinatzeko taldea: Zuzendaritza taldeko pertsona batzuek eta prozesu-sistemen jabeek osatuko dute organo hau eta prozesuen arabera kudeaketa-sistema koordinatzeko ardura izango du.

3. Hizkuntza Proiektuaren Batzordea: Organo honek, hizkuntza normalizazioaren arduradun teknikoaren koordinazioarekin eta Garapen Taldearen menpe, Ikastolaren hizkuntza curriculum eta euskararen erabilera normalizatzeko jarduerak koordinatzeko eta hizkuntza proiektua garatzeko eta burutzeko ardura du. Zuzendaritzak, curriculum dinamizatzailerak, curriculumen besteko dinamizatzailerak eta etapa bakoitzeko irakasleen ordezkariak osatuko dute. Beste estamentu batzuetako ordezkariak ere parte har dezakete.

4. Elkarbizitza behatokia

1. Elkarbizitza Behatokia ikastolan elkarbizitza kudeatzeko organo bat da, eta harreman positiboak eta bizikidetzaren onuragarria sortzea du helburu.

2. Elkarbizitza Behatokiak Ikastolako Bizikidetzaren Planaren gauzapena zuzentzen du, Batzar Nagusiak onetsi dezan.

3. Ondokoek osatzen dute Behatokia:

- a) Artezkaritza Kontseiluko Elkarbizitzaren arduradun bat
- b) Orientazio Saileko pertsona bat

- c) Garapen Taldeko 5 pertsona.
- d) Irakasle bat
- e) Ikasleen bi ordezkari
- f) Jantokiko langileen ordezkari bat
- g) Autobuseko langileen ordezkari bat
- h) Guraso edo lege-ordezkari bat
- i) Kirol Elkarteko pertsona bat
- j) Kultur Elkarteko pertsona bat

4. Kasu guztietan, hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak ordezkatuta daudela hartuko da aintzat, eta gizon eta emakumeen arteko paritatearen alde egingo du edo, kasua balitz, ordezkaturako taldean emakume eta gizonen kopurua proportzionala dela.

5. Informatikako eta Telekomunikazioetako Teknologien Mintegia: IKTen urteko plana koordinatzen, planifikatzen eta burutzen duen organoa da. Plan horren azken helburua, IKTak modu sistematizatuan sartzea eta irakaskuntza eta ikaskuntza, ebaluaketa, komunikazio eta kudeaketa prozesuetan horien aplikazio aurreratua egitea da, zerbitzuen berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako giltzarria baita.

IKT Mintegiko arduradunak bere lan profesionala arduraz burutuko du eta, gainera, Hezkuntza Planaren eta Plan Estrategikoaren garapenarekin bat etorritik; Garapen Taldearen jarraibideei jarraituko dizkio, horren aurrean erantzun behar baitu.

Zerbitzu horren kudeaketa eraginkorra, IKT baliabideen erabilera egokia, horien segurtasuna, mantentze-lana eta optimizazioa antolatuko du, betiere Ikastolaren planen arabera eta zuzendaritza taldearen gida-lerroei jarraituz.

IKT Saileko arduradunak dituen **funtzio** garrantzitsuenak ondokoak dira:

- a) Ikastolako software aplikazio berriak ezagutu eta horien garapenari laguntzea.
- b) Ikastolako IKT sistema eta programen inguruko informazioa ezagutu eta eguneratua izatea, irakaskuntza-ikaskuntza, komunikazio eta kudeaketa prozesuei euskarri aurreratua emateko.
- c) IKTren erabilera optimizatuko du, hobetzeko ekimenak eta neurri zuzentzaileak definituko ditu eta proiektu berriak diseinatuko ditu kooperatibaren Plan Estrategikoaren barruan.
- d) Zuzendaritza taldeari informazioa eman eta aholkatzea.

- e) Bai Instalazioetako bai aplikazioetako zein horien eguneraketetako (segurtasun-kopiak) automatizazio eta segurtasuneko sistema definituen kudeaketa gainbegiratzea.
- f) Irakasleekin hitz egitea informatika-sistemen inguruko edozein zalantza, arazo edo kontsulta baldin badute. Irakasle erabiltzaileei oinarrizko trebakuntza ematea eta horiei laguntzea informatika eta bulegotika tresnen erabilera egokia eta autonomoa egin dezaten.
- g) Kooperatibaren informatika-instalazioak gainbegiratu, zaindu eta kudeatzea.
- h) IKTetako hornitzaile eta laguntzaileekiko harremanen ardura lehenik gain hartzea.
- i) Inbentarioa, dokumentazioa eta Ikastolan IKTak behar bezala gidatzeko eta horren kudeaketa egokia egiteko beharrezkoak diren protokoloak informatika-euskarrian diseinatzea eta edukitzea.
- j) Ardurapeko arloetatik eta laguntzaileengandik jasotzen diren iradokizun, kexa, erreklamazio edo desadostasunei lehenik erantzutea.
- k) Ikastolak sarean duen irudi korporatiboaren jarraipena egitea, baita Ikastolaren web orriarena eta IKTen bidez orokorrean egiten den komunikazioarena ere.

6. Ikasleen Ordezkarien Ganbera: Ikasleak ordezkatzeko dituen organoa da; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko gela guztietako ordezkariek osatuko dute.

7. Enpresa Batzordea: Langileen ordezkaritzarako organoa da.

8. Matrikulazio berrietarako bisitak koordinatzeko taldea:

Ikasturte bakoitzean matrikulak egiteko epean, Ikastolara datozen bisitei arreta egin, eta bisita horiek guztiak koordinatzen dituen pertsona taldea da. Helburua, familia kalitate oneko arreta pertsonalizatua eskaintzea da. Horrela bada, aldi horietan Haur Hezkuntzako Garapen Taldeak duen lan-zama handia arinduko da.

Haur Hezkuntzako zenbait irakaslek, euren borondatez osatu dute aipatutako taldea. Pertsona horiek, ikasturtero jasoko dute alderdi guztien inguruko beharrezko informazio guztia, bereziki, Hezkuntzako Ordezkaritzak jakinarazitakoei buruzkoa eta, zehazki, aurreko ikasturtearekiko aldaketen berri emango dute. Zuzendaritzak emango du aipatutako informazioa.

Irakasle horiek, lanalditik kanpo bisitei arreta egiteko egon diren orduak, lan-egutegian sar ditzakete.

6. ATALA. ORIENTAZIO SAILA

22. artikulua. Orientazio Saila

1. Garapen Taldearen jarraibide eta orientazioen arabera, horren menpe baitago zuzenean, Orientazio Sailak jarraian azaltzen diren ardurak eta funtzioak ditu. Saileko arduradun batek dinamizatzen du eta Saileko psikologoek zuzentzen dute aipatutako saila.

- a) Orientazio Saileko lanak eta pertsonak koordinatu eta zuzentzea
- b) Orientazioko Urteko Plana koordinatu, planifikatu eta burutzea. Aldez aurretik, ikasturtea hasi baino lehen, Artezkaritza Kontseiluak plan hori onetsi beharko du.
- c) Gurasoei, ikasleei eta irakasleei orientazioa ematea, alderdi akademikoen, pedagogikoen zein psikologikoen inguruan.
- d) Gurasoen Eskola planifikatu, zuzendu, kontratu eta ebaluatzea.
- e) Ikasleen jarraipena egitea Ikastolan dauden bitartean.
- f) Autobuseko, jantokiko eta eskolaz besteko jardueretako irakasle eta begiraleei orientazio eta laguntza eskaintzea.
- g) Bizikidetzaren aurkako jokaeren jarraipena egitea; horretarako, etapako zuzendaritzekin batera, zenbait neurri zuzentzaile proposatuko ditu.
- h) Eusko Jaurlaritzako Berritzeguneko Sailarekin etengabe harremanetan egotea eta horrekiko harremana eta lankidetzat sustatzea.

2. Orientazio Sailak ondoko lanak egin beharko ditu:

- a) Hezkuntza eta psikopedagogia arloko orientazio jarduerak antolatu eta burutzea.
- b) Etapa Zuzendaritzekin koordinatuta, tutoretza-ekintza plana antolatu eta burutzea.
- c) Irakasle guztiei, familiei eta ikasleei laguntzea.
- d) Laguntza behar duten ikasleei aholkatzea eta, kasua balitz, horiekin lan egitea.
- e) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle bakoitzari egokitutako arreta ematea eta, hala behar denean, etengabeko arreta ematea.

3. Artezkaritza Kontseiluak, Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, Orientazio Saileko arduradunaren izendapen formala egingo du.

7. ATALA. ADMINISTRAZIO ARLOA

23. artikulua. Administrazio Arloaren funtzioak

1. Zuzendari nagusiaren jarraibide eta orientazioen pean (zuzenean horren menpe baitago), Administrazio Arloak honako ardura eta funtzio hauek izango ditu:

- a) Bazkide eta familiekin, edo hala eskatzen duen edonorekin, hasiera batez harremanetan jartzea eta horiei zuzeneko arreta egitea, aurrez aurre, telefono bidez edo baliabide elektronikoen bitartez.
- b) Gainontzeko Zuzendaritzei eta erabakitze-organoei eta organo sozialei laguntzea antolaketari eta administrazio-alderdietan.
- c) Artezkaritza Kontseiluak, Zuzendaritza Kontseiluak, Eskola Kontseiluak, Zaintza Batzordeak edo Batzar Nagusiak behar duten dokumentazio guztia prestatzea, baita erabakitze-organoetako edo organo sozialetako batzordeek eta lan-taldeek behar duten dokumentazioa ere.
- d) Administrazio arloen funtzionamendua kudeatu, gainbegiratu, kontrolatu eta ebaluatzea.

24. artikulua. Administrazioaren kudeaketa-esparruak

Administrazio Arloak hiru esparru izango ditu, eta arduradun batek zuzenduko ditu horietako bakoitza:

- 1. Langile eta zerbitzuen arduraduna.
- 2. Ekonomia eta finantza arloko arduraduna.
- 3. Arlo pedagogikoko arduraduna.

II. ATALBURUA. IRAKASLEEZ

25. artikulua. Irakasleen ardurak

1. Irakasleek, Garapen Taldeak agindu dizkien irakasgai edo arloen inguruan ikasleak irakasteko eta trebatzeko prozesuen lehendabiziko ardura dute eta, orokorrean, Ikastolaren Hezkuntza Proiektua burutzeko eta aplikatzeko ardura dute.

2. Irakasleek ez dute ikasleei botikak emateko ardura, eta horri dagokionez, eskola orduetan gertatzen diren istripuen protokoloa bete beharko dute.

26. artikulua. Ikastolako ikasleek dituzten jarrera ezegokien aurrean irakasleek duten funtzioa

1. Irakasleek agiri honetako hirugarren atalburuko hirugarren kapituluan xedatutakoa bete beharko dute.

2. Irakasle baten seme-alaba den ikasle batek modu desegokian jokatzeko badu, irakasle horrek ikaslearen guraso moduan bakar-bakarrik hartuko du parte neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduran.

27. artikulua. Irakasle tutoreen ardurak

1. Tutorearen lan nagusia, gelako eta, orokorrean, taldeko ikasle guztien ikaskuntza eta heltze prozesuaren jarraipena egitea eta horri laguntzea izango da. Ikasleekin zuzenean, zein irakasleekin, familiekin eta kanpoko zerbitzuekin egiten diren ekintza guztiak, oinarritzeko funtzio hori betetzera zuzenduko dira.

2. Gela bakoitzeko irakasle tutorearen funtzioak eta ardurak hiru jarduera-esparrutan banatzen dira:

a) Ikasleak.

Tutoreak du ikasleen hezkuntza osoaren, ikasle bakoitzaren jarraipen osoaren eta etengabeko ebaluaketaren eta bakoitzak bere proiektua egin ahal izateko beharrezkoa duen laguntza emateko lehen ardura. Horretarako zenbait ekintza burutuko ditu, taldeka zein banaka:

- Taldeko ekintzen artean, taldeko tutoretza ordua eta Ebaluaketa Batzarrak daude.
- Banaka egiten diren ekintzen artean, ikasle bakoitzarekin egiten diren elkarriketak, gatazketan egiten den bitartekaritza, informazioa eskuratzeko eta erabakiak hartu behar direnean laguntza bilatzeko orduan haiei eskainitako laguntza, etab. daude.

b) Gainontzeko irakasleak.

Gela bateko irakasle guztien ekintzak koordinatzeko ardura du tutoreak, bere hezkuntza jardueraren xede den ikasle-talde bateko irakasle taldea aintzat hartuta. Horretarako zenbait ekintza burutuko ditu, banaka zein taldeka:

- Taldeko ekintzen artean, irakasle taldearen bilerak eta ebaluatzeko bilerak koordinatuko ditu.
- Banakako ekintzei dagokionez, irakasle bakoitzarekin bere ikasle-taldeko ikasle baten edo taldearen egoerei buruz hitz egingo du.

c) Ikasleen familiak edo eta lege-arduradunak eta beste gizarte-eragile batzuk.

- Tutoreak, ikasleen gurasoen eta lege-ordezkarien arteko elkarriketa eta koordinazioa sustatu beharko du ikasleen heziketa osorako denon helburua betetzearren. Halaber, dagokion kasuetan, Orientazio Zuzendaritzarekin batera, ikasleen ikaskuntza eta orientazio prozesuan parte hartzen duten gizarte-eragileekiko koordinazioaz arduratuko

da, horrekin esku-hartzeetan batasun bat ziurtatzearen (gizarteko, hezkuntzako aisiako, absentismoaren jarraipeneko, etab.eko zerbitzuen erakundeak eta elkarteak).

- Familiekin zein legezko tutoreekin elkarriketak eta bilerak egingo ditu ikasturtearen hasieran eta amaieran, etapa amaitutakoan eta egoerek hala eskatzen duten guztietan. Horretarako, Araudiaren 1. eranskinak jaso ditu ebaluazioaren eta txostenen sistematika eta Haur Hezkuntzan familiekin egiten diren komunikazioak.
- Tutore bakoitzak astean behin ordutegi finko bat izango du aurrez-aurreko elkarriketak egiteko gurasoekin eta ikasleen legezko tutoreekin; ikasturtearen hasieran Zuzendaritzari ordutegi horren berri emango die, baita familia ere ikasturteko lehen bileran

28. artikulua. Tutorearen lanak

Irakasle tutoreak, euren funtzioen arabera, burutu beharreko lan garrantzitsuenak ondokoak dira:

1. Ikasleei dagokienez:

- a) Gelako ikaskide-taldean eta ikastolan ondo integratzen laguntzea eta hango jardueretako parte-hartzea sustatzea.
- b) Ikasleen ikaskuntza prozesuen jarraipen osoa egitea eta hezkuntza erantzunak edo eta laguntzak bideratzea.
- c) Informazio akademiko eta profesionala eskuratzen laguntzea eta norberaren orientaziorako gaitasuna emango dizkien ikaskuntza egoerak sortzea.
- d) Une eta gai garrantzitsuenei buruz aholkularitza ematea: beste ikastetxe batera joateko orduan, hezkuntza etapaz aldatzeko orduan, aukerako irakasgaiak hautatzeko orduan, lan mundura igarotzeko orduan, etab.
- e) Ikasleen proposamenak, eskariak, kezkak, kexak etab. bideratzea, eta egokia den kasuetan, delegatuarekin - gelako ordezkariarekin batera, bitarteko izatea gainontzeko irakasleen eta zuzendaritza taldearen aurrean.
- f) Ikastolako edozein irakasle, baina bereziki Haur Hezkuntzan, ikasleen higieine eta osasuneko oinarritzko beharrez arduratuko da eta ikasleei komunera joaten, autobusera joaten eta antzeko egoeretan lagunduko die.

2. Gainera irakasleei dagokienez:

- a) Tutoretza Ekintza Plana egin eta kontrolatzea.

- b) Taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioari eta ebaluazioari dagokienez, bai irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan sortu diren banakako eta taldeko egoeren azterketari dagokionez.
- c) Taldeko irakasleekin gutxienez ikasturtean hiru ebaluazio bilera egiteko deialdia burutzea eta bilera horiek egitea.
- d) Tutoretza Ekintza Programaren berri ematea, hori adostea eta burutzea, lankidetzarikuspuntu batetik horren ondoriozko jardueretan inplikatur.
- e) Ikasleen ezaugarriei buruzko eta ikasleek programazioan, ebaluazioan eta hezkuntza-harremanean duten inplikazioari buruzko informazioa ikasturteko gainontzeko irakasleekin trukitzea.
- f) Bere ikasle-taldea ebaluatze prozesua koordinatzea eta ebaluazio hori egiteko bilerak antolatu eta zuzentzea.
- g) Ikasle bakoitza ebaluatze prozesua koordinatzea.
- h) Ikaskuntzan orokortuagoak diren ikasleen zailtasunei arreta egitea eta, ahal bada, zailtasun horiei aurrea hartzea —programazioan egokiak diren egokitzapenak eginez—, baita ikasle bakoitzaren hezkuntzako premia bereziei ere, egokia ikusiz gero, curriculumaren egokitzapenari ekinez; horretarako, premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez berariazko hezkuntza esku-hartze proiektuetan, curriculum dibertsifikatzeko programetan, jarduera indargarrietan eta hezkuntza esku-hartzean lagunduko du.
- i) Ikasleengan antzemandako arazoen berri ematea Orientazio Saileko Zuzendaritzari, horrek ebaluaketa eta jarraipena egin dezan; gainera, dagokion Etapako Garapen Taldeari horren guztiaren berri emango dio.
- j) Irakasle-taldearen aholkularitzarekin, banako eskola-orientazioko txosten bat egitea, isilpekoa, ikasleari eta familiari informazioa eta aholkularitza ematearren dauden hezkuntza aukera guztien artean hautatzeko orduan eta etorkizun akademiko eta profesionalaren inguruan.
- k) Isilpeko banakako eskola-orientazioko txosten hori burutzea ere egoera bereziek hala eskatzen dutenean, adibidez, hurrengo ikasturtera igaro ezin denean.
- l) Ikasleak beharrezkoak dituen gaitasunak lortu ez baditu, lan-plan bat egitea, Orientazio Sailaren laguntzarekin, Ikasleak ikasturtea berriz egin behar badu edo datorren urterako indargarri gisa.
- m) Ikasgaien estatistikak eta Garapen Taldeak eskatutako datu guztiak betetzea, baita tutoretza-ekintzaren ondoriozko ikasleen agiri akademikoak ere.

3. Ikasleen familiei edo eta lege-arduradunei eta beste gizarte-eragile batzuei dagokienez:

- a) Ikaslearen gurasoei eta lege-tutoreei Ikastola eta hezkuntza etapa ezagutaraztea.
- b) Ikasleen gurasoei eta lege-tutoreei jakinaraztea seme-alaba ikaskuntza jardueretara joaten den eta nola hartzen duen parte horietan, baita horren hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa ematea; gainera, familien edo eta lege-arduradunen hezkuntza-prozesu horrekiko lankidetzat sustatuko du.
- c) Familiarengandik eta lege-arduradunengandik informazioa biltzea ikaslea eta horren familia-ingurunea hobeto ezagutzearren.
- d) Gurasoei eta lege-arduradunei aholkularitza ematea ondoko gaien inguruan, bestek beste: ikaskuntza eta portaera arazoak ebaztea, ikasketa antolatzea eta planifikatzea eta erabaki akademiko eta profesionalak hartzea.
- e) Ikasleei eta haien gurasoei eta lege-ordezkariei eskola-jardueren inguruko guztiaren berri ematea; horrez gain, horiek irakasleengana eta Ikastolako gobernu organoetara zuzentzeko eskubidea dute. Ikastolak familiei jakinaraziko die tutoreak zer ordu dituen astean bisitei arreta egiteko.
- f) Familiek Ikastolaren bizitzan parte-har dezaten sustatzea.
- g) Ikasturtean familiekin gutxienez bi bilera egitea (familia guztiekin), eta familia bakoitzarekin ikaslearen jarraipenerako beharrezkoak diren guztiak, Haur Hezkuntzan izan ezik; izan ere, tutorea ikasle berberekin 3 urtez badago, bilera bakarra egin dezake familia guztiekin. Horretarako, Araudiaren 1. eranskinak jaso ditu ebaluazioaren eta txostenen sistematika eta Haur Hezkuntzan familiekin egiten diren komunikazioak.

29. artikulua. Irakasleen eskubideak

Irakasleek ondoko eskubideak izango dituzte:

- a) Ezarritako orientazio, plan eta programen barruan irakaskuntza eta ikerketa lanetan aritzea egokien iruditzen zaizkien metodoak erabiliz, betiere ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin eta Curriculum Proiektuarekin bat etorritik.
- b) Hezkuntza-prozesuak hobetzeko eta eskola-bizitza hobetu moldatzeko ekimenak eta proposamenak aditzera ematea Garapen Taldeari, oro har, ikasturte osoan eta, bereziki, ikasturte bakoitzaren amaieran hurrengo ikasturtea planifikatze aldera.
- c) Ikastolaren jarduerari eta bizikidetzari eragiten dion guztian parte hartzea arauz jarritako bideak erabiliz.
- d) Ikastolako instalazioak, altzariak eta materiala erabiltzea, betiere irakaskuntza arloko lanak behar bezala burutzeko eragozpenik sortzen ez badu eta Etapa bakoitzeko

Garapen Taldeari jakinaren gainean jarri ondoren, Araudi honetako VI. atalburuan agintzen denaren kaltetan gabe.

- e) Ikastolari buruzko gaien inguruan behar bezalako eta garaian garaiko informazioa eman behar du Ikastolaren erabakitze- edo kudeatze-organoek, hari eta taldeari eragiten dizkion gairen ingurukoa eta informazio hori zabaldu baino lehen.
- f) Hobekuntza eta birgaitzea etengabe garatzea.
- g) Ikastolako kargu guztiak hautatzea eta horietarako hautatua izatea. Zuzendaritzak irakasleei kargu horien berri emango die ikasturtea hasten dutenean.
- h) Bere lehentasunak, esperientzia eta gaitasunarekin bat etorriz, tutoretzetan, zikloetan, etapetan eta arloetan atxikitze eskaera egitea.
- i) Berdintasunezko tratua jasotzea.
- j) Ikastolaren talde guztien eskutik, merezi duen onarpena jasotzea, betiere egiten duen hezkuntza funtzioaren arabera.
- k) Bere ekarpenak aintzat hartu, baloratu eta onartuak izatea.
- l) Zuzendaritzari baimen bereziak idatziz eskatzea eta erantzuna idatziz jasotzea eskatutakoa gauzatu ahal izateko denbora nahikoz.

30. artikulua. Irakasleen betebeharrak

Irakasleek ondoko betebeharrak izango dituzte:

1. Ikastolaren eginbidearekin, ikuspegiarekin eta baloreekin ados eta horren plangintza estrategikoarekin eta kudeaketarekin eta Artezkaritza Kontseiluak edo eta Batzarrak onetsitako Plangintza Pedagogikoarekin ados lan egitea.
2. Ikastolako Klaustroak eta Zuzendaritzak beraiei dagozkien gaietan hartu dituzten erabakiak onartzea eta burutzea.
3. Ziklo, etapa eta mintegietan hartutako erabakiak eta zuzendaritzatik eratorritakoak zein Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan eta Curriculum Proiektuan finkatutakoak onartzea eta betetzea.
4. Ikastolaren funtzionamendu egokirako ezartzen diren xedapen eta arau guztiak betetzea.
5. Euren lanbidearen ondoriozko deontologia-printzipioak betetzea.
6. Gainontzeko irakasleekin batera lan egitea eta irakasle-taldeekin modu aktiboan parte hartzea, euren lana burutzeko orduan beti etengabeko hobekuntza bilatzearen.

7. Metodologia-planifikazioa betetzea.
8. Etengabe hobekuntza eta birziklapena garatzea eta horren inguruan Garapen Taldeak Ikastolaren pedagogia diagnostikoarekin eta helburuekin bat etorritik egiten dizkieten oharrei erantzutea.
9. Irakasleen klaustroetara eta bilera pedagogikoetara joatea, baita partaide direneko organoetako bileretara ere. Gainera, Klaustro, mintegi, etapa eta irakasle-taldeetako bileretara joan ez izana behar bezala justifikatu beharko dute Etapa bakoitzeko Garapen Taldearen aurrean.
10. Dagozkien prozesuak hobetzeko taldeetako bileretara joatea eta bilera horietan parte hartzea.
11. Lan-orduetan Ikastolak antolatutako kultura-jardueretan laguntzea.
12. Finkatutako ordutegia behar bezala betetzea eta ikasleak sartzen direnean dagokien gelan egotea.
13. Ikastolara joaterik ez izanez gero, Etapa bakoitzeko Garapen Taldeari jakinaren gainean jartzea, eta lan-plana ordezkari irakasleari uztea.
14. Etapa bakoitzeko Garapen Taldeari idatziz baimena eskatzea edo joango ez dela jakinaraztea, ezinbesteko arrazoiengatik ez baldin bada, kasu horretan gertatu eta ahalik eta lasterren jakinarazi eta justifikatu beharko dute. Etapa bakoitzeko Garapen Taldeak idatziz ere erantzungo du ahalik eta epe laburrenean.
15. Etapa bakoitzeko Garapen Taldeak adierazitako beste irakasleen ordezkariak burutzea.
16. Euren ardurapean utzitako materiala zaintzea.
17. Euren ardurapean utzitako ikasleak uneoro zaintzea.
18. Ikaslearen nortasunaren prestakuntza integrala eta harmonikoa bideratzea, betiere elkar ulertze, tolerantzia eta bizikidetzaren giroan.
19. Ikasleen ebaluazioa eta tutoretza gauzatzea Ikastolak ezarritako irizpideen arabera eta dagozkion Mintegiekin batera orientazioan laguntzea.
20. Ikasleek hutsegini edo jarritako orduan etorri ezean, hori guztia kontrolatzea.
21. Ikasleek gaixotasun luze bat edo ospitalean izanez gero irakaskuntza jasotzeko duten eskubidea behar bezala egikaritzearen Orientazio Sailak emandako aginduak betetzea.

22. Ikasleei buruzko eta ikasgaiari buruzko dokumentazio guztia (curriculumaren programazioa, programazio laburtua, unitate didaktikoak, irakaste-saioak, ebaluatzeko irizpideak eta ikaslearen fitxa) eguneratua izatea.
23. Ikaslearen eta hezkuntza komunitateko gainontzeko kideen uste moral eta erlijiosoak errespetatzea, baita horien duintasun pertsonala ere.
24. Hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona guztien arteko errespetua, tolerantzia eta bizikidetza sustatzea.
25. Bilakaera aldi bakoitzean eta ikasturtean ariketak laster zuzentzea eta ikasleei ikaskuntzan hobetzen lagunduko dien informazioa ematea.
26. Ikasleen gurasoei edo lege-ordezkariei ikasleen hezkuntza prozesuari buruzko informazioa ematea, bai banaka mailan, bai talde mailan.
27. Gurasoekiko edo tutoreekiko komunikazio-kanalei arreta egitea, horiek egindako eskaerei ahalik eta lasterren erantzunez.
28. Familiei bidalitako jakinarazpen guztiek Etapa bakoitzeko Garapen Taldearen oniritzia izan beharko dute.
29. Tutoreari aldeztu aurretik ikasleen inguruan egiten dituzten jakinarazpen guztien berri ematea.
30. Gelako tutoreen kasuan, behintzat gelako bi bilera egiteko deialdia burutzea, ahal bada ikasturtearen hasieran eta amaieran. Gainera, 138,5 artikulua xedatutako elkarriketa pertsonalak burutu beharko dituzte.
31. Bizikidetza, ordena eta diziplina orokorra zaintzea, bai gelan, bai Ikastolaren esparru osoan; horretarako, jolastokirako ezarri diren txandak bete beharko dituzte eta atsedendietan ikasleei geletan gelditzeko baimena emanaz gero, horren ardura ere gain hartuko dute.
32. Ikasleen artean sor daitezkeen gatazka-egoeren aurrean, bitartekari izatea egoera horiek bideratzearen edo ebaztearen.
33. Gela barruan zein kanpoan jazoeraren edo gairen bat gertatuz gero, eta horrek Ikastolaren bizikidetzan edo gizarte-bizitzan edo eta beste ikasleren batengan eragina eduki badezake, horren berri ematea tutoreari ahalik eta lasterren; horrela bada, 27,2.c artikulua xedatutako bete ahal izango da.
34. Jokaera ezegokiak zuzentzeko prozesuak agintzeko orduan parte hartzea, hala eskatzen bazaie; horretarako, Zuzendaritza organoekin batera, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

35. Ikasleak modu ordenatuan gelan sartzen eta gelatik ateratzen direla kontrolatzea; eskola-orduetan saiatuko dira komunera taldeka joateko baimena ez ematen eta banaka ateratzeko baimena emango dute premiazkoa bada, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloan izan ezik.
36. Eskola-orduan ez dira gelatik aterako bisitaren bati arreta egiteko, beste irakasleren bati galdera bat egiteko edo gelaren jardura asalda dezakeen beste gairen baterako, premiazko kasuetan izan ezik.
37. Modu aktiboan parte hartzea jokaera ezegokiak zuzentzen. Irakasleek modu aktiboan parte hartuko dute ikasleen jokaerak zuzentzen, jokaera ezegoki hori haren ikasle batek egin duen edo ez eta jokaera hori non ikusi duten kontuan izan gabe. Horrela bada, Olabide Ikastolako langile guztiak ikasleen jokaerak zuzentzeko prozesuan inplikaturik egongo dira.

Jokaera ezegoki bat ematen denean, inplikaturik dagoen irakasleak ezingo du neurri zuzentzailearen proposamenean parte hartu, ezta prozedura agintzeko orduan ere, halakorik beharrezkoa bada, aldi berean ikasle horren edo gelako beste baten aita edo ama baldin bada. Beti bakarrik hartu du parte ikaslearen aita edo ama moduan.
38. Ikaslearen inguruan beharrezko zuhertasunez jokatzeko beste ikasle baten aita, ama edo tutorearekin edo ikasle horren Ikastolako prestakuntzarekin harreman zuzena ez duen beste edozein pertsonarekin eta, edozein modutan ere, Datuak Babesteko Lege Organikoak xedatutakoa errespetatu beharko da beti.
39. Eskola-esparrutik kanpo egiten diren irteeretan, ikasleak antolatzea eta horiei laguntzea: kultura bisitak, kanpoko jarduerak, etab.
40. Irakasleen kasuan, gainera, josketarako eremuetan ikasleak zaintzeaz arduratuko dira eta ikasleak modu ordenatuak sartu eta irteten direla zainduko dute.
41. Ebakuazio simulazioetan ikasleei arreta egitea eta ikasle horiek antolatzea.
42. Ikastolaren Curriculum Proiektua burutzeko orduan modu aktiboan parte hartzea.
43. Haur Hezkuntzan (2 eta 3 urte) laguntzaile batzuk izango dituzte euren lana burutzeko. Laguntzaileek ondoko lanak egingo dituzte:
 - a) Tutorearekin koordinatu, Garapen Taldeak ezarritako metodologiari eta jarraibideei jarraituz.
 - b) Irakasleen gainontzeko tutoreekin hitz egin eta koordinatzea.
 - c) Ikasleari higiegi eta osasun arloko oinarritzeko beharretan arreta egitea.

- d) Bi eta hiru urteko ikasleei jantokiko zerbitzuan laguntzea eta gurasoei zerbitzu horren inguruan informazioa ematea.
- e) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan goizeko Zaintza Zerbitzua kudeatzea.

31. artikulua. Irakasleak atxikitzea

1. Orokorrean irakasleak euren trebakuntzaren arabera eta kide diren mintegiaren arabera dagozkien irakasgaiak irakatsiko dituzte; dena dela, kasuan-kasuan dauden beharrek eta bitartekoek baldintzatuko dute behin betiko atxikipena.

2. Irakasleak, tutoretza, ziklo, etapa eta arloetara atxikitzeak, berariazko espezializazio, esperientzia eta trebetasun irizpideak aplikatuko dira, ikasle berberekin jarraitzea eta zikloetako txandak ere hartuko dira irizpidetzat. Halaber, ondoko irizpide orokor hau ere aplikatuko da: irakasle bati ez esleitzea gela bat gela horretan seme-alabaren edo lege-tutoretzapekoren bat badu. Bitartekoek eta erabiltzeko moduan diren giza baliabideek ez badute uzten irizpide orokor hori aplikatzen, kasu horiek bereziki eta banaka aztertuko dira dauden aukerak ikusita erabaki bat hartzearen.

3. Garapen Taldeak artikulua honetako irizpideak aplikatu gabe irakasleak atxikitzea proposatzen badu, idatziz proposamen horren arrazoiak azaldu beharko ditu eta Artekaritza Kontseiluari jakinaraziko dio proposamena ezagutu dezan.

32. artikulua. Irakasleen diziiplina-araubidea

Gai horren inguruan indarrean dauden arauak (lan-kontratudun egoera arautzen dute) eta indarreko araudiak zuzenduko dute irakasleen diziiplina-araubidea.

33. artikulua. Ez-betetzeak. Arau-hausteak eta zigorrak

1. Egin beharrekoak ez betetzeak eta Araudi honetan, Funtzioen Eskuliburuan eta indarrean dagoen legedian ezarrita dauden arauak hausteak Etapa edo Zerbitzu bakoitzeko Garapen Taldeak ohartaraziko ditu pribatuki lehendabizikoan eta, halakorik berriz eginez gero, Garapen Taldeak ohartaraziko ditu.

2. Hutsegiteak hala behar izanez gero, Artezkaritza Kontseiluak, Garapen Taldeari entzun ondoren, zein prozedura jarraituko den erabakiko du, eta eragindakoari entzungo zaiola bermatuko da.

34. artikulua. Irakasleak kontratatzeako prozedura

Ikastolan irakasle beharra sortu eta horiek betetzeko irakasle berriak lan-kontratuz hartu behar izanez gero, lanpostu horiek indarrean dauden arauen arabera eta Artezkaritza Kontseiluak ezarritako irizpideen arabera beteko dira; irizpide horietako bat barne-promozioa da, besteak beste.

III. ATALBURUA. IKASLEEZ

35. artikulua. Ikasleek dituzten betebeharren eta eskubideen inguruko irizpide nagusiak.

1. Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte. Horiek adinera eta ikasten ari diren ikaskuntza-mailara egokituta burutuko dira.
2. Ikasleek euren eskubideak hezkidetzan gauzatuko dituzte; baina euren betebeharrak ere bete beharko dituzte eta hezkuntza komunitateko gainontzeko kideen eskubideak onartu eta errespetu beharko dituzte.
3. Ikastolako kide guztiek ikasleen eskubideak, Araudi honetan jasotakoak, errespetatu behar dituzte. Gainontzekoen eskubideen errespetua izango da ikasleek euren eskubideak gauzatzeko orduan duten muga.
4. Gobernu organoek, irakasleek eta irakasle ez diren langileek, euren eskumenen eremuan, eskubideak behar bezala gauzatzen direla eta ikasleek euren betebeharrak betetzen dituztela zainduko dute, betiere Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera.
5. Ikasleek eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte eta modu berean aplikatuko zaizkie Ikastolaren barruan eta Ikastolako instalazioetan daudenean zein Ikastolako irteerak direla-eta kanpora ateratzen direnean, bisitak egiten dituztenean, beste ikastetxe batzuetan daudenean, baserri-eskoletan daudenean, atzerrirako bidaiak burutzen dituztenean, etab. etan.

1. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK

36. artikulua. Ikastolaren berezko izaerarekin eta hezkuntza proiektuarekin bat etorritik hezkuntza osoa jasotzeko oinarritzeko eskubideak

1. Ikasleek, nortasunaren erabateko garapena ekarriko dien prestakuntza jasotzeko eskubidea dute. Hori lortzeko, Olabide Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum Proiektua ondokoa da:
 - a) Ikasle bakoitzari egokitutako kalitatezko irakaskuntza eleanitza burutzea, orientazio egokia izan dezaten gaur eguneko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.
 - b) Gurasoekin elkarlanean jardutea neska-mutilen heziketa integrala lortzearren, gure hurbileko errealitatearen ezagupenetik hasi —euskara eta euskal kultura ezagutzea— eta mundu luze-zabalari irekita, kristau baloreak eta gizartearekiko baloreak landu eta garatuz.
 - c) Ekintza, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza oinarritzea, Gasteizen eta Araban gure euskal nortasuna sakontzeko eragile aktibo izanik eta ikasle izan dituen neska-mutilentzako atseginez gogoratua izatea.
2. Aurreko atalak aipatzen duen prestakuntza osoak honako hauek biltzen ditu:

- a) Bizikidetza demokratikoaren printzipioen barruan eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan eta tolerantzia eta askatasunean hezte.
 - b) Oinarritzko gaitasuna, zientzia eta kultur edukiak, ohitura intelektualak eta lan teknikak eskuratzea.
 - c) Afektibotasuna, norberaren autonomia, autoestimua, gainontzekoekin eta ingurunearekin harremanak izateko gaitasuna eta jardura profesionalak, intelektualak eta aisiakoak burutzeko gaikuntza modu harmoniatsuan garatzea.
 - d) Ikasleei, beren historia eta kultura ezagutaraziz, Euskal Herriaren partaide diren aldetik berea duten kultura identitateaz jabetzea, ikasleak eurak inguru geografiko, sozioekonomiko eta kulturalarekiko sustraitzen bultzatuz.
 - e) Derrigorrezko hezkuntza aldia bukatzen dutenean, ikasle guztiek ofizialak diren bi hizkuntzak erabiltzeko moduan ezagutzea, hau da, B2 maila lortzea, euskararen erabilera bultzatuz eta euskararen normalizazioari lagunduz.
 - f) Ikastolaren Hezkuntza Proiektuak finkatuko du zer gaitasun izan behar duten ikasleek derrigorrezko hezkuntza aldia amaitzen dutenean atzerriko hizkuntzen inguruan.
 - g) Osasunaren babesa eta sustapena eta gaitasun fisikoen garapena ziurtatuko duen heziketa.
 - h) Irakaskuntzaren kalitatea, bizikidetza eta eskola-zerbitzuak hobetzen esku hartzea.
 - i) Bakerako, askatasunerako eta herrien eta pertsonen arteko lankidetza eta elkartasun ideiak sustatzeko prestatzea.
 - j) Erlijio-prestakuntza jasotzeko eskubidea.
 - k) Kristau baloreen eta gizartearekiko baloreen inguruko trebakuntza jasotzea: humanismoa, zentzu kritikoa, elkartasuna, lankidetza, erantzukizuna eta ingurumenarekiko errespetua, besteak beste.
 - l) Hezkidetza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzekoa.
 - m) Afektibotasuna eta gainerakoekiko harremanak lantzea.
3. Halaber, programazioek eta irakaste-lan osoak alderdi horiek kontuan izan beharko dituzte. Irakaste-lan hori irakasleen agindupean bermatutako lan-giro batean burutu beharko da, bai eskola-jardueretan, bai eskolaz kanpokoetan edo osagarrietan, eta Ikastolako langile guztien laguntzarekin.

4. Ikastolaren Plan Estrategikoak Elkarbizitzarako Plan bat jasoko du. Plan Estrategikoaren indarraldia amaitutakoan, urteko Elkarbizitza Plana baloratuko da hurrengo urtekoa proposatu ahal izateko.

37. artikulua. Eskola orientazioa eta orientazio profesionala jasotzeko eskubidea

1. Beren trebezia, gaitasun, helburu eta interesen arabera, ahalik eta garapen pertsonal, sozial eta profesional handiena lortzeko eskolako orientazioa eta orientazio profesionala jasotzeko eskubidea dute ikasleek, betiere sexuan edo antzeko egoeretan oinarritutako orientazioak alde batera utzita.

2. Ikasleek ondoko eskubidea dute: eskola-orduak eta eskolako eremu eta instalazioen erabilera ikasleen euren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak optimizatzeko, trebakuntzari laguntzeko eta bizikidetza hobea sortzeko antola dezaten.

38. artikulua. Berehalako arreta jasotzeko ikasleek duten eskubidea.

1. Ikasleek Ikastolaren nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.

2. Arreta hori zuzenean eskainiko da eskumen-eremuari hala badagokio. Ez badagokio, aitzitik, erakunde edo zerbitzu eskumendunari kasua helaraziko zaio. Era berean, adingabearen gurasoei, tutoreari edo, beharrezkoa balitz, Fiskaltzari gertakarien berri emango zaie berehala.

3. Ikastola eta bertako langileak, ikasleei behar duten arreta berehala eman behar badiete ere, behartuta daude ere tratatu txarren edo haurren babesik gabeko edo arriskuko egoeren berri ematera adingabeen babesari buruzko eskumena duten Herri Administrazioei, edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo Agintaritza Judizialari. Esku-hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren adina datu eta informazioen berri eman beharko dute, eta aipatutako Administrazioei laguntza eman beharko diete egoera horiek saihestu eta konpontzeko, betiere adingabeen lehentasunezko interesak aintzat hartuta.

4. Era berean, derrigorrezko eskolatze-adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek absentismo-maila handia duela atzematen bada, hezkuntza-agintariei eta tokiko erakundeei jakinarazi beharko zaie, eskola-absentismoaren desagerpenean inplikaturik dauden Administrazio eta Erakunde guztien arteko lankidetzak lortzeko. Nolanahi ere, behar den zuhurtziaz jardungo da, eta ikasle adingabearen bizitza pribatua sartzeari saihestuko da horretarako beharrik ez badago.

5. Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik atzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek ikastolako gobernu-organismoetara jakinaraztera.

39. artikulua. Ikasleek Ikastolaren babesa edukitzeko duten eskubidea.

1. Ikasleek ondoko eskubidea dute: ikastolak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babes dezala.

2. Ikastolako gobernu-organoek behar diren neurriak hartuko dituzte, aipatutako eskola-esparruan, ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako eskubideei inork eraso edo kalte egin ez diezaienten, eta, bereziki, adingabeen kasuan, horretarako, teknologia berrien erabilera eta mugak arautzeko mekanismoak jaso dira 55. artikuluan.

3. Ikastolako gobernu-organoek zainduko dute ikasleen, bereziki ikasle adingabeen, bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan ikastetxeko inor arrazoirik gabe edo legez kanpo ez dela sartzen. Familiei, ikasleen bitartez, soilik ikastolako bizimoduari, irakaskuntza/ikaskuntzako jarduerari eta tutoretza-ekintzari buruzko jakinarazpenak, komunikazioak eta agiriak emango zaizkie, eta horiek guztiak honako hauek emango dituzte: administrazio-organoek, gobernu-organoek edo ikastolako koordinazio didaktikoak, beren funtzioen barruan, irakasleek, guraso ordezkariak eta ikasle ordezkariak. Ikasleen bidalketek zuzendaritzaren baimena izan beharko dute.

4. Ikastolako gobernu-organoek, irakasleek nahiz administrazio- eta zerbitzuetako langileek beren lanbide-jardueraren bidez ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den zuhurtziaz erabiliko dituzte.

5. Era berean, Ikastolako gobernu-organoek eragotziko dute ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, ikasleen intimitateari, duintasunari, ohoreari, ospeari edo legezko interesei kalterik egin ez diezaienten.

40. artikulua. Errendimendu akademikoaren balorazio objektiboa izateko eskubidea.

1. Irakasleek ondoko eskubidea dute: euren eskolako lana, ahalegina eta errendimendua objektiboki balora eta onar diezaieten.

2. Irakasleek eskubidea daukate ezagutzeko zein diren irakasle guztien ebaluazio-irizpideak eta ikasturte edo ziklo bakoitzean gainditu beharreko helburuak. Irizpide horiek, Ikastolaren curriculum proiektuaren barnean egongo dira eta argitaratu egin beharko dira ikasturtearen hasieran; gainera, ikasleei bereziki igorriko zaizkie haiek ezagutu ditzaten.

3. Irakasleek eta beren familiek zein lege-ordezkariek, eskubidea dute irakasleei eskola-jarduerari buruzko argibideen kalifikazioari eta bitarteko ebaluazioetako edo azken ebaluazioetako emaitzei buruzko argibideak eskatzeko.

4. Irakasleek eta euren gurasoek edo lege-ordezkoak eskubidea dute, aldez aurretik eskatuta, azken kalifikazioan eragina izango duen edozein lan, ariketa edo froga aztertzeko, horiek zuzenduta daudenean.

5. Gurasoek eta legezko tutoreek idatzizko froga horiek dagokion irakaslearekin aztertzeko eskubidea dute. Bileran, hala eskatzen bada, frogaren kopia bat etxera eramateko eskubidea izango dute.

6. Ikasleek eta beren familiek eta lege-ordezkoek, eskuratu ahal izango dute dagokion mintegiko dokumentazioa, programazioak eta ebaluazio-irizpideak biltzen dituztena alegia, aldez aurretik tutoreari eskatuta.

7. Ikasleek eta gurasoek edo lege-ordezkoek ebaluazio horietako kalifikazioen aurka erreklamazioa egiteko eskubidea dute, Araudi honetan datorren prozedurarekin bat etorritik.

8. Ohiko eta ez-ohiko deialdiko frogak edo azterketa idatziak, ikasleek ikusi ondoren, dagokien Mintegian gordeko dira ez-ohiko azken deialdiko kalifikazioak erreklamatzeko epea amaitu arte. Erreklamaziorik badago, erreklamazioa jarri duen ikasleei itzuli ez zaizkien ariketa eta lan zuzendu guztiak, baita aurkeztutako erreklamazioak ebazteko orduan konparaketa egiteko erabil daitezkeen gainontzeko ikasleenak ere, gorde egin beharko dira horien inguruan ebazpen administratibo bat edo ekintza judizial bat egin daitezkeen bitartean.

9. Irakasle bat, ikasle baten ama, aita edo lege-ordezkoa ere bada, ez du parte hartuko ikaslearen ebaluazio bileretan, ondoko salbuespenarekin: gai horren inguruan dagoen berariazko profesional bakarra bada.

10. Familiei ebaluazioen emaitzen berri emango zaie ebaluazio amaierako noten buletinaren bitartez. Hori, Ikastolaren web gunean egoteaz gain, aldez aurretik hala eskatzen duten gurasoei edo lege-ordezkariei paperean ere bidaliko zaie. Bi urteko ikasleen kasuan, buletin bakarra jasoko dute ikasturtea amaitutakoan.

Ikasturtean ikaslearen bilakaerari buruzko informazioa jasoko da elkarrizketa pertsonalen bitartez. Horretarako, Araudiaren 1. eranskinak jaso ditu ebaluazioaren eta txostenen sistematika eta Haur Hezkuntzan familiekin egiten diren komunikazioak.

11. Buletinak euskarri digitalean daudenean, Ikastolak beharrezko sistemak jarriko ditu beste batzuek nota horiek ikusteko aukera ez dutela edo nota horiek ezin direla manipulatu bermatzearren. Halaber, ez-ohiz notak jendaurrean jartzen badira, Ikastolak konfidentziasuna bermatzeko behar diren prozedurak finkatuko ditu, zenbakiko gakoan, identifikatzeko agirien edo antzekoen bitartez.

12. Ikaslearen gurasoak banandu edo dibortziatu badira, notak eta jakinarazpenak guraso-ahala duen aitari zein amari bidaliko zaizkio, aldez aurretik Administrazioari aipatutako egoera horren eta beharreko datuen berri emanda.

41. artikulua. Kontzientzia askatasunerako eskubidea

1. Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatzea.

2. Eskubide hori ondokoen bidez bermatuko da:

- a) Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren helburu diren oinarritzko irizpideen arabera heziketa, adierazpen askatasuna eta legeko antolamenduan onartutako beste edozein eskubide errespetatuz.
- b) Erlijioaren eta moralaren arloan beren sinesmenekin bat datorren irakaskuntza jasotzea, baita horrelako irakaskuntzarik ez jasotzea ere, eta aukera horrek ez du bazterketarik eragingo.
- c) Ikastolan ematen diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuek eta orientazioak eta eskola-jarduerako beste edozein prozesuk, helburu ideologikorik edo manipulazio alderdikoirik ez edukitzea.
- d) Ikasleengan euren gaitasun kritikoaren, euren irizpideak sortzeko gaitasunaren eta gainontzekoekiko errespetuaren garapena bultzatuko duen bizikidetza-esparrua.
- e) Ikastolaren Hezkuntza Proiektuari eta “Eginbideari, Ikuspegiari eta Baloreei” buruzko informazioa, bereziki, Ikastolaren beraren erlijio orientazioari buruzkoa, jasoko dute matrikulazioa egin baino lehen, gurasoen eta legeko tutoreen bitartez.

42. artikulua. Eraso fisiko edo moralik ez jasateko eta norberaren identitate eta duintasunerako eskubidea

1. Ikasle guztiek dute eskubidea euren osotasun fisiko, psikiko eta morala errespetatu diezaizkien, eta baita euren duintasuna ere, eta inola ere ezingo zaie tratatu iraingarri edo umiliagarri eman, ezta fisikoki edo moraliki tratatu txarrik dakarren zigorrak ere; gainera, edozein eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.
2. Era berean, ikasle guztiek dute eskubidea euren eskolako jardura beharrezko diren segurtasun eta higieen baldintzetan gauza dadin.
3. Eskubide hori bermatzeko, jolastokiko eremu bakoitzaren zaintzarako irakasle bat izendatuko da. Ikasturte hasieran, ardura hori esleituko zaio irakasle bakoitzari eta ikasleek uneoro jakingo dute zein irakasleek zaintzen duen eremu bakoitza eta norengana jo dezakete edozein eraso fisiko edo moral gertatuz gero babesa jasotzeko.
4. Ikasleek edozein eraso fisiko edo moralik jasoz gero, irakasleen arreta jasotzeko eskubidea dute. Irakasleek Zuzendaritzari jakinaraziko diote ikastolaren eskola-jazarpenerako protokoloari eta Araudi honek ezarritako irizpideei jarraituz.
5. Ikastolako gobernu-organismoek, irakasleek eta ikastolako gainerako langileek berdinen arteko tratatu txarrak ezabatzen lagunduko dute, ezarritako prozedurei jarraiki; gainera, eskola-jazarpenaren inguruko protokoloari jarraiki Orientazio Zuzendaritzari haren berri emango diote, hark Hezkuntza Administrazioari jakinaraz diezaion egokitzen joz gero.

6. Ikastolak isilpean gorde behar du ikasleen gorabehera akademiko, mediku, pertsonal eta familiarrei buruz duen informazioa. Hala ere, araubideko antolamenduekin bat etorriz,

Hezkuntza Administrazioaren eta bere Zerbitzuen informazio-beharrei erantzun beharko dizkie eta eskumena duen agintaritzari ikaslearentzat tratatu txarrak dakarten gorabeherak edo adinez txikiak babesteko legeetan ezarritakoa ez dela betetzen jakinarazteko betebeharra izango du.

7. Ikastolan ez da inola ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik eduki eta kontsumitzen utziko.

8. Halaber, Ikastolan ezingo da eduki eskola-erabilerarako ez diren eta kaltea sor dezaketen objekturik, erremintarik edo tresnarik, adibidez, labanak, erabilera anitzeko labanak, aiztoak, eztenak, tiragomak etab.

43. artikulua. Aukera-berdintasunerako eskubidea

1. Hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute ikasleek, batez ere hezkuntza premia bereziak badituzte, hain zuzen ere Hezkuntza Sistemaren sartzeara eta bertan irautea zailtzen badizkiete.

2. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek beren beharren arabera arretak jaso beharko dute Ikastolan bertan, Ikastolaren berezko baliabideekin eta Hezkuntza Administrazioak Ikastolaren esku jarri dituen baliabideekin.

3. Ikastolak beste zerbitzu publikoekin eta udaletako, lurraldeetako nahiz Autonomia Erkidegoko beste zerbitzuekin harremanak izango ditu arlo soziokulturalean eta arlo ekonomikoan bereziki laguntza behar duten ikasleen premiei erantzuteko.

4. Ikasle guztiek dute eskubidea hezkuntzaren etapetan sartzeko orduan aukera berberak edukitzeko. Derrigorrezkoak ez diren etapetan ondoko mugak egongo dira soilik: aprobetxamendu nahikoa edo ikasteko gaitasuna.

5. Aukeren berdintasuna sustatuko da, eta horretarako ez da inor baztertuko jaiotza, arraza, hizkuntza, sexu, gaitasun ekonomiko, maila sozial, ideia politiko, moral edo erlijioso, fisiko edo adimen aldeko urritasun edo bestelako baldintza edo gorabehera pertsonal edo sozialarengatik. Gainera, Ikastolak zehazten dituen beste ekintza positibo batzuen bitartez gabeziak konpentsatzeko dira, batez ere hizkuntza lantzeko planak, gaitasun eta erritmoen aniztasunari buruzkoak eta Orientazio Sailak, kasuan-kasuan, xedatzen dituen beste batzuk.

44. artikulua. Gizarte babeserako eskubidea.

1. Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia-ezbeharren edo istripuen kasuan.

2. Derrigorrezko mailetan diharduten ikasleek beren eskola-errendimendua ziurtatzeko behar den laguntza jasotzeko eskubidea dute, Ikastolaren beraren bidez, Oinarrizko Urrutiko Hezkuntzako Ikastetxeen bidez, edo Lurralde Ikastetxeen esku dauden Ospitaleko, Etxez Etxeko eta Terapeutikako Hezkuntza-arloko Arretarako baliabideen bidez.

3. Osasunaren eta Gizarte Segurantzaren arloan legearekin bat etorritik dituzten eskubideez gain, Ikastolak Hezkuntzaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari lagunduko dio egokiak diren baldintza akademiko eta ekonomikoak ezartzen familia-ezbeharren bat, istripuren bat edo gaixotasun luze bat duten ikasleek ikasketekin jarraitu eta ikasketa horiek amaitzeko aukera izan dezaten edo goi-mailagoko ikasketak hasteko aukera izan dezaten.

4. Berdinen arteko tratatu txarren aurrean babesteko zenbait neurri hartu beharko ditu Ikastolak eta, bereziki, sexu-jazarpena edo emakumeen aurkako indarkeria ematen bada. Egokia jotzen badu, jazarpen duena ikastetxez aldatzea proposa dezake eta, biktimei, hala nahi badute eta eskatzen badute, ikastetxez aldatzen lagunduko die. Edozein kasutan, jazarpenaren biktimek behar duten laguntza psikologikoa edukitzeko eskubidea dute.

45. artikulua. Parte hartzeko eskubidea

1. Ikasleek ikastolako funtzionamenduan eta jardueran parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden arauak jarraiki.

2. Gure Hezkuntza Proiektuko ikasleen lerroa oinarri hartuta, ikaslea protagonista delarik, haurren parte hartze kanal ezberdinak hurrengo hauek izango dira: gelako ordezkariak, bizikidetza ordezkariak, haurren kontseilua eta gela taldea.

3. Aukeraketa araudia:

-Gelako ordezkariak: gelan demokratikoki aukeratuak.

-Bizikidetza ordezkaria: bolondresa edo tutoreak aukeratutakoa.

-Haurren kontseilua: zozketaz aukeratuak dira.

-Gela taldea: ikaslearen erreferentziazko taldeak osatzen du.

4. Ikasleen parte hartze kanalen funtzioak:

-Gelako ordezkariak: Lehen Hezkuntzako azken ziklotik aurrera, bere erreferentziazko gelako ikasleak ordezkatzeko ditu, haien intereseko edo kezkatzen dituzten gaiak gelako ordezkarien kontseilura eramanez eta proposamenak landuz. Hala nola, Eskola Kontseilura eraman, ordezkarien bidez, egoki deritzeten iradokizun edo ekimenak, baita ordezkatzeko dituzten ikasturte eta maila bakoitzak dituen berezko arazoak ere.

-Bizikidetza ordezkaria: norbere inguruko bizikidetza egoeren behatzaile eta informatzaile lanak egingo ditu, tutore, bizikidetza arduradun edo garapen taldearekin. Bizikidetza ordezkarien kontseilurako gaiak, iritzi eta epaiketarik gabe jorratuko dituzte.

- Haurren kontseilua: ez du kolektiborik ordezkatzeko, iritzi pertsonala emango du. HH 5 urtetik Batx 2. mailararte ikasleek osatua egongo da eta maila bakoitzetik ikasle batek parte hartuko du HH6n izan ezik, 4 ordezkari izango dituztelarik. Ikastolako ikasle

kopurua dela eta bi haur kontseilu egongo dira. Kontseiluan 4 urtez gutxienez parte hartzeko konpromezua hartuko du eta erreleboa txandakatua izango da.

-Gela taldea: hainbat esparrutatik etorritako gaiak landuko dituzte taldean.

46. artikulua. Biltzeko eskubidea

1. Ikasleak ikastetxeetan bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleei dagokie biltzeko eskubidea.

3. Eskolara bertaratzeari dagokionez, Batxilergoko eta DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleentzat ez da jokaera ez-egokitza, bizikidetzaren aurkakotzat edo bizikidetza larriki kaltetzen duen jardueratzat hartuko, eta ez da neurri zuzentzaileak aplikatuko biltzeko eskubidea gauzatzearen ondoriozkoa bada eta aldez aurretik Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi badiote, betiere Araudi honetan finkatutako arauekin bat etorritz.

4. Biltzeko eskubidea gauzatzeko, ondoko prozedura jarraitu beharko da:

- a) Deialdia Zuzendaritza Nagusiaren aurrean burutu behar da 48 orduz lehenago gelako ordezkarien edo legearen arabera eratutako ikasleen antolakundeek ekimenez.
- b) Biltzeko proposamena idatziz eta behar bezala arrazoituz egingo da. Deialdia nork egiten duen, zer toki, egun eta ordutan bilduko diren eta zer iraupen izango duela aurreikusi duten adierazi behar da.
- c) Bilera eskola orduetatik kanpo egingo da.

5. Zuzendaritza Nagusiak biltzeko eskubidea gauzatzeko modua, ordua, espazioak eta lekuak zehaztuko ditu, baita bertaratu daitezkeenak ere. Horretarako, irakatsi eta ikasteko jardueren garapen normalean izan dezaketen eragina kontuan izango du.

47. artikulua. Grebarako eskubidea

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleei dagokie grebarako eskubidea.

2. Greba deialdirako biltzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, ondoko prozedura jarraitu beharko da:

- a) Deialdia Zuzendaritza Nagusiaren aurrean burutu behar da 48 orduz lehenago, tutoreak, Etapa bakoitzeko Garapen Taldeak, ikasleek eta familiek jakin dezaten, gelako ordezkarien edo legearen arabera eratutako ikasleen antolakundeek ekimenez.

- b) Eskoletara ez joateko proposamena idatziz eta arrazoituz egingo da, eta deialdia nork egin duen, zein egun eta ordutan izango den eta zer jarduera programatu diren zehaztuko da. Salbuespen moduan, proposamena lan-egun bat lehenago egin ahal izango da, betiere premia behar bezala arrazoituz gero.
- c) Artikulu honetan xedatutako baldintzak betetzen badira, Zuzendaritzak prozedurarekin jarraitzeko baimena emango du eta ikasleek, gelako ordezkarien bidez, gelara ez joateko proposamenaren berri emango dute. Jarraian bozketa egingo dute deialdiaren alde edo aurka dauden adierazteko.
- d) Eskola ez joateko deialdia onesteko, bozketa eskola orduetatik kanpo egingo da.
- e) Isilpeko bozketa izango da.
- f) Greba egiteko deialdia onartuta izateko bozketan gehiengo osoa lortu behar da, hau da, Derrigorrezko Hezkuntzako 3. eta 4. eta Batxilergoko 1. eta 2. mailatan matrikulaturiko ikasleen erdia gehi bat. Deialdia Batxilergoko ikasleek soilik egiten badute, Batxilergoko ikasleen arabera egingo da kalkulu hori. Bi etapetakoa bada, guztiaren kopuru osoaren arabera egingo da.
- g) Egindako bozketaren akta egingo da eta ikasleen ordezkarietako organoko ikasle batek izenpetuko du aipatutako akta. Akta horrek ondokoak jasoko ditu:
 - Bilera non egingo den.
 - Zer ordutan hasiko den.
 - Zenbat ikasle bertaratuko diren. Zenbat boto alde, kontra eta abstentzio egon diren.
 - Noiz amaituko den.
- h) Zuzendaritzak Ikastolaren web orrian greba deialdiaren berri emango du eta gurasoei eta lege-ordezkariei jakinarazpen bat bidaliko die posta elektronikoz.
- i) Kasu honetan ez da eskola ez joateagatik zigorrik jarriko.
- j) Deialdia onartua izan bada, egun horretan bertan, ikasleei deitutako mobilizazioekin bat egiteko aukera emango zaie eta arrazoi horrengatik eskolara ez direla etorriko onartuko da.
- k) Deialdia jarraitu nahi ez duten ikasleek bermatuta izango dute klasera joateko eskubidea.
- l) Eskolara ez joateko deiari erantzun nahi ez diotenek eskolak normaltasunez jasoko dituzte. Irakasleek eskolara etortzen ez direnei ez dizkiete errepikatu beharko eskola horiek eta ikasleen deialdia egin baino lehen egun horretarako finkatuta egon ahal ziren azterketak.
- m) Eskolara ez etorri ondoren, Ikastolak eskolara etorri ez diren familiei jakinaraziko die.

48. artikulua. Elkartzeko eskubidea

1. Ikasleek elkartzeko eskubidea dute, elkarteak, federazioak eta konfederazioak sortuz, betiere indarreko arauak modu orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz.
2. Legearen arabera osatu diren ikasleen elkarteak egin behar dituzten jardueretarako lokal egokiak uzteko prozedura ondokoa da:
 - a) Bilera eskaera Etapa bakoitzeko Garapen Taldeari idatziz egingo zaie, gai zerrenda, espero den ikasle kopurua eta aurreikusitako iraupena adieraziz aste beteko epearekin.
 - b) Zuzendaritzak eskaera aztertu ondoren bilera horretarako zein gela erabil dezaketen esango die ikasleei, gehien jota eskaera jaso eta 48 orduko epean.
 - c) Bilera bukatutakoan gelak txukun utzi beharko dira.
 - d) Antolatzaileek bilera behar bezalako ordenarekin burutzeko, instalazioak behar ez de moduan ez erabiltzeko eta dena txukun eta zegoen bezala uzteko ardura dute. Uneren batean gertaerak direla-eta, euren ardura hori ezin badute gain hartu, Zuzendaritzak izendatutako pertsonarengana jo beharko dute berehala, eta honek bilera eten dezake egoerak hala eskatzen badu.

49. artikulua. Adierazpen-askatasunerako eskubidea

1. Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute beren iritzia askatasunez, bakarka eta taldean adierazi ahal izateko, betiere bizikidetzako printzipio demokratikoen eta Ikastolako kideekiko eta Hezkuntza Proiektuko baloreekiko errespetuaren barruan.
2. Idatziz adierazteko eskubideaz baliatzeko orduan, erakundeak eta hezkuntza komunitateko kide guztiak errespetatuko dira beti.
3. Idatzizko adierazpen eskubidea ondoko modu, eremu eta tokiren arabera zehaztuko da:
 - a) Kartelak eta idazkiak jarri ahal izango dira iragarki-tauletan eta horretarako berariaz jarritako espazio fisikoetan. Ikastolako Zuzendaritzak ikasleen eskubide horretarako behar diren eremuak jarriko ditu, kopuruari, kokapenari eta tamainari dagokionez eta, ahal bada, ikasleekin adostuta.
 - b) Pankartak edo eremu jakin horietatik kanpo beste elementu batzuk jartzeko, Zuzendaritzari baimena eskatu beharko zaio.
4. Adierazpen eskubidea gauzatzeko, ezingo da nahastu bizikidetzaren demokratikoa eta Ikastolaren barne-ordena, ezta jardura akademikoa garatzen ez utzi.

50. artikulua. Informazio eskubidea

1. Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Ikastolako gobernu-organismoek haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.
3. Ordezkariegandik eta Zuzendaritza Kontseiluan ikasleek dituzten ordezkariegandik Ikastolaren beraren gaien eta orokorrean hezkuntza sisteman eragina duten alderdien inguruan informazioa jasotzeko eskubidea dute ikasleek.

51. artikulua. Eskolarako ez-etorrerak arautzea

Kapitulu honetan jasotako eskubideak gauzatzeko ikasleek eskolatik alde egiten badute, ez-etortze hori banaka hartuko da aintzat eta ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- a) Ikaslearen familiaren idatzizko justifikazioa, kapitulu honetan jasotakoaren ondorioz eskolara etortzen ez den bakoitzean. Justifikazio horretan jarri beharko dute zein ordutan uzten dioten Ikastolatik ateratzen (Batxilergoko ikasleen kasuan izan ezik, baimen orokor batekin nahikoa izango baitute).
- b) Eskolara etorri nahi dutenei, Ikastolak bermatuko die ikasgelan egoteko eskubidea dutela dagozkien irakasleek behar bezala zainduta eta ikasgaietakoak diren lanak eginez.
- c) Ikasleek eskolara ez etortzeko eskubidea egikaritzearen ondorioz, irakasleek ez dute berriz azaldu behar azaldutako eskola-programaren zati hori.

54. artikulua. Ikastolan ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea

1. Ikasle guztiek, indarreko antolaketa juridikoak haiei eta gainontzeko kideei esleitzen dizkien eskubideak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra dute, adinak horretarako aukera ematen dien neurrian, baita horiek gauzatzen eta errespetatzen ikasteko eskubidea eta betebeharra ere.
2. Ikastolako gobernu-organismoek eta irakasleek eta irakasle ez diren gainontzeko langileek, euren eskumenen eremuan, kapitulu honetan aipatutako eskubide guztiak gauzatzen direla bermatuko dute, baita Nazioarteko Lege eta Itunek ikasleei egotzi dizkieten guztiak ere. Ikasle adingabeen kasuan, bereziki babestuko dira ondokoetan onartzen diren eskubideak: Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa; Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, eta Ikasleen Eskubideen eta Betebeharren inguruko Dekretua, 2008ko abenduaren 2koa. Gainera, beti lehentasuna emango zaio haurren eta nerabeen interes gorenari eta horien eskubideen babesari beste edozein interes legozkoren gainetik.
3. Halaber, Ikastolako gobernu-organismoek, irakasleek eta irakasle ez diren beste langileek zainduko dute eskubide horiek legeek ezarritako muga arabera gauzatuko direla eta ikasleen arteko harremanetan bazterketa-egoerarik sortzen ez dela jaiotza, arraza, sexu, egoera zibila, sexu-orientazioa, baldintza fisiko edo psikiko, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa

sinesmen, ideologia edo bestelako baldintza edo gorabehera pertsonal, ekonomiko edo sozialarengatik.

55. artikula. Teknologia berrien erabilera eta mugak

1. Ikastolako kide guztiek duten irudi eskubidea bermatzearren, ezingo da grabaziorik egin Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe. Gainera, ikasleen gurasoei eta lege-ordezkariei baimena eskatu beharko zaio.
2. Ikasleek ezin dute mugikorrik erabili eskola-esparru osoan, ezta eskola-orduetan egiten diren irteeretan ere, hezitzaileek horretarako baimena eman ezean.
3. Musika entzuteko tresnak itzali eta gorde egingo dira eskola-orduetan, irakasleak erabiltzeko baimena ematen duenean izan ezik.
4. Autobusean edo Ikastolako eremuetan bakoitzak musika entzun ahal izango du aurikularrak baditu, gainontzekoak ez eragotearren.
5. Lehen Hezkuntzako ikasleek ezingo dute tresna elektronikorik Ikastolara ekarri, ondokoak besteak beste: mugikorrak, MP3, MP3, kontsolak eta antzekoak. Ekartzeko, alde aurretik tutorearen baimena beharko dute.

2. KAPITULUA. IKASLEEN BETEBEHARRAK

56. artikulua. Ikasteko betebeharra

1. Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak ahalik eta gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.
2. Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera eta, beraz, beren ahaleginaz eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuaz nahiz materialez baino ez dira baliatuko.
3. Ikasleek gelan irakaslearen azalpenak eta orientazioak arretaz hartu beharko dituzte, eta hark proposatutako jarduera didaktikoak egin beharko dituzte.
4. Ikasleek norberak ikasteko lanak etxean egin beharko dituzte: irakasleek euren funtzioen arabera eta Ikastolak maila eta ziklo bakoitzean finkatutako jarraibide orokorren arabera agindutako lanak.
5. Ikasleek gelan eta eskola-jarduerako gainontzeko eremuetan errespetatu beharko dute euren ikaskideek duten ikasteko eskubidea.

6. Ikasleak behar duten materialarekin joan behar dira gelara, urteko programan adostutako jardueretan parte hartu behar dute eta finkatutako ordutegien egutegiak errespetatu behar dituzte.

57. artikulua. Prestakuntza jardueretan parte hartzeko betebeharra.

Ikasle guztiek hartu behar dute parte prestakuntza jardueretan, interesez jardunez, irakasleen jarraibideei jarraikiz, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

58. artikulua. Euskara erabiltzeko betebeharra

Ikasle guztiek euskara erabiltzeko betebeharra dute irakasle eta ikaskideekin eta Ikastolako gainontzeko kideekin dituzten harremanetan, betiere euren adinaren eta hizkuntzaren jakite-mailaren arabera.

59. artikulua. Bertaratzeko betebeharra.

1. Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

2. Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo lege-ordezkariek idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak bi egun balioduneko epean onargarria den justifikazioa aurkeztuz.

3. Justifikazio onargarritzat joko dira gaixotasuna, mediku-kontsulta, lege-tramitea edo familia egoera larria azaltzekoak, betiere azterketa egunetakoak ez badira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen kasuan, kasu horretan mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

4. Ikasle bat eskolara astebete baino gehiago etortzen ez bada, mediku-ziurtagiria beharko da. Halakorik aurkezten ez badu, Zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskaritza jakinaren gainean ipiniko du eskola absentismoaren jarraipena egin dezan.

60. artikulua. Bizikidetza errazteko betebeharra.

1. Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritza eta orientazioak errespetatuz.

2. Horretarako, ikasleek ondokoa egin behar dute:

- a) Bizikidetza arauak eta, bereziki, Araudi hau ezagutzea.
- b) Irakasle eta hezkuntza komunitateko kide guztiekin portaera egokia izatea eta euren eskubideez baliotzeko orduan gainerako pertsonen eskubideak ez urratzea, sortzen

diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiltzea, beti ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartasunez jokatzeko eta hezkuntza komunitateko gainerako kideei haien eskubideez baliatzen laguntzea.

3. Ikasleek bizikidetzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakaslek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratu.

61. artikulua. Norberaren kontzientzia askatasuna errespetatzeko betebeharra.

1. Ikasleek hezkuntza komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoitzat hartuta inolako bazterketarik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo soziala.

2. Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko, grebarako edo elkartzeko eskubide indibidualez modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.

3. Ikasleek ez dute hezkuntza komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

4. Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, ondoko salbuespenarekin: Ikastolak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.

62. artikulua. Garbitasuneko eta identifikatzeko modukoak izateko betebeharra

1. Ikasleak Ikastolara garbitasuneko egoera egokian etorri behar dira.

2. Eskolan dauden bitartean ikasleak ezagutzeko eta identifikatzeko moduan egon behar dira beti, beraz ezingo dute txanorik edo buruan bestelakorik eraman, ezta eguzkiko betaurrekorik ere, tutoreak berak berariaz baimendutako salbuespen kasuetan izan ezik.

63. artikulua. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra

1. Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, Ikastolako antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastolaren Araudiko xedapenak osorik betez, eta ikastolako Hezkuntza Proiektua errespetatuz.

2. Ikasleek beren eskumenen arloan ikastolako gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta.

3. Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastolako irakasle ez direnen jarraibideak bete beharko dituzte.

4. Ikastolak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

64. artikulua. Instalazioa errespetatzeko betebeharra

1. Ikasleek Ikastolako ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakasleek edo irakasle ez diren langileek, euren funtzioekin bat, egiten dizkieten jarraibideen arabera.

2. Ikasleek ahalegin berezia egingo dute Ikastolako instalazioak, esparruak eta ekipamenduak garbi eta hondakinik gabe, edozein pintada mota barne, edukitzeko.

3. Ikasleek ez dute inoiz Ikastolako ekipamendua baimenik gabe, finkatuta ez dauden helburutako edo dagokien ordutegitik kanpo erabiliko.

4. Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori Ikastolan sartzeko aukera erraztuko, ezta behar ez bezala sartu den norbaiti lagunduko ere. Ondorio horretarako, legez eratu diren eta Ikastolan ezarri diren ikasle-elkarteak ordezkatzeko dituzten pertsonak ez dira Ikastolatik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere ordezkari gisa identifikatzen dien dokumentazioa baldin badute eta Ikastolako Zuzendaritzari bisitaren berri eman badiote.

5. Ikasleek hezkuntza komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte eta Ikastolaren testuliburuak nahiz gainerako material didaktikoak erabiltzeko baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

6. Ikasleek berehala beren irakasleari edo pertsona arduradunari jakinarazi behar diote eskola material edo ekiporen bat hondatuta dagoela, bai ustekabeen hondatu bada, bai behar ez bezala erabiltzeagatik hondatu bada.

3. KAPITULUA. BIZIKIDETZARAKO DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEK ZUZENTZEA

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

65. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak.

1. Araudi honen irizpideekin bat etorri edo bertan azaltzen direnaren arabera jokabide desegokitza, bizikidetzaren aurkakoak eta horrentzat larriki kaltegarriak diren jokabidetza har daitezkeen horiek baino ezin izango dira zuzendu.

2. Hezkuntza komunitate osoak zein diren zuzen daitezkeen jokabideak ezagutzen duela bermatzearen, ikasturte bakoitzaren hasieran irakasleei, ikasleei, eta adingabekoen gurasoei edo lege-ordezkoari Kapitulua honen edukia eta Araudi honek jasotako bizikidetzaren arauak jakinarazi edo gogoratuko zaizkie.

66. artikulua. Ikasleek euren betebeharrak ez betetzearen ondorioz egiten dituzten jokabideak zuzentzearen inguruko irizpide nagusiak

1. Ikasleek euren betebeharrak bete ez izana, gutxienez, jokabide ezegokitza hartuko da. Ez-betetze horrek eragina baldin badu hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko orduan, Ikastolaren bizikidetzaren aurkakotza edo bizikidetzaren horretan kalte larria eragiten duen jokabidetza hartuko da.

2. Ikasleen betebeharrak bete ez izanaren ondoriozko jokabide guztiak, ahalik eta lasterren zuzendu behar dira zuzendu beharreko jokabidearekin lotura duten neurrien bidez.

3. Neurri zuzentzaileen helburua batez ere hezitzailea izango da, bai zuzenketa hori merezi duen ikasle arduradunarentzat, bai gainontzeko ikasleentzat. Neurri zuzentzaile horiek hezkuntza praktikaren parte izan beharko dute, gizarte eta hiritartasuneko eta norberaren autonomia eta ekimeneko oinarritzko gaitasunak lortzen laguntzeko.

4. Proporzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioek zuzenduko dute neurri zuzentzaileak jartzeko aukera, eta lehentasuna emango zaio elkar aditzeari eta konpontzeari, betiere hezkuntza efikaziarik handiena bilatuz.

67. artikulua. Ikastolatik kanpo egindako jokabide edo ekintzengatiko erantzukizuna.

1. Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere Ikastolak programatutako jardura osagarrien edo eskolaz kanpokoen jardunean egiten badira, jantoki- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

2. Jantoki- eta autobus-zerbitzuak eskolako eremuetan eta orduetan egiten direnez, zerbitzu horien ardura dutenek (autobusetako arduradunak eta kirol eta kultura jardueretako koordinatzaileak eta koordinatzaileordeak barne), Araudi honek jasotako jokabide eta jarreraren

aurrean Ikastolako gainontzeko ikasleek duten aginte eta gaitasun bera dute egitea gertatzen den unean. Dagokion tutoreari berehala horren berri eman beharko diote eta hark hartuko du horren ardura.

68. artikulua. Ikasleen adinari egokitzea.

1. Kapitulu honetan xedatutakoa derrigorrez aplikatuko da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrerako kasu guztietan.

2. Lehen Hezkuntzan araudi honetan ezarritako betebeharretako bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute berehala eta ahoz horretarako ezarri diren neurrietako batez baliatuz. Gainera, pertsonak edota objektuek balizko kalteak jaso ez ditzaten behin-behineko neurriak ere ezarriko dira.

3. Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastolako bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta Araudi honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorritz.

2. ATALA. JOKABIDE MOTAK

69. artikulua. Jokabide desegokiak.

Ondokoak dira jokabide desegokiak:

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.
- c) Ikastolako instalazioei, ikastolako materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Ikastolako instalazioak zikintzea.
- e) Paperak, kutxatilak eta beste gauza batzuk botatzea.
- f) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastolako gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- g) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik gabeko jarrera, keinu edo hitzak.

- h) Araudi honek edo Ikastolako gobernu-taldeak bere jardunean debekatu duen ekipo, material, jantzi edo tresnarik Ikastolara eramatea.
- i) Ikastolako ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- j) Ikasolako langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- k) Kalifikaziorako erabiliko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiazea edo besteei norberarena kopiazen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- l) Hartarako baimenik ez dutenei ikastolan sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, Arau honen edo Ikastolako Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- m) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien baimenik gabe edo haien borondatearen aurka.
- n) Klasean molestatzea.
- o) Jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den materiala ez ekartzea.
- p) Araudi honek xedatutako baldintzak bete gabe Ikastolaren esparrutik ateratzea.
- q) Agindutako lanak ez burutzea, bai klasean, bai jantokian.
- r) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastolako bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzari horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

70. artikulua. Ikastolako bizikidetzaren aurkakoko jokabideak.

Ikastolako bizikidetzaren aurkakoko jokabideen zerrenda ondokoa da:

- a) Ikastolako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziiplina eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira, baita Ikastolako gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea ere.
- b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko

gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

- c) Azterketa-ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- d) Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarienezako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo horiek emandako erantzunak aldatzea.
- e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik Ikastolako lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- f) Artezkaritza Kontseiluak edo Zuzendaritza Kontseiluak behar bezala onartutako akordioak nahita ez betetzea.
- g) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jantokian, bai bakarka, bai taldean, betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziarik gabe erabiltzea.
- k) Ikastolako langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- l) Diskriminaziorik dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere (jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, sexu-orientazioa, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial), betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.

- n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideez baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.
- o) 54. artikuluan jasotako teknologia berrien erabilerari buruzko arauak ez betetzea.
- p) Ikastolaren eraikinetan telefono mugikorra hirugarrenik erabiltzea.

71. artikulua. Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

Bizikidetzari kalte larria egiten dioten jokabideen zerrenda ondokoa da:

- a) Ikastolako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obediencia-ukitze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- c) Jazarpen sexista. Ondokotzat joko da jazarpen sexistatzat: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- e) Ikastolako hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
- f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
- g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

- h) Nahita kalteak eragitea ikastolaren instalazioetan edo ondasunetan, ikastolako langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka, bai taldean.
- i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo jantokian, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldezturik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo lege-ordezkariek, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.
- k) Pertsona baten edo horren lege-ordezkoen esanbidezko baimenik gabe grabatzea eta nahita hori zabaltzea, adibidez sare sozialen edo Tuenti, Facebook, Twitter eta halako orrien bitartez.
- l) Ikastolako jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.
- m) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- n) Ikastolan erretzea edo beste edozein droga hartzea.
- o) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
- p) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.n) atalean bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legeko ordezkariei jakinarazi bazaizkie.
- q) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

3. ATALA. HEZKUNTZAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA DESEGOKIAK ETA BIZIKIDETZAREN AURKAKOAK EDO BIZIKIDETZARAKO LARRIKI KALTEGARRIAK DIREN JOKABIDEEN BESTE ONDORIO BATZUK

72. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko neurriak. Neurri hauetako batekin edo batzuekin zuzenduko dira jokabide desagokiak:

- a) Jokabide desagoki jakinari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

- b) Kaltetuak izan ahal diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- e) Idatziz ohartaraztea.
- f) Zuzendariarengana, Etapako zuzendariarengana edo, une horretan ardura duen zuzendaritza-taldeko beste edozein kiderengana joateko agindua; dena dela, edozein irakaslek ere errieta egin ahal izango dio.

73. artikulua. Ikastolako bizikidetzaren aurkakoko jokabideak zuzentzeko neurriak.

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, aurreko artikuluan zerrendatutako neurriez gain, honako neurri hauetako bat edo gehiago ere aplikatu ahalko dira:

- a) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
- b) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.
- c) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, Ikastolako jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere lan horiek bizikidetzaren aurkako jokabidearekin lotura badute eta hiru hilabetez gehienez ere.
- d) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz Ikastolara joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun eta ikasleak ez du etengabeko ebaluaketa galduko, betiere lan jakin batzuk egiten baditu Ikastolak horretarako esleitu dituen irakasleen kontrolpean.
- e) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
- f) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio Ikastolan.
- g) Jantoki-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu

arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

h) 69. artikulua p) atalean jasotako jokabideen kasuan, honako neurri hauek hartuko dira:

- Behin hutseginez gero: Sakelako telefonoa kenduko zaio eskola-egun betarako (Zuzendaritzak gordeko du), eta gaziki jokatu duela adieraziko duen txostena emango zaio hurrengo egunean 8:00etan aitzak, amak edo legezko tutoreak sinatuta itzul dezan. Orduan itzuliko zaio telefonoa.
- Bigarrenik hutseginez gero: Sakelako telefonoa kenduko zaio hiru eskola-egunez (Zuzendaritzak gordeko du), eta gaziki jokatu duela adieraziko duen txostena emango zaio aitzak, amak edo legezko tutoreak sinatuta itzul dezan. Epe hori amaituta, aita, ama edo legezko tutorea ikaslearekin joango dira telefonoa hartzera.
- Hiru aldiz edo gehiago hutseginez gero: 201/2008 Dekretuaren, abenduaren 2koaren, 42. eta 48. artikulua bitartean xedatutakoarekin bat etorriz, beste neurri batzuk jarriko dira abian. Neurri horiek onartzen ez badira, bizikidetzaren aurkako jokaerei buruzko neurriak aktibatuko dira.

2. 1.g), 1.h) eta 1.i) ataletan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) ataletik 1.f) atalera bitartean adierazitako neurrietako bat bi aldiz gutxienez aplikatu ondoren Ikastolako bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

74. artikulua. Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko neurriak.

1. Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu Zuzendaritzak eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

- a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo Ikastolako jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.
- b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.
- c) Ikastolara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo

etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

- d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo Ikastolatik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2. 1.b), 1.c) eta 1.d) ataletan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) atalean adierazitako neurrietako baten bat aldeztu aurretik aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

75. artikulua. Zenbait kasutan aplikatu beharreko zuzentze-neurriak.

Elkarbizitza Planak finkatuko du zer zuzentze-neurri aplikatuko diren jokaera motaren arabera ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, edo jokaera behin edo berriz eginez gero.

76. artikulua. Ikastetxez aldatzeko proposamena.

1. Ikastetxe-aldaketa honako kasu hauetan proposatu ahal izango da:

- a) Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere 71.o) atalean zehaztutakoa izan ezik, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeik eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.
- b) Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratatu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.
- c) Ikastolako irakasle bati eraso egiten bazaio.
- d) Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.

2. Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez handi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak gauzatzen ari bada, ikaslea urrutiko hezkuntzako ikastetxe batera, gaueko ikastetxe batera edo pertsona helduen hezkuntzarako ikastetxe batera aldatzea proposatu ahalko da.

3. Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza ordezkariari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

77. artikulua. Behin eta berriz ikaslea bertaratu ez denez, ebaluazio jarraitua egiteko ezintasuna.

1. Aurreko artikuluetan araututakoarekin bat etorriz egokitzen jotzen diren neurri zuzentzaileak aplikatzeaz gain, ikasle batzuei ezin bazaie Ikastolak etengabeko ebaluaketarako onetsi dituen metodo eta irizpideak aplikatu ikasle horiek askotan ez direlako Ikastolara etorri, dagozkien ez-ohizko probak egitera aurkeztu beharko dira eta horien arabera ebaluatuko dira.

2. Arlo, ikasgai edo modulu bakoitzaren izaerarekin bat etorriz, Ikastolak erabakiko du froga horiek nolakoak izango diren, betiere indarreko arauak xedatutakoarekin bat etorriz.

78. artikulua. Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak.

Gizarte -eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion sail didaktikoek kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriak xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

79. artikulua. Sor daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

1. Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastolako instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larriki edo ikastolak onartutako bizikidetzara-arauek aurreraren ondorioz egin badituzte.

2. Horren ordean, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo lege-ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak legeak aurreikusitakoaren arabera.

80. artikulua. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

1. Azaldutako neurri zuzentzaileak aplikatzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Jokabide horiek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.
- b) Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo agintean pairatu ahal izan duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.
- c) Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta hainbat arlotako oinarrizko gaitasunen hutsuneak, hala nola gizarte- eta herritartasun arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak, zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.
- d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

2. Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:

- a) Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.

- b) Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
 - c) Materialari edo ondasun higigarriei edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
 - d) Jendaurrean barkamena eskatzea.
 - e) Hain kalte, min, edo eragozpen larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
 - f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.
3. Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handiagoa izango da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:
- a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, Ikastolara etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein egoera.
 - b) Nahita egin bada.
 - c) Apropos egitea edo aldeztu aurretik prestatu ondoren egitea.
 - d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuitatu izana.
 - e) Eskola-arloko ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

4. ATALA. JOKABIDEAK ZUZENTZEKO AUKERAKO BIDE BATZUK

81. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Etapako zuzendariak ahalegina egingo du Araudi honetako kapitulu honetan xedatutako prozedurak erabili gabe bizikidetza-arazoak konpontzeko, atal honetan adierazten diren aukerako beste bide batzuk erabilita. Klaustroaren eta Ikastolako langile guztien laguntza beharko du.
2. Lehentasunez, ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezen: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta beren eskubideak urratuak ikusi dituzten hezkuntza-komunitateko kideak. Horrez gain, eta, kasua balitz, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko da.

3. Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie Artezkaritza Kontseiluari edo Ikastolako irakasleen Klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).

4. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako aukerako beste bide batzuk erabilita zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastolan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

82. artikulua. Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, Etapako zuzendariak, inolako prozedurarik abian jarri aurretik, ahalegina egingo du ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

2. Honako salbuespenezko egoera hauetan ezingo da horrela jokatu:

- a) Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastolaren bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.
- b) 76. artikulua jasotako jokabideak eman badira.
- c) Ikastolan gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideek izaera berekoak izan behar dute.

83. artikulua. Prozedura bertan behera uztea adiskidetzeari gertatu delako.

1. Prozedura bertan behera utzi beharko da adiskidetzeari gertatu bada. Adiskidetzeari izango da ondokoak ematen badira:

- a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkako delako edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.
- b) Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
- c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, Ikastolako organo eskudunak barkamena onartzea.
- d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2. Adiskidetzak ez du bertan behera utziko prozedura 76. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

84. artikulua. Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.

1. Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkioten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

2. Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du bertan behera utziko prozedura 76. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

85. artikulua. Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendari pedagogikoaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzendu bada edo zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 76. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

86. artikulua. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

1. Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonei entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake Etapako zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizios edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikikoa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela alde zuzentzailearen egiaztatuz gero.

2. Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerortzetat hartuko da, zigorra bertan behera gertatuta ere.

3. Jakinarazi egin behar zaie ikastolako Artezkaritza Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

87. artikulua. Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzarik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzarako konpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu behako dute.

2. Bizikidetzarako konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere: bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde,

ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Halaber, ikastolarekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3. Bizikidetzakonpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.

5. ATALA. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDUREI BURUZKO GOGOETA OROKORRAK

88. artikulua. Kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko erabili behar diren prozedurak.

4. atalak jasotako aukerako bideak aplikatu ezin izan den guztietan, kapitulu honetan arautu diren prozeduretako bat erabili behar da derrigorrez kontrakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko.

89. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskumenduna.

1. Ikasgelan, Ikastolako beste eremuetan edota Ikastolatik kanpo ikasleak zaintzen dauden bitartean, Ikastolako langile guztiek dute ikasleen jokabide desagokiak berehala zuzentzeko eskumena.

2. Langile guztiek eskumena dute haien aurrean kontrakoa den edo bizikidetzan kalte larriak eragiten dituen jokabidea gertatzen den unean bertan ikasleari errieta egiteko. Langileek, halaber, ikaslea Etapako Garapen Taldeko edo Ikastolako Zuzendaritza Nagusiko kideren batengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.

3. Etapa bakoitzeko Garapen Taldea da kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzeko eskumena duen organoa.

4. Eskola Kontseilua da Araudi honek ezartzen duenarekin bat etorritik zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

90. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduren epeak.

1. Kapitulu honetan arautu diren prozedurekin lotura duten egintzak gauzatzeko epe guztiak eskola-egunetan adierazi direla ulertuko da.

2. Ondorio horietarako, eskola-egunak hauek izango dira: egun baliadun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren batetik ekainaren hogeita hamarrera, oporraldiak izan ezik.

91. artikulua. Denbora igarotzeagatik prozedurari ekiteko debekua.

Ondoko kasu hauetan, ezin izango zaio inolako prozedurari ekin, ezta desagokiak diren, kontrakoak diren edota bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideen berri edukita ere:

- a) Bizikidetzan kalte larriak eragin dituen jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik ehun eta hogeiei egun baino gehiago igaro direnean.
- b) Bizikidetzaren kontrakoa den jokabidea osatzen duten gertakariak edota ez-egiteak gertatu zirenetik hirurogei egun baino gehiago igaro direnean.
- c) Jokabide desegokia osatzen duten gertakariak edo ez-egiteak gertatu zirenetik hogeiei egun baino gehiago igaro direnean.

92. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko unea.

1. Neurri zuzentzaileak aplikatu ahal izango dira:

- a) Kontrakoak diren edo bizikidetzan kalte larriak eragin dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak, erreklamazioak edo helegiteak jartzeko epea amaitzen den unetik aurrera.
- b) Jokabide desegokiak zuzentzeko neurrien kasuan, zer neurri aplikatuko diren erabakitzen den unetik aurrera.

2. Ondoko kasuetan ezingo da neurri zuzentzailerik aplikatu:

- a) Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik ehun eta hogeiei egun baino gehiago igaro badira.
- b) Bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideen kasuan, neurriak aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena eman zenetik hirurogei egun baino gehiago igaro badira.
- c) Jokabide desegokien kasuan, hogeiei egun baino gehiago igaro badira.

93. artikulua. Ikastola barruan jakinarazpenak eta erreklamazioak egiteko modua eta epea.

- 1. Araudi honetan arautu diren prozeduren egintzei buruzko jakinarazpenak, jakitera eman behar den egintza gertatu eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik egin beharko dira.
- 2. Kapitulu honetan arautu diren prozeduretan jaso diren erreklamazioak jartzeko epea hiru egunekoa izango da.
- 3. Araudi honetan arautu diren prozeduren barruan jaso diren eta hezkuntza-komunitateko kideei helarazi behar zaizkien jakinarazpenak nahiz zitazioak, jasotzaileak mezua jaso duela argi jakiteko moduan igorri behar dira.

94. artikulua. Araudi honetan arautu diren prozeduretako datu pertsonalak landu, babestu eta ezeztatzea.

- 1. Jokabide zuzenduei buruzko datuak dagokion ohiko edota ohiz kanpoko prozeduraren agirietan soilik ageriko dira. Datu horiek ez dira Ikastolako fitxategi edota erregistro iraunkorrera

igorriko, gainera zainduko dira eta aldi baterako beste ikastetxe batera eraman ahal izango dira, Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoaren, maiatzaren 3koaren, 23. xedapen gehigarriarekin bat etorritik.

2. Edonola ere, Araudi honek arautzen dituen prozeduretan sortu diren agiriak suntsitu behar dira. Horrela, bizikidetzaren kontrakoak diren jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu zeneko ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira. Eta, bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideei buruzko prozeduren agiriak prozedura gertatu eta hurrengo ikasturte akademikoa amaitzean suntsitu behar dira.

3. Prozeduraren izapide guztietan prozeduran parte hartzen duten pertsona guztien ohorearen, duintasunaren, intimitatearen eta irudi propioaren eskubideak babestu beharko dira, ikasle adingabeen kasuan batez ere.

95. artikulua. Erreklamazioak eta helegiteak.

1. Zuzendariak emandako ebazpenaren aurka, ikasleak edo, haren lekuan, haren gurasoek edo legezko ordezkariak, erreklamazioa aurkeztu ahalko dute Eskola Kontseiluan. Eskola Kontseiluak hori berrikusi ahalko du 106. artikuluan ezarri denari jarraiki.

2. Eskola Kontseiluaren erabakiaren aurka, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahalko dio dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari hiru egun balioduneko epean, erabakiaren jakinarazpena jasotzen denetik.

3. Erreklamazio onartu ez izanaren aurka interesdunak gora jotzeko helegitea jar diezaioke Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordeari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

96. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduretan erabiliko den hizkuntza

Ikasleek ikaskuntzan erabiltzen duten hizkuntza edozein izanda ere, Titulu honetan arautuko prozeduretan gurasoen edo lege-ordezkarien esku-hartzeak eta haiei bidaliko zaizkien jakinarazpenak eta informazioak haiek aukeratutako hizkuntza ofizialean egingo dira.

97. artikulua. Ezkontideen esku-hartzeak neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozeduretan

Ebazpen judizial batek guraso-ahala ezkontide bakar bati ematen dionean edo guraso-ahalaren funtzioak nolabait bi ezkontideen artean banatzen duenean izan ezik, Titulu honetan araututako prozeduretako esku-hartzeak biek egin ahalko dituzte, edo, bestela, horietako bakar batek, betiere beste ezkontidea ados dagoela kontuan hartuta.

6. ATALA: JOKABIDE DESEGOKIAK ZUZENTZEKO PROZEDURA

Jokabide desagokiak zuzentzeko ahozko prozedura.

1. Jokabide desagokiak berehala eta ahoz zuzenduko dira.

2. Nolanahi ere, jokabide desegokia zein izan den eta aplikatu izan diren neurri zuzentzaileak idatziz jaso ez badira eta, ikasle adingabeen kasuan, ikasleen gurasoak edota legezko ordezkariak jakinaren gainean jarri ez badira, ezin izango da 70.n) artikuluan aurreikusitakoa aplikatu. Horiek jakinarazpen sinatu bat emango diote jokabidea zuzendu duen pertsonari gehien jota bi eskola-eguneko epean. Pertsona horrek tutoreari edo jokabide desegokien erregistroaren ardura duenari kopia bat emango dio, berrerortze arloko ondorioetarako.

3. Kasu guztietan, jokabide desegokiei eta jokabide desegokiak zuzentzeari buruz idatziz edota euskarri informatikoetan jaso diren agiriak ikasturte akademikoa amaitzen denean suntsituko dira.

7. ATALA. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA

99. artikulua. Ohiko prozedura erabiltzea.

1. Ohiko prozedura erabili ahalko da argi dagoenean zein izan diren zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten gertakariak eta nor izan den egilea.

2. Prozedura horri ofizioz ekingo zaio eta idazki bidez egingo da. Prozedurak, gutxienez, honako hauek izango ditu: hasierako egintza; ikasleak eta, hala badagokio, ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak esateko zer duten entzutea; eta prozeduraren amaiera ekarriko duen erabakia.

100. artikulua. Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

1. Hasierako egintzak ondokoak jaso beharko ditu:

- a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
- b) Kontrakoak diren edo Ikastolako bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideetako batean kokatzea.
- c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika daitezkeen neurriak, Araudi honetan zehaztu direnen artean.
- d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena duen organoa zein den, eta organoari horri horretarako ahalmena esleitzen dion araua.

2. Era berean, Araudi honetan aurreikusi diren baketzegatiko edo konpontzegatiko eteteak jasoko dira.

101. artikulua. Hasierako jakinarazpena eta alde zuzentzaileko entzunaldirako zitazioa.

1. Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adingabea den kasuetan, haren gurasoei edota legezko ordezkariari ere.

Jakinarazpena egin dela bermatuko duen bitarteko bat erabiliko da horretarako, adibidez, posta elektronikoa.

2. Hasierako jakinarazpenarekin bat, ikaslearen alde aurretiko entzunaldirako zitazioa bidaliko da, baita, hala badagokio, haren gurasoen edota legezko ordezkarien entzunaldirako zitazioa ere. Zitazio horretan, halaber, entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

102. artikulua. Behin-behineko neurriak.

1. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideen kasuan, bere iritziz beharrezkoa denean eta bizikidetzari eragindako kaltearen larritasunaren arabera, zuzendariak behin-behineko zenbait neurri ezarri ahal izango ditu Ikastolako jarduerak normaltasunez gauzatuko direla bermatzeko. Neurri horien artean ondoko bi hauek leudeke: batetik, ikasleak eskoletara joateko duen eskubidea aldi baterako etetea, ikasleari eskola zehatz batzuetara edo eskola guztietara joatea debekatuz; bestetik, ikaslea behin-behinekoz taldez aldatzea.

2. Behin-behineko neurriak prozedura amaitu arte bere horretan mantendu ahal izango dira, eta ezin izango dira aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak baino latzagoak izan. Nolanahi ere, ikaslea Ikastolara edo eskoletara bertaratzeko eskubideaz gabetuta egon den denbora oso-oso zenbatuko da aplikatutako neurri zuzentzailea betetzeko garaian.

3. Ikasle interesdunei eta, ikasle interesdunak adinez txikiak badira, haien guraso edo legezko ordezkariak jakinaraziko zaie behin-behineko neurri ezarriak zein diren.

103. artikulua. Entzunaldiaren tramitea.

1. Entzunaldiaren izapidearen bidez, entzuna izateko eta bere burua defendatzeko ikasleak duen eskubidea bermatu ahal izango da. Horrenbestez, hasierako egintzaren edukiaren gain nahiz Ikastolak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoaren gain ikasleak egoki deritzon alegazioak egiteko aukera izango du.

2. Ikaslearen entzunaldia egitea derrigorrezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina dena delakoa izanik eta hartu beharreko neurria edozein izanda ere. Adinez txikiak diren ikasleek entzunaldian beren gurasoekin edo lege-ordezkariekin egoteko eskubidea dute. Azken horiek, nahi izanez gero, beren alegazioak egin ahal izango dituzte, betiere, ikasleak bereak egin ondoren.

3. Ondoko kasu hauetan soilik derrigorrezkoa izango da ikasle adingabeen gurasoei edo lege-ordezkariari entzunaldia ematea:

- a) Ikasleei leporatzen zaien jokabidea Ikastolako bizikidetzan kalte larriak eragin dituenean
- b) Bizikidetzaren kontrako neurriak direnean, betiere, aplika litezkeen neurri jakinarazien artean 73. artikuluko 1.h), 1.i) eta 1.j) idatz-zatietan zehaztutakoren bat badago.

4. Entzunaldiaren izapidea hasierako egintza jakinarazi eta hurrengo eskola-egunean egin beharko da, betiere, gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia egitea derrigorrezkoa ez bada. Derrigorrezkoa bada, entzunaldia, gehienez ere, hiru eguneko epean egin beharko da. Interesdunak entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak aurrera egingo du.

5. Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira. Kasu guztietan entzunaldi tramitearen inguruko akta bat egingo da. Etapako zuzendariak eta ikaslearen gurasoek edo lege-ordezkariek sinatutako dute aipatutako akta hori.

104. artikulua. Zein izango den aplikatu beharreko neurri zuzentzailea erabakitzea.

1. Hartutako erabakia idazki batean bilduko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatzi behar izanez gero hartarako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez ondokoak jasoko ditu:

- a) Oro har, ikasleei edo, ikasle adingabeen kasuan, haien gurasoei edo lege-ordezkariei ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak edo bizikidetzaren kontrako jokabideak zein diren jakinarazi zaien modua.
- b) Bizikidetzaren aurkako jokabidea edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea osatzen duten gertakizunen azalpena.
- c) Leporatzen zaion portaera ikasleari argi eta garbi jakinarazi zaiola ziurtatzea, zuzendu nahi den jokabidearen tipifikazioan portaera hori jasota dagoela azalduz.
- d) Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo lege-ordezkariek egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekukoen aitortpenak ere.
- e) Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko egoera astungarririk, aringarrik, edo ikaslea errugabetzeko egoerarik ba ote dagoen ala ez.
- f) Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri horiek hasierako egintzaren jakinarazpenean aukerakotzat jo direnak izango dira, ez besterik.
- g) Neurriak zer unetatik aurrera aplikatu behar diren. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.
- h) Eskola Kontseiluaren aurrean aipatu erreklamazioa aurkezteko epea.

2. Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo lege-ordezkariei jakinaraziko zaie.

3. Zuzendariak hartutako erabakia helarazi beharko dio Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari, horren berri izan dezaten.

105. artikulua. Dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari, eta, hala badagokio, dagokion Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea.

1. Neurria bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea zuzentzeko ezartzen den guztietan, idazki horren kopia bat helaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkaritari. Halaber, ondoko kasuetan ere idazkariaren kopia helaraziko zaio: bizikidetzaren aurkako jokabidea zuzentzeko ezartzen bada, neurri zuzentzaileak ikastolara bertaratzeko edo garraio- eta jangela-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea aldi baterako kentzea badakar.

2. Kasu horietan, neurria bete behar duten ikasleak Foru Aldundietako edo Udaletako Gizarte Zerbitzuen laguntza duten familietakoak badira, aplikatu zaie neurria Zerbitzu horiei helarazi beharko zaie, haren berri izan eta jarraipena egiteko aukera izan dezaten.

3. Artikulu honetan xedaturikoa betetzearen ondorioz egiten diren jakinarazpen guztiak konfidentzialtasun-eskubidearen eta erreserba-betebeharraren babespean daude.

106. artikulua. Eskola Kontseiluaren aurrean erreklamazioa jartzea.

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo lege-ordezkariek eskatuz gero, Eskola Kontseiluak zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahalko du, eta, hala badagokio, dagokion neurriak proposatuko ditu.

107. artikulua. Eskola Kontseiluaren erabakia

1. Batetik, zein neurri aplikatu behar den erabakitzeko idazki arrazoitua eta, bestetik, ikaslearen edota, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoen edo lege-ordezkarien erreklamazioan jasotako alegazioak kontuan hartuta, Eskola Kontseiluak neurri hori berretsiko du, betiere Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera dela irizten badiu, bestela, erabakia berriz aztertzea erabakiko du.

2. Eskola Kontseiluak bere eskumenak eskuordetu ahalko dizkio ikastolak horretarako eraturako batzordetako bati, betiere Eskola Kontseiluko kideek erabakia gehiago osoz onartzen badute.

3. Eskola Kontseiluak gehienez hiru eguneko epean hartu beharko du bere erabakia.

108. artikulua. Erabakia jakinaraztea

1. Eskola Kontseiluaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo lege-ordezkarientzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz

berrikusten den aintzat hartu gabe, eta, era berean, Hezkuntzako Lurralde ordezkariari erreklamazioa aurkezteko epea adieraziko da.

2. Eskola Kontseiluaren erabakia Lurraldeko ordezkariari eta dagozkion Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko zaie, betiere, 105. artikuluan jasotako kasuetan.

8. ATALA. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ZUZENTZEKO EZ-OHIZKO PROZEDURA

109. artikulua. Ez-ohizko prozedura noiz erabili behar den.

Ez-ohizko prozedura honako kasu hauetan erabili beharko da:

- a) Zuzendu beharreko jokabidea osatzen duten ekintzak edo ekintza horien egilea nor izan den kaltetuak edo hirugarren pertsonen salatutakoaren bidez soilik ezagutzen direnean, edota zeinahi arrazoiengatik, ekintza nahiz egilea bistakoak ez direnean.
- b) 76. artikulua xedatutako kasuetan.
- c) Zuzendariak, kasuaren inguruabarrak ikusirik, neurri zuzentzaile egokia hartzeko ez-ohizko prozedura egokiagoa dela iritzi duenean.

110. artikulua. Ez-ohizko prozedurari ekiteko epea.

Etapako zuzendariak prozedurari ekin beharko dio. Prozedurari idatziz ekin behar zaio, gehienez ere, bizikidetzaren kontrako jokabidea edo bizikidetzaren horretan kalte larriak eragiten duen jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutu eta hiru egunetara.

111. artikulua. Hasierako egintzaren gutxieneko edukia.

Hasierako egintzak ondokoak jaso beharko ditu:

- a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena; jokabide hori kontrakoak diren edo Ikastolako bizikidetzaren kalte larriak eragin ditzaketen jokabideen artean egon daitekeeneko zehaztapena, eta neurri zuzentzaileak aplikatu behar izaneko aukera.
- b) Izapidegilea izendatzea.
- c) Araudi honetako Titulu honetako 4. Atalean jaso diren eta aplikatu litezkeen aukerako bideak erabiliz prozedura eteteko aukera.

112. artikulua. Izapidegilea izendatzea.

- 1. Zuzendariak Ikastolako irakasleen artean izapidegilea izendatuko du.
- 2. Irakasle izendatuak izendapena onartu beharko du, betiere, ez onartzeko erregelamenduzko arrazoirik gertatzen ez bada, kasu horretan irakasleak izendapenari uko egin beharko baitio.

3. Egun bateko epean, izendapena egiten denetik, izapidegileak abstentzio-idazkia aurkezten badu, zuzendariak, emandako arrazoiak aztertu eta gero, beste izapidegile bat izendatu beharko du, arrazoi justifikatuak daudela iritziz gero. Hala ez bada, hasierako izendapena berretsi beharko du.

113. artikulua. Hasierako egintzaren eta jar daitezkeen neurrien jakinarazpena.

1. Hasierako egintza, kasu guztietan, jokabide leporatuaren erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, baita, ikasle adinez txiki den kasuetan, haren gurasoei edota lege-ordezkariei ere.

2. Zuzendariak behin-behineko neurriak ezarriko balitu, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo lege-ordezkariei jakinaraziko dizkie, betiere, ohiko prozedurari buruzko 102. artikuluan zehaztu diren baldintzetan.

114. artikulua. Izapidegilea ez onartzeko aukera.

1. Ikasleak edo, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoek edo lege-ordezkariek izapidegilea errefusatu ahal izango dute, betiere, izapidegilea ez onartzeko arauzko arrazoietako bat gertatzen bada.

2. Jazoera hori gertatuko balitz eta izapidegileak uko egiteko arrazoiak onartuko balitu, beste izapidegile bat izendatuko litzateke. Izapidegileak ez baditu onartzen errefusatzeko arrazoiak, zuzendariak bi aldeek emandako arrazoiak aztertu eta alde aurretik egoki iritzitako txosten eta aholkuak jasota hiru eguneko epean ebatzi beharko du.

3. Zuzendariaren ebazpena ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo lege-ordezkariei jakinaraziko zaie.

115. artikulua. Izapidegilearen jardunak.

Izapidegileak ofizios gaiztatuko ditu ikasle interesdunari leporatzen zaion jokabidea osatzen duten gertakariak ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki deritzon ikerketa guztiak. Era berean, kontuan izan beharko ditu ikasleak entzunaldiaren aurretik ekar ditzakeen alegazioak, agiriak edo epaiketarako zeinahi elementu.

116. artikulua. Fiskaltzari jakinaraztea.

1. Izapidegileak jokabide nahiz gertakari egotziak delitutzat edota falta penaltzat har daitezkeela uste badu, halaxe jakinarazi beharko dio zuzendariari, hala badagokio, kasua Fiskaltzaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jartze aldera.

2. Ikaslea adingabea bada, ondoko hauek jakinarazi beharko dira ere:

a) Hala bada, hezkuntzaren eremuan jokabideak zuzendu izana.

b) Hala bada, baketzea gertatu izana.

c) Hala bada, konponketa gertatu izana edo konpontzeko konpromisoa hartua egotea.

3. Zuzendariak Fiskaltzari igorritako jakinarazpenaren kopia bidaliko dio dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariari.

117. artikulua. Entzunaldirako zitazioa.

1. Izapidegileak ikasleari hitzordua emango dio entzunaldia egiteko. Ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo lege-ordezkariei ere jakinaraziko die. Entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira. 101.3 artikuluan zehaztutako kasuetan, ikaslearen gurasoei edo lege-ordezkariei derrigorrez hitzordua emango zaie.

2. Zitazioarekin idatzi bat bidaliko da eta idazki horretan honako hauek agertuko dira:

- a) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
- b) Kontrakoak diren edo ikastetxeko bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideren batekin bat datorren.
- c) Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika daitezkeen neurriak, Araudi honetan zehaztu direnen artean.
- d) Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena duen organoa zein den, eta organoari horri horretarako ahalmena esleitzen dion araua.
- e) Aurkako proba-baliabideak proposatzeko aukera.

118. artikulua. Entzunaldiaren tramitea.

1. Entzunaldiaren izapidea gauzatzeko, 103. artikuluan ohiko prozedurari buruz esandakoa aplikatuko da.

2. Gainera, ikasleari eta, ikaslea adinez txiki bada, haren gurasoei edo lege-ordezkariei prozedurako agiri guztiak erakutsi behar zaizkie betiere, indarrean dauden legeek ezartzen duten zuhurtasunaz egoki deritzotena alegatu dezaten eta egoki deritzeten proba-bitartekoak proposatu ditzaten.

3. Entzunaldi tramitearen akta idatziko da.

119. artikulua. Ebazpena proposatzea.

1. Entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, izapidegileak alde aurretik ziren frogak eta ikasleak edo guraso edo lege-ordezkariek aurkeztu ahal izan dituztenak balioetsiko ditu, baita aurkeztutako alegazioak ere; gertakizunak argitzeko eta balioesteko beharrezko iritzitako jardunak gauzatu ditu, eta ondorioren bat ateratzen duenean, ebazpen-proposamena idatzita aurkeztuko du.

2. Proposamena idatzi ostean, horren berri emango zaio ikasleari. Horretarako, entzunaldirako ezarri diren epe nahiz baldintza beretan deituko zaio berriz. Alegazio berririk izanez gero, jaso egingo dira, eta proposamena zuzendariari helaraziko zaio, aldaketarik gabe eta jasotako alegazio berriekekin batera.

120. artikulua. Ez-ohizko prozedura amaitzeko epea.

1. Gehienez ere hamabost eguneko epean amaitu beharra dago ez-ohizko prozedura, ez-ohizko prozedurari ekingo zitzaiola interesdunari eta, hala balegokio, interesdunaren gurasoei edo lege-ordezkariei, jakinarazi zitzaien egunetik.

2. Epe horri, abstentzioa edo errefusapena ebazteko erabili diren egunak gehituko zaizkio, baita ikasleak, haren gurasoek edo lege-ordezkariek eragin dituzten eta beharrezkoak ez diren atzerapenetan galdu diren egunak ere.

3. Ikertu beharreko ekintzen konplexutasunak edo antzerako inguruabarrek hala eskatuko balute, zuzendariak gehienez ere hamar egunez luzatu ahal izango du prozedura amaitzeko epea.

4. Epea luzaturik ebazpen proposamenik egongo ez balitz, prozedura igarotzat joko da, betiere, interesdunak edota haren gurasoek edo lege-ordezkariek eragindako atzerapenek sortua ez bada. Igarotze horrek ez du eragotziko delitu edo falta penaltzat har daitezkeen gertakariak edo ez-egiteak Fiskaltzari jakinarazi beharra, betiere, zigor arloan gertakaria edo ez-egitea preskribatu ez bada.

121. artikulua. Espedientea ebaztea eta jakinaraztea.

1. Ebazpenak arrazoitua izan beharko du beti, eta honako hauek bildu beharko ditu: ikasleari leporatu zaizkion gertakizunak; neurri zuzentzailea(k) ezartzeko arrazoiak; erantzukizuna aldatzen duten egoerak, halakorik balego; neurrien edukia eta neurriak zer unetatik aurrera aplikatuko diren; erreklamazioa zer organori aurkeztu behar zaion, eta azken hori aurkezteko epea.

2. Ikasleari eta, hala badagokio, ikaslearen guraso edo lege-ordezkariei ebazpenaren jakinarazpena helaraziko zaie.

3. Ebazpen hori Eskola Kontseiluari eta Irakasleen Klaustroari zuzendariak egoki deritzon moduan jakinaraziko zaie.

4. 105. artikuluan zehaztu diren kasuetan, Hezkuntzako Lurralde ordezkaritari eta, hala badagokio, dagozkion Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie ebazpena.

4. KAPITULUA. EBALUAZIO AKADEMIKORAKO IRIZPIDEAK

122. artikulua. Gogoeta orokorrak

1. Ikasturtearen hasieran, ikasturtean gutxienez zer eduki gaingitu behar diren eta zein izango diren ebaluatzeko irizpideak jendaurrean jarriko da.

2. Irakasgai bateko irakasleek gelako curriculum programazioa egiten lagunduko dute; horrela bada, koordinazioa, ikasleen artean aukera-berdintasuna eta ikasle horiek etapan aurrera egiten dutela bermatuko dute.

3. Araudi honek araututakoarekin bat etorritik egokitzen jotzen diren neurri zuzentzaileak aplikatzeaz gain, ikasle batzuei ezin bazaie Ikastolak etengabeko ebaluaketarako onetsi dituen metodo eta irizpideak aplikatu ikasle horiek askotan ez direlako Ikastolara etorri, dagozkien ez-ohizko probak egitera aurkeztu beharko dira eta horien arabera ebaluatuko dira.

Arlo, ikasgai edo modulu bakoitzaren izaerarekin bat etorritik, Ikastolak erabakiko du froga horiek nolakoak izango diren, betiere indarreko arauak xedatutakoarekin bat etorritik.

123. artikulua. Ebaluatzeko irizpideak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ikasleen gaitasunen ebaluazioa banaka eta modu jarraituan eta orokorrean egingo da, gainera kontuan izango da ikasleak nola egin duen aurrera curriculumaren arlo guztietan oinarritzko gaitasunei dagokionez.

124. artikulua. Ebaluatzeko irizpideak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1. Ebaluazio jarraitua izango da eta ikasgaien arabera bereiziko da.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, ikasleek oinarritzko gaitasunen arabera ebaluatuko dira. Etengabeko ebaluaketa prozesu horretan ikasgaien bateko gaitasunak gaingitu ez dituzten ikasleek, azterketa bat egin ahal izango dute (ez-ohiko deialdia). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako Natur Zientzien ikasgaiari dagokionez, ikasgaiak alde batetik Fisika eta Kimika eta, beste alde batetik, Biologia eta Geologia atalak izango ditu, baina ikasgai bakartzat hartuko da promozio ondorioetarako.

3. Ziklo eta ikasturte bakoitzerako curriculumean finkatutako arlo eta gaiak ebaluatzeko irizpideak, ebaluatzeko oinarritzko erreferentia izango dira. Irizpide horiek Ikastolaren curriculum proiektuan eta programazio didaktikoetan zehazten dira.

4. Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak ebaluatzeko irizpideak, arlo eta gai bakoitzerako oinarritzko gaitasunen arabera dagokion Jarduera Planean finkatzen direnak izango dira.

5. Ikasleen gaitasunak ebaluatzeko prozesuan, eta familiarengandik eta hezkuntza komunitateko beste eragile batzuegandik ikasleari buruzko informazioa jaso ondoren, talde bakoitzean

eskolak ematen dituzten irakasleek taldeka erabakiko dute, tutoreak koordinatutako eta Ikastolaren Orientazio Zerbitzuaren aholkularitzarekin.

7. Etengabeko ebaluaketarako prozesuan, ikasleak ez badu behar bezala aurrera egin, heziketa indartzeko neurriak ezarriko dira. Neurri horiek ziklo edo ikasturtearen edozein unetan hartuko dira, zailtasunak antzematen direnean, eta hezkuntza prozesuarekin jarraitzeko ezinbestekoak diren edukiak ikasiko dituela bermatzeko helburua izango dute.

125. artikulua. Ebaluatzeko irizpideak Batxilergoan

1. Batxilergoan ikaskuntzaren ebaluaketa jarraitua izango da eta ikasgaien arabera bereiziko da. Irakasleek ondokoak kontuan izanik egingo dute ebaluaketa hori: curriculumaren elementuak, ikasle bakoitzak ikasgai guztietan orokorrean ikaskuntza-prozesuan izan duen bilakaera eta ikasturtean lortu duen heldutasun eta errendimendu akademikoa, betiere Batxilergoko helburuak aintzat hartuta.

2. Irakasle-taldeak —irakasle tutoreak koordinatuko du talde hori eta ikasle bakoitzaren irakasleek osatuko dute— ikasleak ikasgaietan orokorrean izan duen bilakaera eta Batxilergoko helburuen arabera lortu duen heldutasun akademikoa baloratuko ditu, baita etapa amaitutakoan, ondorengo ikasketetan aurrera egiteko izango dituen aukerak ere.

3. Ikasgai bakoitzeko irakasleak, ikasturtearen amaieran, ikasle bakoitzak aurreikusitako gaitasunak lortu dituen edo ez erabakiko du ebaluatzeko irizpideak oinarri hartuta.

4. Ikasleek gainditu ez dituzten ikasgaietan ez-ohiko azterketa bat egin ahal izango dute ikasturtearen ekainaren 30a baino lehen.

5. Ikasturtean irakasle taldeak bost aldiz ebaluaketaren emaitzak jaso eta familiei jakinaraziko dizkiete.

5. KAPITULUA. KALIFIKAZIOAK ERREKLAMATZEKO PROZEDURA

126. artikulua. Ikastolako instantzien aurrean kalifikazioak erreklamatzeko prozedura

1. Edozein kalifikazio (zaticakoa edo behin betikoa) argitara eman eta jakinarazi ondoren, ikasleek 48 orduko epea izango dute kalifikazio horren aurka erreklamazioak egiteko. Erreklamazio hori azterketa zuzendu duen irakasleari egingo diote eta erreklamazio horren irismena edo edukia eta oinarriak azalduko dizkiote.

2. Ikaslea ez badago ados erreklamazioari emandako erantzunarekin, honako moduz ekin ahalko du:

a) Ebaluaketa partzialak

Tutoreari erreklamazioa jarri; honek irakaslearengan egokia den informazioa edo azalpena jasoko du. Tutoreak ikasgai horretako Mintegian aurkeztuko du; honek erabaki bat hartuko

du eta ikasleari eta irakasleari jakinaraziko die. Irakasleak hasieran emandako kalifikazioa ondo dagoela edo kalifikazio hori zuzentzea (bai handituz, bai gutxituz) erabaki dezake.

b) Behin-betiko ebaluaketa

Etaparen bakoitzeko Garapen Taldeari behin-betiko kalifikazioei, ohiko eta ez-ohiko deialdietakoei, erreklamazioa jarri; honek irakasleari galdetuko dio. Etaparen bakoitzeko Garapen Taldeak ikasgai horretako Mintegira bidaliko du erreklamazioa eta Mintegiak erreklamazio horren inguruan eztabaidatu beharko du, batez ere, azterketa hori finkatutako eta ikasturtearen hasieran Sailak jendaurrean jarritako ebaluaketa helburu, eduki eta irizpideekin bat datorren edo ez aztertuko du.

Erreklamazio onartuz gero, Mintegiko buruak dagokion erabakia hartzeko proposatuko dio Etaparen bakoitzeko Garapen Taldeari, kalifikazio berria aktetan eta bestelako agirietan idatzi beharko delarik araudizko prozedurari jarraituz.

c) Ebaluaketa bilerak egin ondoren, kalifikazioetan aldaketaren bat egiten baldin bada, Garapen Taldeak oniritzia eman beharko dute beti.

127. artikulua. Ikastolatik kanpoko instantzien aurrean behin-betiko kalifikazioak erreklamatzeko prozedura

Ohiko eta ez-ohiko deialdiko kalifikazioei dagokienez, eta ikastolako instantzien aurrean egin daitezkeen erreklamazioen prozedura agortu eta gero, honako bide honi ekin beharko zaio:

- a) Dagokion ikasle edo irakaslea ez badago ados Ikastolak hartutako erabakiarekin, alegazio-idazkia aurkez dezake hamar egun balioduneko epean Hezkuntzako Ikuskatzailetzako Probintziako Burutzaren aurrean. Gorabehera hau Ikastolako zuzendari nagusiari jakinarazi beharko zaio eta honek erreklamazioaren xede diren jatorrizko ariketak, programazioa, eskatutako maila eta ebaluazio-irizpideak jasotzen dituen Mintegiko agiriak, eta Ikastolan bertan jarraitutako erreklamazio-prozedurari dagozkion agiriak bidaliko ditu Burutzara.
- b) Hezkuntza Ikuskatzailetak aurkeztutako agiriak aztertuko ditu eta aintzat hartu beharko du ea aldez aurretik Mintegiak berak zehaztutako programazio edukiei eta ebaluazio-irizpideei egokituta dauden eta, horrekin bat dagokion erabakia proposatuko du. Hezkuntzako Ikuskaritzak Hezkuntzako Lurralde buruari bidaliko dizkio dagokien txostena eta proposamena, honek dagokion erabakia har dezan.

128. artikulua. Gaingitu gabeko ikasgaiak errekuaratzeko prozedura

1. Aurreko ikasturtean gaingitu gabeko ikasgaiak, hurrengo ikasturtean errekuaratu ahal izango dira.

2. Lehen Hezkuntzan, ikasturtean gaingitu ez diren ikasgaiak errekuaratzeko, ez da beharrezkoa horretarako azterketa berezi bat egitea. Hurrengo ikasturtean egingo da horren balorazioa.

Hurrengo ikasturterako finkatutako helburuak ikasleak gaingitu dituen edo ez baloratuko du irakasleak. Ikasturte horren hasieran tutoreak ikasle horietako bakoitzarentzako plan bat egingo du, eta planak jasoko du zer ahalegin egin beharko diren eskuratzeke dituzten eskumenetan beharrezkoa duten maila eskuratzeko laguntzeko.

Tutoreak beharrezko gaitasunak zer mailatan eskuratu dituen ikasleak baloratuko du eta ekaineko aktetan (ohiko deialdian) jarriko du horren kalifikazioa. .

3. Bigarren Hezkuntzan (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa), ikasgaiak zenbait moduz errekuaratu ahal izango dira, bai hurrengo ikasturteko lehen ebaluaketa gaingituz, bai ez-ohizko azterketa batzuk eginez. Ikasturtearen hasieran jakinaraziko da azterketa horiek noiz izango diren. Azterketa horiek gaingitu ezean, ikasleek ez-ohiko azterketa egiteko eskubidea dute.

DBHko titulua eskuratu ondoren gaingitu ez diren ikasgaiak, ezingo dira hurrengo ikasturtean errekuaratu.

7. KAPITULUA. ETAPAZ IGOTZEKO IRIZPIDEAK

129. artikulua. Lehen Hezkuntza

1. Orokorrean, ikasleek Oinarrizko Hezkuntzako lehen ikasturtea hasiko dute sei urte betetzen duten urte naturalean eta sei urtez Lehen Hezkuntzan egongo dira; hamabi urterekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasiko dute eta lau ikasturtez ikasiko dute hori; beraz, hamasei urte bete arte ohiz eskolan egongo dira.

2. Gaitasun intelektual handiak dituen ikasleak hartutako horri eskolaratze-aldia malgutu bazaio, Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzeko aukera izango du hamabi urte beteko dituen urte naturala baino lehen.

3. Ikasleek ohizko moduan eskolan egoteko eskubidea izango dute hamazortzi urte beteko dituzten urte horretako ikasturtea amaitu arte, betiere ebaluazio taldeak uste badu, ikasle horien gaitasun eta interesen arabera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortu ahal dutela.

4. Salbuespen moduan, Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritzak hemeretzi urtera arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan egoteko baimena eman ahal die heziketa bereziko geletan

dauden ikasleei, ezgaitasun fisikoren batekin edo ikuste edo entzute ezgaitasun batekin lotuta hezkuntza premia bereziak dituztenei eta hezkuntza bereziko laguntza espezializatuak jasotzen dituztenei.

5. Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza amaitutakoan, eta ebaluaketa prozesuaren ondorioz, irakasleen taldeak ikasleak gorako etapetara bideratzeari buruzko erabakiak hartuko dituzte eta, bereziki, tutorearen informazioa eta irizpidea hartuko dituzte kontuan.

6. Hurrengo hezkuntza zikloan sartuko dira oinarritzko gaitasunak behar bezala garatu dituztela eta heldutasun maila nahikoa lortu dutela iritziz gero. Halaber, hurrengo mailan sartuko dira lortu ez dituzten gaitasunek hurrengo zikloaren aprobetxamendua galaraziko ez dutela uste badute irakasleek. Kasu horretan, ikasleek ikasi ez duten hori errekuiperatzeko beharrezkoak dituzten laguntzak izango dituzte; laguntza horiek indartzeko edo errekuiperatzeko berariazko jarduteko plan batean jasoko dira.

Adierazitako baldintzak betetzen ez badira, beste urte bat jarraituko du ikasleak ziklo berean. Lehen Hezkuntzan neurri hori behin baino ezingo da hartu.

8. Ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartuko dira oinarritzko gaitasunak behar bezala garatu badituzte eta heldutasun maila egokia lortu badute. Halaber, hurrengo mailan sartuko dira lortu ez dituzten gaitasunek hurrengo zikloaren aprobetxamendua galaraziko ez badute. Kasu horretan, ikasleek ikasi ez duten hori errekuiperatzeko beharrezkoak dituzten laguntzak izango dituzte; laguntza horiek indartzeko edo errekuiperatzeko berariazko plan batean jasoko dira.

Aurreko paragrafoan jasotako baldintzak betetzen ez badira, ikasleek ezingo dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasi, ondoko salbuespenarekin: bete urtebetez Lehen Hezkuntzan egon badira.

130. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitza amaitutakoan, eta ebaluatze prozesuaren ondorioz, irakasleen taldeak —ikasle-talde bakoitzeko irakasleek osatuko dute talde hori eta tutoreak koordinatuko du— taldeka erabakiko du ikasle bakoitza hurrengo ikasturtera igaroko den edo ez.

2. Hurrengo ikasturtera igaroko dira egindako ikasgaiaren helburuetan sartutako gaitasunak gainditu dituztenak edo gehien jota bi ikasgai gainditu ez dituztenak; aldiz, ikasturtea errepikatuko dute hiru ikasgai edo gehiago gainditu ez dutenak. Azken kasu horretan, ikasturte osoa errepikatuko dute.

Salbuespen moduan irakasleen taldeak erabaki dezake ikasle bat mailaz igotzea nahiz eta hiru ikasgai ez gainditu, betiere gainditu ez dituen ikasgaien asteko eskola-orduak zortzitik gorakoak ez badira.

3. Ikasgai guztien gaitasunak gainditu gabe mailaz igotzen duenak, eskuratu ez dituen ikaskuntzak bereganatzeko helburu duen hezkuntza errefortzu programa bat jarraituko du eta programa horri dagokion ebaluaketa gainditu beharko du.

4. Gainditzeko ez duena beste urte bat egon beharko da ikasturte horretan. Neurri horrek, bakoitzari egokitutako berariazko plan batekin joan beharko du, aurreko ikasturtean antzeman diren zailtasunak gainditzeko helburu izango duena.

Ikasleek ikasturte bat behin bakarrik errepikatu ahal izango dute, eta etapa bakoitzean gehien jota bi aldiz errepikatu ahal izango dute. Salbuespen moduan, laugarren ikasturtean bigarren aldiz errepikatu ahal izango dute etapa horretan ez badute aurreko ikasturterean bat errepikatu.

Bigarren errepikapena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken ikasturtean egiten badute, finkatutako adin muga beste urtez luzatu ahal izango da.

Errepikatu ondoren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ez baditu hurrengo ikasturtera igarotzeko baldintzak bete, irakasleen taldeak, orientazio taldearen aholkularitzarekin eta alde zuzenetik familiari galdetuta, ikasleak ikasketekin jarraitzeko dituen aukeren artean erabakiko du, betiere ikaslearen beharren eta interesen arabera.

5. Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak promozionatzeko irizpideei dagokionez, Jarduteko Planak arlo edo ikasgai jakin batzuen curriculum egokitzapenak finkatzen baditu, irizpide horiek Plan horietan onetsitakoak izango dira.

131. artikulua. Batxilergoa

1. Batxilergoan bigarren ikasturtera igoko dira ikasitako ikasgai guztiak gainditzeko dutenak edo gehien jota bi ikasgai gainditu gabe utzi dutenak.

Ikasgai guztiak gainditu gabe bigarren ikasturtera igotzeko direnak, aurreko ikasturtean gainditu gabe utzitako ikasgai horietan matrikulatu beharko dira. Ikastolak, gainditu ez diren ikasgaien inguruko errehabilitazio- eta ebaluazio-jarduera antolatuko ditu.

2. Bigarren ikasturtera igaro ez diren ikasleek, bete urtebetez lehenengo mailan egon beharko dute. Ikasturte osoa egin beharko dute guztira lau ikasgai baino gehiago gainditu ez badituzte.

Bigarren ikasturtera igaro ez dutenak, hiru edo lau ikasgai gainditu ez badituzte, ondoko aukera hauek izango dituzte:

- a) Batxilergoko 1. maila osorako matrikula egin eta orain arte lortutako kalifikazioei uko egin.
- b) Batxilergoko 1. maila osorako matrikula egin eta dagoeneko gainditutako gaien inguruko trebakuntzak finkatzeko eta kalifikazio horiek hobetzeko aukera edukitzea. Kalifikazio txikiagoa lortuz gero, aurreko ikasturtekoarekin jarraituko dute.

- c) Gainditu ez dituen ikasgaietan matrikulatzea. Ikastolaren antolaketa arloko beharren arabera, haiek nahi izanez gero, Ikastolako Zuzendaritzak haien trebakuntzarako egokitzat jotzen dituen beste ikasgai batzuk ere ikasi ahal izango dituzte.

Edozein modutan, ikaslea adinez txiki bada, gurasoen edo lege-tutorearen baimena eskatuko da hautatutako aukera egiteko.

3. Bigarren ikasturtea amaitutakoan ikasgai batzuk gainditu ez dituzten ikasleak, ikasgai horietan matrikulatu ahal izango dira gainditutako ikasgaiak berriz ikasteko beharrik gabe. Ez dituzte berriz gainditu beharko gainditutako ikasgaiak, baina unibertsitatera sartzeko azterketa prestatzeko eskoletara etorri beharko dute, eta azterketak horiek egin beharko dituzte. Ikastolak azterketen emaitzen berri emango die familiei.

Unibertsitatera sartzeko azterketan sartzen ez diren ikasgaiei buruzko eskolak baino ezingo dira kendu. Ordu horietan liburutegian egon beharko dute Ikastolaren zaintzapean. Eskola-orduak direnez, ordu horietako bat goizeko lehena edo azkena bada, beranduago iritsi edo aurrerago irten ahal izango dira, betiere gurasoak ados baldin badaude.

8. KAPITULUA. TITULUAK ESKATZEKO IRIZPIDEAK

132. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitutakoan, ikasleak etapa horretako oinarritzko gaitasunak eta helburuak lortu baditu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortuko du.

. Gainera, titulu hori lortu ahal izango dute ondokoek: ikasturtea amaitu eta ikasgai bat edo bi gainditu ez dutenek, eta salbuespen moduan, hiru gainditu ez dutenek, betiere ikasgai horien eskola-orduak ez badira zortzitik gorakoak.

2. Titulua lortu ez dutenek, gainditu ez dituzten ikasgaien inguruko ez-ohizko azterketa bat egin ahal izango dute hurrengo bi urteetan, betiere ere bost ikasgai baino gehiago gainditu gabe utzi ez badituzte.

3. Curriculum aniztasun programak egiten dituzten ikasleek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortuko dute programaren arlo eta gai guztiak gainditzen badituzte. Halaber, titulu hori lortu ahal izango dute ondokoek: bi arlo gainditu ondoren, gai bat edo bi gainditu ez dutenek, eta salbuespen moduan, hiru gainditu ez dutenek, betiere ikasgai horien eskola-orduak ez badira zortzitik gorakoak.

4. Ikasleen artean berdintasun eta lehia askearen printzipioa bermatzearren, erlijioiko ikaskuntzetan lortutako kalifikazioak ez dira aintzat hartuko espediente akademikoak lehian sartu behar diren deialdietan, ezta ikasleak onartzeko batez besteko nota kalkulatzeko orduan ere, eskatzaileen artean hautaketa egiteko nota horretara jo behar izanez gero.

133. artikulua. Batxilergoko titulua.

Batxilergoko titulua lortzeko, edozein modalitatea dela-eta, ikasturte bietako ikasgai guztiak gainditu beharko dira.

IV. ATALBURUA. IKASLEEN GURASOEZ ETA LEGE-ORDEZKARIEZ

1. KAPITULUA. IKASLEEN GURASOEK ETA LEGE-ORDEZKOEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREZ

134. artikulua. Ikasleen gurasoek eta lege-ordezkoek dituzten eskubideak

Honako hauek dira ikasleen gurasoek eta tutoreek, ez bazkide izateagatik, baizik eta ikasleen ordezkari legalak direlako dituzten eskubideak:

- a) Matrikula egin baino lehen, guraso moduan edo ikaslearen lege-ordezkari moduan berariaz (eta ez bazkide moduan) dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko argibideak idatziz jasotzea.
- b) Ikaslearen gurasoak banandu edo dibortziatu badira, Ikastolari alde aurretik jakinarazita eta ikaslearen guraso-ahala agiri bidez egiaztatuz gero, seme edo alabaren edo tutoretzapekoaren inguruan bazkide den bikotekideak jasotzen duen informazio berbera jasotzea, baita jakinarazpen berberak ere, bere izenean jarrita, emaitza akademikoei, tutorearekin egin beharreko bileren deialdiei, Ikastolaren jardueri edo zerbitzuei eta Ikastolan seme-alabak egiten duen horretan eragina izan dezakeen alderdi guztiei buruzkoak.
- c) Seme-alabek legezko xedapenetan eta Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan ezarritako xedeei egokitutako ikasketak egin ahal izatea.
- d) Seme-alabek edo tutoretzapekoek Ikastolan ateratzen duten etekinaz eta duten jokabideaz argibideak edukitzea, ebaluazioen emaitzen bitartez eta dagokien tutoreak eta irakasleek eskaintzen dizkieten argibideak jaso, baita horiekiko dituzten gainontzeko komunikazio-kanalek emandakoak jaso ere.
- e) Tutoreekin eta irakasleekin harremana izatea seme-alaben heziketa osoan koordinatzeko eta laguntzeko.
- f) Seme-alaben eta tutoretzapekoen bilakaera pedagogikoan zenbait alderdi berri edo hobekuntza proposatzea.
- g) Seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntzari eta Ikastolak burutzen dituen jardueri dagokienez, egoki jotzen dituzten eskaerak edo kexak idatziz burutzea irakasleei, Zuzendaritzari edo Artezkaritza Kontseiluari, Araudi honetan jarritako bideei jarraiki.
- h) Seme-alabak edo tutoretzapekoak ikasketetan nola dabiltzan jakiteko asmoz edo ikasketak hobetu ote daitezkeen aztertzeko bilerak egitearren Ikastolako Aretoak erabiltzea.

- i) Dagozkien organoek onartuta eta Ikastolako hezkuntza jardueran oztopo izan gabe, eskolaz kanpoko ekintzak aurrera eramateko Ikastolako instalazioez baliatzea.
- j) Seme-alabaren edo tutoretzapekoaren ondoeza fisiko edo psikologikoa suertatu duen edozein istripu edo jazoeraren berri izatea, ahalik eta lasterren.
- k) Ohiko eskola-esparrutik kanpo seme-alabak edo tutoretzapekoak egingo dituen jarduera osagarrien berri idatziz jasotzea, aldezturik eta behintzat astebete lehenago: irteerak, bisitak, egonaldiak etab. Gainera, ikasturtearen hasieran eskolako edo eskolaz besteko irteera mota guztien aurreikuspenen berri izango dute, baita horietako bakoitzak izango duen kostuaren eta aurreikusitako daten berri ere.
- l) Hala eskatzen duten organoetan gurasoen ordezkariak aukeratzea eta ordezkari aukeratuak izatea.

135. artikulua. Ikasleen gurasoek eta lege-ordezkoek dituzten betebeharrak

Honako hauek dira ikasleen gurasoek eta tutoreek, ez Kooperatibako bazkide izateagatik, baizik eta ikasleen ordezkari legalak direlako, dituzten betebeharrak:

- a) Seme-alaben eta tutoretzapekoen hezkuntzari doazkien betebeharrak beren gain hartzea, eta Ikastolari horiek pertsona moduan hezten modu aktiboan laguntzea, betiere Ikastolako langileek gomendatu ahal dizkieten jarraibideak aintzat hartuz.
- b) Seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesuan parte hartzea eta horren bilakaerari laguntzea; gainera, ebaluaketaren eta promozioaren inguruko erabakiak ezagutu, eta ikasleei hezkuntzan aurrera egiten laguntzeko Ikastolak hartzen dituen laguntza edo errefortzu neurrietan lagunduko dute.
- c) Tutoreek eta ikastaldeko ordezkariak deitutako bileretara joatea, eta baita dagokien Tutoreak banaka egindako deietara ere.
- d) Seme-alabei eta tutoretzapekoei buruz beharrezkoa den informazioa ematea, tutoreak eta, beharrezkoa balitz, Orientazioko Zuzendaritzak, jarraipen eta laguntza funtzioak egiteko behar duten informazioa alegia.
- e) Seme-alabei eta tutoretzapekoei eskolarako nahiz eskolaz kanpoko jardueretarako behar dituzten materialak ematea.
- f) Seme-alabei eta tutoretzapekoei bertako material, altzari eta instalazioekiko ardura eduki behar dutela eta ordena eta garbiketa ohiturak irakastea.
- g) Seme-alabei eta tutoretzapekoei errespetua eta tolerantzia jokabidearen oinarritzko arauak direla irakastea, baita Ikastolaren baloreak, eginbidea eta ikuspegia irakastea ere.

- h) Seme-alaben eta tutoretzapekoen irakasleek agindutako lanak eta norberaren ikasketarako lanak egiten dituztela gainbegiratzea eta ikasteko ohiturak eta jakitearen aldeko jarrera izaten laguntzea.
- i) Seme-alabak eta tutoretzapekoak eskolara garbi eta egingo dituzten jarduerekin bat etorri eta Ikastolak horretarako eman dituen argibideen arabera behar bezala jantzita joan daitezen arduratzea. Gainera, ez ditu ikasleak Ikastolara bidaliko 242.3 artikulua jasotako kasuetan.
- j) Etorri ezik edo puntualtasuna gorde ezik, ohartaraztea eta idatziz justifikatzea.
- k) Bisitaldietarako tokiak eta orduak errespetatzea, debekatuta dagoelarik eskolako orduetan eta eskolaz kanpoko jardueretarako orduetan eskola-moduluetara sartzea.

Salbuespen moduan sartzeko ordutegitik kanpo sartu behar izanez gero, medikuaren kontsulta eduki duelako edo beste arrazoi justifikatu batzuegatik, Haur Hezkuntzako ikasleak Ikastolako langileren batekin joango dira gelara. Dena dela, bi urteko ikasleak lagunduta joan ahal izango dira gelara ikasturte osoan, eta hiru urtekoen kasuan, lehen hiruhilekoan ere lagunduta joan daitezke.

Eskola-ordutegia errespetatutako da beti; ezingo da argudiatu denbora gehiegi behar izan dutela Ikastolara iristeko eta aparkatzeko.

Halaber, ahalik eta gehien errespetatutako dira ordutegiak, eta ikaslearen ongizatea aintzat hartuko da (atseden hartzeko garaia, lo-kuluxka, eta halakoak) egon daitezkeen beste irizpide batzuen gainetik.

Ordutegia betetzeak, gainera, 206. artikulua 3. idatz-zatia bete behar dela ere esan nahi du.

- l) Irakasleak eta Ikastolako gainontzeko langileak errespetatzea, baita beste ikasleen gurasoak edo tutoreak eta ikasle horiek ere, Ikastolaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren bizikidetza arauak betez eta uneoro hezkuntza lanaren garrantzia baloratuz.
- m) Ikastolako esparruetarako (aparkalekuak, kirol eta kultur instalazioak, kiroldegia, ikasgelak, etab.) finkatutako bizikidetza arauak errespetatzea.
- n) Ikastolako instalazioak, azpiegitura, altzariak eta materiala errespetatzea, ondo erabiltzen eta mantentzen dutela zainduko dute eta haiek edo euren seme-alabek egindako kalteak ordaintzeko ardura gain hartuko dute.
- o) Seme-alabak zorriak, papilomak, moluskuak edo antzekoak kutsatzeko arriskua duela irakasle tutoreari jakinaraztea egoera antzematen den une berean eta, azken kasu horietan, igerilekua erabiltzen ez uztea arazoa konpondu arte. Igeriketa edo igerilekuan egiten den

beste jarduera batzuetara ez etortzeko, egoera puntuala ez bada, medikuaren ziurtagiria behar da.

- p) Ikastolako instalazioak, ekipamenduak eta azpiegiturak Araudi honek ezarritako arauekin bat etorri erabiltzea, baita Ikastolaren funtzionamendu hoberako Ikastolak berak horren inguruan ezarri eta jakinarazten dituen jarraibideekin bat etorri ere.
- q) Ikastolako taldeko organoetan ordezkari aukeratuak izan badira, onartzea eta, bereziki, gelako ordezkari izateko aukeratuak izan badira; gainera, bere funtzioak arduraz eta kargu horiek dituzten betebeharrak gain hartuz burutzea.
- r) Ikastolak jaulkitako ordainagiriak hiler ordaintzea, bai hezkuntzako kuota espezifikoari, ikasgelan erabiltzeko materialaren kostuari eta garatutako beste jarduera batzuei dagozkienak, bai ikastolak eskaintzen dituen eskolaz kanpoko zerbitzuen eta jardueren kuota, seme-alabak edo tutoretzapekoak erabiltzen dituztenak.
- s) Barne Araudi hau eta Batzar Orokorrak zein Artezkaritza Kontseiluak hartzen dituen erabaki guztiak betetzea.

136. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

1. Aurreko artikuluan adierazitako betebeharrak betetzen ez badira, ez-betetze horiek ondoko moduan sailkatuko dira:

- a) Behin edo aukera isolatu batzuetan betetzen ez bada, hutsegite arintzat joko da. Beraz, posta elektronikoz edo posta arruntak ohartaraziko zaio.
- b) Betebeharrak behin eta berriz betetzen ez badira, hau da, ikasturtean behin baino gehiagotan betetzen ez badira, hutsegite larritzat joko da eta ondoko zehapenak jasoko dira:
 - Ekipamendu, instalazio edo azpiegitura jakin batzuk erabiltzeko debekua, hutsegitea horiekin lotuta badago.
 - Ikastolaren organo sozialetan botoa emateko eskubidea galtzea.
- c) Aurreko artikuluko r) letran adierazitako betebeharren kasu espezifikoan, ikastolak telefonoz edo/eta posta elektronikoz ohartaraziko die guraso edo tutore ez-betetzailerei betebeharrak bete ditzaten eskatzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, egoera hori konpontzeko behar diren erabakiak hartzeko bilerak hitzartzea proposatuko die, premisa nagusi eta saihestezintzat hartuta.

Ikasleen eskubideak Baldin eta, gehienez ere 3 hilabeteko epean, guraso edo tutore horiek ez badiete erantzuten ikastolatik telefonoz edo/eta posta elektronikoz egindako ohartarazpenei, edo ez badira joaten ikastolak proposatutako bileretara, ikastolak beretzat gordetzen du soil-soilik irakaskuntzakoak ez diren zerbitzu osagarriak

automatikoki deuseztatzeko eskubidea, halakotzat hartuta seme-alabak erabiltzen ari diren jantoki-zerbitzua, garraio-zerbitzua eta eskolaz kanpoko jarduerak.

Era berean, ikastolak beretzat gordetzen du egoera hori ordaintzeko bidezkotzat jotzen dituen legezko ekintzak egiteko eskubidea.

2. Norbaitek artikulua aipatutako betebeharrak betetzen ez baditu, horren ondoriozko neurriak ondokoek hartu beharko dituzte:

- a) a, b, c, d, e, g, h, i, j, eta n atalak: Zuzendaritza
- b) f, k, l, m, o eta p atalak: Zuzendaritza eta Artezkaritza Kontseilua
- c) q atala: Artezkaritza Kontseilua

137. artikulua. Ikastolaren eta familien arteko komunikazioa

1. Oro har, Ikastolak familiekin posta elektronikoko bidez jarriko da harremanetan, bazkideak berak posta arruntaz egiteko eskatzen ez badu.

2. Ikasleen gurasoek edo lege-tutoreek, posta elektronikokoaren bideari dagokionez, idatzizko jakinarazpenak bakarrik euskaraz edo bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaraz) jaso nahi dituzten aukeratu ahal izango dute; informazio hori familia bakoitzari buruzko datu-basean sartuko da.

3. Paperez egiten diren jakinarazpenei dagokienez, behin-behingo, eta datu-basea eguneratu arte, bi hizkuntzetan egin ahal izango dira.

4. Gainera, gehiengoei zuzendutako jakinarazpenak edo zeharkako jakinarazpenak Ikastolaren web gunean emango dira argitara.

5. Ikastolaren web orrian iradokizunen postontzia egongo da eta, lehendabizi, Ikastolako Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio iradokizun horiek. Gainera, Artezkaritza Kontseiluari soilik eta, zehazki, horren lehendakariari edo lehendakariordeari, zuzendutako helbide elektronikoa ere jasoko da. Kasu bi horietan, horiek erabili dituzten pertsonen eta horko edukien konfidentzialtasuna bermatuko da.

6. Idatzizko jakinarazpenez gain, ikasturtean irakasleen eta tutoreen eta familien artean bertaratuz zenbait komunikazio egingo dira, gutxienez bi bilerak egingo dira familia guztiekin eta ikasle bakoitzaren jarraipenerako egokitutako jotzen diren banakako bilerak egingo dira.

7. Familiekiko bileretarako deialdietan bilera horien gai-zerrenda zein den jarriko da.

8. Tutoreek gurasoekin edo ikasleen lege-ordetzakariekin batera egiten dituzten bileretan zer hizkuntza erabili erabakitzeko orduan, ondoko irizpideak jarraituko dira:

- a) Bilerarako deialdia eta horren gai-zerrenda aukeratutako bidez bidaliko da (paperez edo posta elektronikoz) bi hizkuntzetan.

- b) Bilera hasi baino lehen, tutoreak zer hizkuntza erabiliko duen azalduko du, aldez aurretik Zuzendaritzak emandako jarraibideekin eta Araudi honek araututakoarekin bat etorritz.
- c) Irakasle tutoreen eta familien artean egiten diren bileretan hizkuntza erabiltzea:
 - c.1.) Bertaratutako guztiek euskaraz ulertzen badute: Bilera euskaraz burutuko da eta tutoreak, bilera amaitzen denean, bileran landutako gaien inguruko azalpenak eta informazioa emango dizkie ulertzeko zailtasunak dituztenei.
 - c.2.) Bertaratuko pertsonen artean ez badago argi gehiengoak euskara (gutxiago ala gehiago) ulertzen duela: Bilera euskaraz eta gazteleraz egingo da; gai-zerrendako gai bakoitzean bi hizkuntzak txandakatuko dira. Lehendabizi edukia euskaraz azalduko da eta gero gazteleraz laburtua emango da.
 - c.3.) Bilerako inork edo gehienek ez badute euskaraz ulertzen: Agurra eta sarrera, adibidez, gai-zerrenda, euskaraz egingo da, ondoren gazteleraz jarraituko da. Baina Ikastolako eremu fisikoak aipatzeko, adibidez, gela, jolastokia, jantokia... euskarazko hitzak erabiliko dira. Euskaraz amaituko da bilera.
- d) Edozein kasutan, bilerara etorritako norbaitek ezingo du bilera horren edukiari buruzko informazio argi eta ulertua jaso gabe gelditu.

138. artikulua. Ikasleen gurasoen eta lege-ordezkarien eta irakasleen, tutoreen eta Etapako zuzendarien arteko komunikazioa

1. Ikastolako Zuzendaritzak ikasturte bakoitzean egingo du ikasleen gurasoen eta lege-ordezkarien eta irakasleen, tutoreen eta Etapako zuzendarien artean egingo diren bisiten egutegia, eta egutegi horren berri emango zaie familiei ikasturtearen hasieran.
2. Ikasleen gurasoek edo lege-ordezkariak tutorearekin edo Etapako zuzendariarekin elkarriketa egitea eskatuz gero (bertaratuz edo telefono bidez), finkatutako egun eta ordutan egingo dira.
3. Tutoreak eta Etapako zuzendariak lehentasuna emango diete bai beren irakaskuntza-lanarekin eta duten funtzio hezitzailearekin zerikusirik duten kexa, proposamen, bisita eta elkarriketei, bai ikasleen diziiplina eta jokabide arazoen inguruko gaiei.
4. Familiek tutoreari edo Etapako zuzendariari edozein bisita egiteko eskea, nahikoa lehenago eta ahal izanez gero idatziz egin beharko dute, eta posta elektronikoa erabil daiteke helburu horrekin familien eta irakasleen artean komunikatzeko.
5. Tutoreak familiekin ondoko bilerak egingo ditu:
 - a) Haur Hezkuntzan, tutoreak gutxienez elkarriketa pertsonal birako deia egingo du ikasle bakoitzaren aita, ama edo lege-ordezkariarekin hitz egiteko. Gurasoek edo lege-ordezkoek egokitzen jotzen dituzten guztietan tutoreekin hitz egitea eska dezakete.

- b) Lehen Hezkuntzan, tutoreak gutxienez elkarriketa pertsonal baterako deia egingo du ikasle bakoitzaren aita, ama edo lege-ordezkariekin hitz egiteko. Gurasoek edo lege-ordezkoek egokitzen jotzen dituzten guztietan tutoreekin hitz egitea eska dezakete.
- c) DBHn eta Batxilergoan, tutoreak gutxienez elkarriketa pertsonal baterako deia egingo du ikasle bakoitzaren aita, ama edo lege-ordezkariekin hitz egiteko. Gainera, gurasoek edo lege-ordezkariek hitzordua eska dezakete ikasgai jakin batzuetako irakasleekin elkarriketa pertsonalak burutzeko, eta horiek ahalik eta lasterren egingo diete arreta.

Dena dela, tutoreak etapa guztietan elkarriketa baterako deia egin dezake egokitzen jotzen duen guztietan.

6. Ikastolak, halaber, zenbait sistema eta prozedura ezarriko ditu irakasleek, euren arduraldi osagarriarako orduetan, familiek egiten dituzten informazio eta komunikazio eskaerei modu arinean erantzun diezaieten, euskarri elektronikoz edo telefono bidez. Gainera, Lehen Hezkuntzan, ikasleen agendak erabil daitezke gurasoen eta lege-ordezkarien eta irakasleen artean komunikatzeko.

139. artikulua. Zuzendaritza Organoei bisitak egiteko araubidea

- 1. Ikastolako ezein Zuzendaritzarekin elkarriketa bat hitzartzeko, idatziz, telefonoz edo posta elektronikoz eskatu beharko da.
- 2. Ikastolako Zuzendaritzak ahalik eta lasterren esango dio eskatzaileari zein egun eta orduetan egin daitekeen elkarriketa hori.
- 3. Artezkaritza Kontseiluko kideekin bilerak edo elkarriketak egitea salbuespenekoa izango da eta modu horretan sailkatutako gai eta egoeren aurrean egingo dira; Artezkaritza Kontseiluaren posta elektronikoaren bidez eska daitezke. Ikastolaren web orrian dago helbide elektronikoko hori.

140. artikulua. Gurasoek edo tutoreek ikasleen gorabeheren eta jokabide-arazoen aurrean jarraitu beharko duten prozedura

Ikasleek edozein gorabehera edo jokabide-arazo izanez gero, eta horrek seme-alabarengan edo tutoretzapekoarengan eragina badu, familiek ondoko protokoloa jarraituko dute.

- a) Ikasleari esleitutako tutorearekin hitz egingo dute lehendabizi hori ebazten saiatzearren.
- b) Tutoreak ezin badu ebatzi, edo adierazitako konponbidearekin ados ez badaude, Etapako zuzendariarekin elkarriketa egitea eskatuko dute.
- c) Etapako zuzendariak ezin badu ebatzi edo horrek adierazitako konponbidearekin ados ez badaude, gurasoek edo lege-tutoreek Garapen Taldera, Zuzendaritza Nagusira edo proposatutako gaiaz ulertzen duen berariazko organora jo dezakete eta, beti, Artezkaritza Kontseilura jo dezakete horretarako finkatutako bideak erabiliz.

141. artikulua. Gurasoen Eskola

1. Gurasoen Eskolaren helburua da ikasleen gurasoak trebatzea eta horiei zenbait erreminta eskaintzea seme-alabak hobeto hezi eta trebatu ahal izateko; horretarako, eguneroko hezkuntzari buruzko hausnarketan eta azterketan oinarrituko dira, eta Olabide Ikastolaren zereginarekin eta ikuspegiaren eta bere printzipio eta baloreekin bat etorritik egingo dute.
2. Ikastolako ezein ikasleren amak, aitak edo legezko ordezkariak har dezake parte Gurasoen Eskolan.
3. Gurasoen Eskolaren deialdiak eta emandako edota sortutako informazioa eta dokumentazioa Ikastolaren web orrian jarriko da, familia guztiek ikusteko moduan.

2. KAPITULUA. GELAKO ORDEZKARIAK

142. artikulua. Gelako ordezkariaren funtzioak

Gelako ordezkariak ondoko funtzioak eta ardura hauek dituzte:

- a) Gelako familiek egiten dituzten interes orokorreko proposamenak eta eskaerak Zuzendaritzari bideratzea eta Zuzendaritzak egiten dituenak familiei bideratzea.
- b) Ikastolaren ardurakoak diren gaien inguruan familiekiko informazioa eta lankidetzarako bide izatea.
- c) Familiek Ikastolan parte har dezaten sustatu eta parte-hartze hori bideratzea.
- d) Ordezkarien Kontseiluan gela ordezkatzeko eta ordezkatzeko duen gelako gainontzeko familiei kontseilu horretan landutako gaien inguruan behar bezala informatzea.

143. artikulua. Gelako ordezkariaren betebeharrak

1. Gelako ordezkariak ondoko betebeharrak eta zereginak hauek dituzte:
 - a) Zuzenean tutorearengandik edo Ordezkarien Kontseiluarengandik ordezkari gisa jasotzen duten informazioa eta dokumentazioa igortzea gelako familia guztiei eraginkorragotzat jotzen duten moduan. Horretarako, Administrazioari eta IKTri behar duten laguntza eska diezaiekete, posta elektronikoa nahikoa ez bada.
 - b) Ordezkatzen duen gelan sortu diren hezkuntza alorreko gaiak (ekimenak, iradokizunak, hobekuntzak, etab.) tutoreari, eta hala balegokio, Garapen Taldeari eta antolakuntzako edo erakunde alorreko gaiak Zuzendaritza Orokorrari planteatzea ahoz edo idatziz (posta elektronikoa, oharrak, idazkiak).
 - c) Tutoreak edo Garapen Taldeak emandako erantzunak eta irtenbideak jakinaraztea ordezkatzeko duen gelari.

- d) Egoki deritzonean, klaseko bilerak deitzea, tutoreak deitzen dituen bilerez gain, eta tutoreari horren berri ematea.
 - e) Klaseko Ordezkarien Kontseiluko bileretara joatea, gelako familiek egindako eskaerak eta proposamenak bilera egin baino hamabost egun lehenago igortzea eta ordezkatzeko duen taldeari bilera horietan jasotako informazioa eta horri buruzko dokumentazioa ematea egokiago jotzen dituen bitartekoez.
2. Ikasturteko lehen bileran, tutoreak artikulua hau osoa irakurriko du gelako ordezkariak aukeratu baino lehen.

144. artikulua. Gelako ordezkarien bitartekoak

1. Gelako ordezkariak, Ikastolak emanda, ondoko baliabide hauek izango dituzte ikasturtearen hasieratik:

- a) Ordezkatzeko duten gelako ikasleen zerrenda, gurasoen eta tutoreen harremanetarako informazioarekin. Informazio hori, datu pertsonalak babesteko arloan legeriak xedatutakoaren arabera erabiliko dute.
 - b) Helbide elektronikoa, ordezkatzeko pertsona eta familiei komunikazio bidaltzeko, baita Ikastolako organoei bidaltzeko ere. Helbide hori orokorra izango da eta ez dago ordezkarien helbide elektroniko pertsonalak erabili beharrik.
 - c) Gelako ordezkarien gida.
 - d) Administrazioaren laguntza funtzioak betetzeko.
2. Salbuespen moduan, eta gelako ordezkariak aldeztatik idatziz eskatuz gero, Ikastolako instalazioak erabili daitezke ikasleen gurasoekin edo tutoreekin bilerak egiteko, betiere Garapen Taldeak finkatzen dituen baldintzekin.

145. artikulua. Gelako ordezkari karguaren izaera eta horren hautaketa

1. Gelako ordezkari kargua derrigorrezkoa da Ikastolako familia guztientzat.

Ikasleen aitek, amek eta tutoreek gelako ordezkari moduan hautatua izatea onartu beharra dute. Ondoko kasu hauetan soilik egin diezaioke uko kargu horri:

- a) Pertsona horrek edo bikotekideak aurretik aukeratua izan bada, edozein etapan eta edozein seme-alabaren gelan.
 - b) Aukeratutako pertsona edo bikotekideak aurretik Artezkaritza Kontseiluko kide izan bada.
2. Ikasturte hasieran, gelako lehen bileran, gelako ordezkariak aukeratu dira.

3. Gelako ordezkari karguak iraungo du hurrengo ikasturtean edo ikasturteetan beste ordezkari bat izendatu arte.

4. Gelako ordezkari kargua ikasturte baterako izango da, Lehen Hezkuntzan izan ezik, bi ikasturtez izango baitu kargua. Familiak hezkuntza-komunitateak inplika daitezen sustatzeko, ezingo da inor gelako ordezkari izan bi ikasturte jarraituan baino gehiagotan.

5. Pertsona boluntariorik balego, gelak onartu beharko du. Boluntariorik ez balego, gelako tutoreak zozketa egingo luke gelako familia guztien artean, bileran dauden edo ez aintzat hartu gabe.

6. Aukeratutako pertsonak kargu hori burutzeko bateragarritasunen bat balu, beste zozketa bat egingo luke, balio duen pertsona bat aukeratu arte.

7. Ordezkaria izango da aukeraketa egiten den unean bileran den familiako pertsona (aita, ama edo tutorea), eta honek izango du gelako gainerako familiekiko harremana. Bileran aita eta ama badira, haiek esango dute nor izango den gelako ordezkaria eta, inor ez badago, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote nor izango den ordezkaria Ikastolako Zuzendaritzari.

146. artikulua. Gelako ordezkarien bateraezintasunak

Ezingo dira gelako ordezkari izan ondokoak:

- a) Artezkaritza Kontseiluko kide diren bazkide kooperatibistak eta horiek ezkontide edo bikoteak.
- b) Zuzendaritzako kideak, langileak eta horien ezkontide edo bikoteak.

147. artikulua. Gelako ordezkarien funtzionamendu arauak

1. Gelako ordezkariari familiei buruzko datuak emango zaizkie haiek euren kargua buru dezaten, eta datu horiek datuak babesteari buruz indarrean dagoen esparru juridikoarekin bat etorritz erabiliko dituzte.

Bidaltzen dituen posta elektronikoan, ezingo du gainontzeko familien helbide elektronikoa eman; helbideak ezkutuko kopia batean agertu beharko dira.

2. Gelako gurasoek euren datu pertsonalak trukatu nahi badituzte (helbide elektronikoa, helbidea, jaiotze data, telefono-zenbakia), bakoitzak bere izenean egingo du, ez dute gelako ordezkariari emandako zerrenden bidez egingo.

3. Gelako ordezkariarekin komunikatzeko, Ikastolak zein familiek, Ikastolak emandako helbide elektronikoa erabiliko dute.

148. artikulua. Gelako Ordezkarien Kontseilua

1. Gelako Ordezkarien Kontseilua familiek parte-hartzeko organo nagusia da, eta haren bidez, guraso-ahal duten aiten edo amen eta ikasleen lege-tutoreen interes orokorreko kezkak, proposamenak eta eskaerak bideratuko zaizkio aldian-aldian Ikastolako organoei. Halaber, Ikastolak Kontseiluari bidaliko dio hezkuntza-alderdi garrantzitsuei eta horren kudeaketari buruzko informazioa.
 2. Gelako Ordezkarien Kontseilua, Ikastolako ordezkari guztiek osatuko dute.
 3. Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak deituta, Kontseiluak gutxienean hiru hilabete behin osoko bilkura edo etapan arabera bilkura egingo du. Azken kasu horretan, gelako ordezkariak gain, etapako bilerara Etapa bakoitzeko Garapen Taldea eta Artezkaritza Kontseiluko kide bat ere bertaratuko dira.
 4. Hiru hilean behin egiten diren bilerekin gain, ikasturtearen hasieran Osoko Bilkurarako deialdia egingo da, eta bilera horretan Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak eta Zuzendaritza Nagusiak ikasturterako aurreikuspen garrantzitsuen berri emango dute, baita gelako ordezkariak dituzten funtzioen eta arduren berri ere.
 5. Gelako ordezkari batek ezin badu bilera batera joan, Ikastolari jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren, eta, salbuespen moduan, gelako beste aita, ama edo legezko ordezkari bat joan ahal izango da bilerara.
 6. Ordezkarien Kontseiluaren ardura, proposamenak eta eskaera guztiak Zuzendaritzak beti Artezkaritza Kontseiluari helarazi beharko dizkio, eta horiek guztiak, gehien jota, hurrengo Ordezkarien Kontseiluaren bilkuran erantzun beharko dira eta, ahal bada, aurretik erantzungo dira posta elektronikoz.
- Gelako Ordezkarien Kontseiluak planteatutako gai guztiak Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren markoan aztertuko, kudeatu eta erantzungo dira, baita gainerako dokumentu estrategikoen markoan ere.
7. Gelako Ordezkarien Kontseiluaren aktak Ikastolaren web orrian jarriko dira ikasleen gurasoei eta lege-ordezkariei ikus ditzaten.
 8. Zuzendaritza Kontseiluaren bilera egin aurretik, gelako ordezkari guztiei bidaliko dizkie gainontzeko gelek erantzun behar duten galdera edo iradokizun guztiak.
 9. Ikastolaren web-orrian *Ohiko galderak* atala sartuko da. Atal horretan, geletako ordezkariak behin eta berriz proposatzen dituzten gaiak jasoko dira, eta Ikastolak horiek bidali ditzake.

IV. ATALBURUA. IKASLEEN GURASOEZ ETA LEGE-ORDEZKARIEZ

149. artikulua. Administrazio eta zerbitzu eta langileen funtzioak

1. Administrazio Zuzendaritzaren ardurapean, administrazio eta zerbitzu-erakundeak langileek Ikastolako administrazio eta zerbitzu orokorretako lanak burutuko dituzte.
2. Administrazio langileek administrazio eta komunikazio lanak zein Idazkaritzari dagozkion lanak burutuko dituzte. Zerbitzu-erakundeak langileek, berriz, garbiketa-lanak, garraio-lanak, mantentze-lanak eta beste lan batzuk burutuko dituzte.
- Horiek guztiek aginduta dituzten lanak eta Ikastolaren jardura egokirako beharrezkoak diren lanak egin beharko dituzte Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratuta.
3. Arlo bakoitzean, eta arlo bakoitzak dituen beharren arabera, arlo horretako zenbait ardura egon daitezke Zuzendaritzaren eta arlo bakoitzeko langileen arteko koordinatze eta lidergo funtzioak burutzeko.
4. Zerbitzu-erakundeak kanpoko enpresen bidez azpikontrata daitezke. Zuzendaritza Nagusiak, edo haren ordezkariak aritzeko aukeratu duenak, azpikontratatu enpresetako arduradunekin koordinatzeko ardura izango du.
5. Funtzioak ohiz burutzeko orduan, eta horren ezaugarriak aintzat hartuta, administrazio eta zerbitzu-erakundeak langileek beste hezkuntza esparru batzuetako arduradunen eskutik zenbait argibide edo eskaera jaso ditzakete. Desadostasunik balego, Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio, nola jokatu behar den esan dezala edo eta desadostasun hori ebaztearen.
6. Irakasle ez diren langileek ez dute ikasleei botikak emateko ardura, eta horri dagokionez, eskola orduetan gertatzen diren istripuen protokoloa bete beharko dute.

VI. ATALBURUA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

150. artikulua. Xedea.

Eskolaz kanpoko jarduerak ondoko helburua dute: Ikastolak ematen duen hezkuntza akademikoa kirol eta kultur jarduerekin osatzea; horrela bada, kultura eta kirola sustatuz ikasleen giza prestakuntza osoa lortu nahi da. Hori dela-eta, kirol eta kultur jarduerak Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren parte dira.

151. artikulua. Printzipioak

Eskolaz kanpoko jarduerak ondoko printzipio hauek dute oinarritzat:

- a) Kirol edo eta kultur jardueraren bat egin nahi duten ikasle guztien parte-hartzeko eskaerei erantzutea, ikasle horiek jardura horietarako zer nolako gaitasun duten aintzat hartu gabe. Jardura horiek Ikastolak erabiltzeko moduan dituen baliabideen bidez eskainiko dira.

- b) Euskara komunikatzeko hizkuntza moduan erabil dezaten sustatzea; horretarako, kirol eta kultur jarduerak guztietan hizkuntza hori erabiliko dute.

152. artikulua. Kirol eta kultur elkarteak

Urgatzi Kirol Klubak (Kirol Elkarteak) gauzatuko ditu Ikastolan egiten diren kiroleko eskolaz kanpoko jarduerak eta *Olabide Kultur Elkarteak* kultur jarduerak arduratuko da.

153. artikulua. Kirol eta kultura modalitateak eta atalak

1. *Olabide Kultur Elkarteak* ondoko Kultur atal hauek daude:
 - a) Musika-adierazpena: abesbatza, dantza, txistu, musika lengoia, musika-tresnak.
 - b) Arte-adierazpena: adierazpen dramatikoa eta ipuin-kontalariak.
 - c) Hizkuntzak: ingelesa eta euskara.
 - d) Beste batzuk: argazki-tailerra, robotika etab.
2. *Urgatzi Kirol Klubaren (Kirol Elkarteak)* ondoko kirol modalitate hauek eskaintzen ditu:
 - a) Gorputz adierazpena
 - b) Saskibaloia
 - c) Futbola
 - d) *Kirol Garapena -Kirol Anitza*
 - e) Judo
 - f) Patinajea
 - g) Eskupilota
3. Artezkaritza Kontseiluak aurreko ataletan adierazitako jarduerak edo modalitateak aldatzea eska dezake, betiere uneoroko egoeren arabera.

154. artikulua. Elkarteetako, Ataletako, ekipoetako eta taldeetako koordinatzaileen funtzioak

1. Elkarte bakoitzeko koordinatzailearen azken funtzioa, elkarteak jarduerak guztiak koordinatzea izango da. Gainera, *Kirol Elkarteak* atal edo eta taldeetako koordinatzaileorde batzuk egon daitezke.
2. Zuzendaritza Nagusiaren pean egongo dira Elkarteetako koordinatzaileak eta arduradunak.
3. Kirol eta kultur Elkarteetako Ataletako koordinatzaileek, Ataletako kirol eta jarduerak burutzeko beharrezkoak diren harremanak edukitzeko ardura dute.

Kirol eta kultur Elkartetako Ataletako koordinatzaileek ezin dute Artezkaritza Kontseiluko kide edo Olabideko langile izan.

4. Ekipo edo taldeko ordezkariak bazkide kooperatibista izan beharko dira eta ondoko funtzioa izango dute: taldearen, monitore edo entrenatzailearen eta Ataleko arduradunaren artean bitartekari izatekoa.
5. Monitorea kirol edo kultura teknikari bat da eta ekipoa edo taldea entrenatu edo eta zuzenduko du kirol edo kultura jarduera burutzen duenean.
6. Kultur jardueretan Ataleko arduradun bat eta kirol jardueretan Ekipoen delegatu bat egon behar du, eta hori ezinbesteko baldintza da jarduera horiek burutu ahal izateko; halakorik ez balego, jarduera desagertuko litzateke (Atala edo eta ekipoa).

155. artikulua. Eskolaz kanpoko jardueretan izena ematea

1. Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza irekia izango da, ikasturte bakoitzean ikusiko da jarduerak burutu ahal diren erabiltzeko moduan dituzten instalazioen, monitoreen eta izena emateko eskera kopuruaren arabera.
2. Maiatzean familiei bidaliko zaie, haiek aukeratutako komunikazio-kanalaren bidez, eskolaz kanpoko jardueren eskaintzari buruzko informazioa, prezioa eta jarduera horien egutegia barne, baita izena emateko galdeketa eta epea ere.
3. Oro har, eskolaz kanpoko jardueretan izena emateko, izena emateko galdeketa beteko da eta posta elektronikoz bidaliko da edo Idazkaritzara ekarriko da horretarako finkatu den epean.
4. Finkatutako epetik kanpo egiten diren izena emateko eskaerak, bakar-bakarrik aintzat hartuko dira jarduera horiek burutzeko lekurik badago.
5. Jarduera bat egiteko eskaerak eskaintzen diren lekuak baino gehiago badira, aurreko ikasturtean jarduera hori egin dituzten eskatzaileek izango dute lehentasuna.

Talde guztietan gutxiengo ikasle talde bat egon beharko da. Oso txikia izanez gero ezin izango da ekintza aurrera eraman.

Talderen batean ikasle kopurua txikia bada, agian, asteko eskola kopuruak murriztu daitezke.

Taldeetan adin ezberdineko ikasleak nahastu daitezke.

Eguerdiko ekintzetako ordutegiak jantokiko txanden arabera moldatu daitezke.

156. artikulua. Eskolaz kanpoko jardueretan izena ematen duten pertsonen betebeharrak

1. Kirol eta kultur jardueretan izena ematen duten pertsonak ondoko betebeharrak izango dituzte:

- a) Entrenatzera eta saioak egitera joatea.
 - b) Jarduerarekin jarraitzea eta horren dinamika ez etetea, justifikatutako arrazoirik ez badu.
 - c) Finkatutako kuotak ordaintzea.
2. Jardueran baja formalki hartuz gero, baja abenduko azken eskola-egunaren 13: 00ak baino geroago gertatzen bada, ezarritako kuota ordaindu beharko da ikasturte osoan zehar. Eskaera hori idatziz egin beharko da.
3. Taldeko ikasle kopuruaren arabera, ondo ikusiz gero, asteko eskola kopuruak murriztu daitezke.
4. Eguerdiko ekintzetako ordutegiak jantokiko txanden arabera moldatu daitezke.

157. artikulua. Eskolaz kanpoko jardueren aseguruak

- 1. Federatu gabeko kultur eta kirol jardueretan (ikastolan bertan zein kanpoan egiten direnak) istripurik gertatzen bada, Ikastolaren aseguruaren estaldura izango du.
- 2. Federazioaren lizentzia duten kirolarien istripuek, federazio bakoitzak bere aseguru-etxearekin duen aseguruaren estaldura izango dute.
- 3. Istripuak dagokion ataleko arduradunari jakinarazi beharko zaizkio ahalik eta lasterren, eta horrek zer urrats eman behar diren adieraziko du.

158. artikulua. Kirol eta kultur instalazioak erabiltzea

- 1. Ikastolakoak ez diren pertsonak debekatuta dute kirol eta kultur instalazioak erabiltzea, kirol eta kultur elkarteak ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren pertsonak izan ezik. Erabiltzeko beste edozein egoeratan, Zuzendaritza Nagusiaren baimen idatzita beharko da.
- 2. Ikastolako kirol eta kultur instalazioak eskola-orduetatik kanpo erabil daitezke, asteburuetan eta jai-egunetan, Araudi honetan finkatutakoarekin bat etorritik.
- 3. Ikastolako kirol instalazioak eskola-orduetatik kanpo erabiltzeko baimena izango dute *Olabide Kirol Elkarteak* eta *Kultur Elkarteak*, eta elkarte horiek helburuetarako egokitzat jotzen dituzten jarduerak antolatuko dituzte eta instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko ordutegiak modu koordinatuan banatuko dituzte.
- 4. Bazkide kooperatibistek edo euren seme-alabek kirol eta kultur instalazioak edo zerbitzuak erabili nahi badituzte, Zuzendaritza Nagusiari idatziz eskaera egin beharko diote beharrezkoa den denborarekin. Honek eskaera onartzea edo errefusatzera erabakiko du, kirol edo kultur

Elkarteko arduradunari galdetu ondoren, eta erabakia arrazoituko du. Gainera, erabiltzeko baldintza partikularrak zein diren adieraziko du.

Artezkaritza Kontseiluan finkatuko du zein izango diren ikasturterako instalazioak eskola-orduetatik kanpo bazkideek erabiltzeagatiko kuotak, ur, argi, etab.en kostuak ordaintzearen.

5. Eskola-orduetatik kanpo instalazioak erabiltzen diren bitartean, ezingo ditu instalazio horiek programatutako kirol edo kultur jardueretatik kanpoko pertsonarik erabili eta Ikastolako esparru osoa itxita egongo da.

6. Kasu guztietan, kooperatibistek kirol eta kultur instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen badituzte, ondoko baldintza eta arau orokor hauek bete beharko dituzte:

- a) Finkatutako kuota aldeztu aurretik ordaintzea.
- b) Instalazioak erabiltzeko azken ordua 22:00ak izango dira, eta ordu horretan argi-hornidura moztuko da; ordu horretatik aurrera ezingo da inor instalazioetan gelditu.
- c) Instalazioak erabiltzeko azken ordu horretatik aurrera, Ikastolak ez du ardurarik izango baimendu ez den erabileraren ondorioz gertatzen denaren gainean.
- d) Ezin da erre edo alkohol-edaririk hartu.

7. Elkarte bakoitzeko arduradunak izango du instalazioetan jarduera burutu ahal izateko instalazio horiek erabiltzeko baldintza egokietan izateko ardura, ur, argi etab.eko horniduren adura eta gerta daitezkeen jazoerak kudeatzeko ardura.

VII. ATALBURUA. URGATZI KIROL KLUBA

I. KAPITULUA. GOBERNUA, ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

159. artikulua. *Urgatzi Kirol Kluba kirol taldea*

1. *Urgatzi Kirol Kluba* da *Olabide Ikastolaren* barruan sortutako nortasun juridikorik gabeko entitate bat eta ondoko helburua du: federazioetako eta eskoletako kirol jardueretan bere taldeei parte haratzeko aukera ematea, eta jarduera horiek antolatzea.

2. Federazioetako lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko, Kirol Elkarte hau dagozkion Kirol Federazioen kide izango da eta eskoletako kirol jardueretan parte har dezake.

3. *Urgatzi Kirol kluba*, kirol klub eta taldeen arloan indarrean diren arauen eta Araudi honek xedatutakoaren pean egongo da.

4. Olabide Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak erabaki behar du *Urgatzi Kirol Kluba* desegin eta likidatzea, Kirol Elkartearen Batzordeak aldeztu aurretik txostena emanda. Gainera, horren berri eman beharko dio Batzar Nagusiari.

160. artikulua. Gobernua, ordezkaritza eta kudeaketa.

1. *Olabide Ikastola Kooperatiba Elkarteko* Artezkaritza Kontseilua izango da Urgatzi Kirol Klubaren gobernu-organoa.

2. Kirol Batzordea izango da *Urgatzi Kirol Klubaren* eta horren Atalak ordezkatzeko eta kudeatzeko organoa. Kirol Batzorde hori hurrengo artikuluan arautuko da eta honako funtzio hauek izango ditu: *Urgatzi Kirol Klubaren* eta kirol modalitate edo atalen administrazio-, ekonomia- eta kirol-kudeaketa, betiere Artezkaritza Kontseiluak gainbegiratuta.

161. artikulua. Kirol Elkartea

1. Bederatzi kidek osatzen dute *Kirol Elkartea*:

- a) Artezkaritza Kontseiluko hiru kide; kide horietako batek Batzordeko lehendakaritza lanak burutuko ditu.
- b) Kirol Ataletako hiru ordezkari.
- c) Olabide Ikastolako Zuzendaritzako kide bat (hitz egin dezake baina ezin du botorik eman).
- d) Heziketa Fisiko Saileko kide bat (hitz egin dezake baina ezin du botorik eman).
- a) Kirol koordinatzaile orokorra (hitz egin dezake baina ez du botoa emateko eskubidea), Batzordeko idazkari lanak egingo ditu.

2. Artezkaritza Kontseiluak, Kirol Atalek proposatuta, Kirol Atal bakoitzeko ordezkari edo kideak izendatuko ditu. Kirol Atalek horiek aukeratuko dituzte jarduera bakoitzeko taldeen ordezkarien artean. Bi urtetarako izendatuko dira, baina behintzat urtean behin horietako bat aldatuko dute.

3. *Kirol Elkartearen* Batzordearen agintaldia behin betikoa izango da, Artezkaritza Kontseiluak amaitutzat ematea erabakitzen duen arte. Artezkaritza Kontseiluak berak eta Kooperatibaren Batzar Nagusiak xedatutakoaren menpe egongo da.

4. Batzordea gutxienez ikasturtean hiruhilekoan behin bilduko da.

5. Batzordea behar bezala osatu dela ulertuko da kideen erdiak gehi bat joanez gero. Akten Liburuan zer erabaki hartu dituzten adierazi beharko dute. Artezkaritza Kontseiluko kide batek eta idazkariak sinatuko dituzte aktak, eta Artezkaritza Kontseilura bidaliko dira.

6. Batzordeak kirol modalitateetako atal bakoitzari buruz galdetuko dio gai edo alderdiren bat hari eraginez gero.

II. KAPITULUA: EKONOMIA ETA AGIRI ARAUBIDEA

162. artikulua. Diru-sarrerak

Kirol Elkartek lortzen dituen diru-sarrera guztiak, Ikastolatik jasotakoak zein bere jardueraren ondoriozkoak, kirol-jardueretan lortutako etekinak eta sariak barne, baita tabernan lortutakoak ere, elkartearen kirol-jarduerak bultzatzeko erabiliko dira, oso-osorik. Inondik ere ezin izango dira etekinak banatu kideen artean.

163. artikulua. Kooperatibarekiko mendetasuna.

1. Urteko aurrekontuak eta ekitaldiaren emaitzak Artezkaritza Kontseiluari helaraziko zaizkio, hark onetsi ditzan; halaber, Olabide Ikastolako urteko aurrekontuetan eta emaitza ekonomikoetan jaso beharko dira, Batzar Nagusiak onestearren.

2. *Urgatzi Kirol Klubak* ezin izango du ondasun higiezinik kargatu edo besterendu, ezin izango du dirurik hartu mailegatuta, eta halaber, ezin izango du ondasunaren zati alikuota bati edo zor bati dagokion titulu igorgarririk jaulki; horri guztiari dagokionez, Ikastolak ezarritako arauen menpe egongo da.

164. artikulua. Agirien araubidea

1. *Urgatzi Kirol Klubak* gutxienez ondoko liburu hauek egin eta eguneratuko ditu:

- a) Akten Liburuak.
- b) Kontabilitateko Liburuak.
- c) Kirolariak, teknikariak, monitore eta entrenatzaileak eta beste estamentu batzuk Erregistratzeko Liburuak.

2. Administrazioko Arloak du Kirol taldearen agirien kudeaketaren ardura.

III. KAPITULUA. ELKARTEKIDEEEN ARAUBIDEA

165. artikulua. Urgatzi Kirol Klubeko kideak. 1. *Urgatzi Kirol Klubeko* kide izango dira, Olabide Ikastolako Kooperatibaren bazkide diren aitak, amak edo lege-ordezkarriak, betiere edozein hezkuntzako etapan dagoen eta kirol jardueraren bat egiten duen seme-alabarik badute.

2. *Urgatzi Kirol Klubeko* kide izan daitezke ikasle ez diren kirolariak, teknikariak eta gurasoak edo adin txikiko seme-alaben lege jagoletza duten pertsonak, betiere Kirol Elkartearekin kirol jardueraren batean aritu edo horietakoren bat bultzatu nahi badute.

166. artikulua. Kideen eskubideak eta betebeharrak

1. *Urgatzi Kirol Klubeko* kide guztiek, Ikastolako bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

2. 165,2 artikuluan aipatutako pertsonak, honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) *Urgatzi Kirol Klubeko* helburuak lortzeko parte hartzea.

- b) Elkartean baja ematea ikasturtearen amaieran, inolako eperik gabe eta askatasun osoz.
 - c) *Urgatzi Kirol Klubak* egiten dituen jardueren berri izatea eta, Batzordeak aldeztutako aurretik hala onartuta, elkartearen beraren agiriak aztertzea.
 - d) *Urgatzi Kirol Klubean* beren iritzia, askatasun osoz, ematea.
3. Kirol jardueraren inguruan egiten diren irteeren kostuak, 228.3 artikulua araututakoaren arabera egotziko dira.

IV. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

167. artikulua. Diziplina ahalmena

Olabide Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak du, Kirol Atal guztietan, *Urgatzi Kirol Klubeko* kideak (162.2 artikuluan jasota daude) zehatzeko eskumena, betiere Olabide Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak proposatuta.

168. artikulua. Diziplina araubidea

1. Bazkideek zigorra jaso dezakete Kooperatibaren Estatutuetan edo Barne Araudi honetan aldeztutako aurretik finkatutako hutsegiteengatik.
2. Kirol jardueretako parte-hartzaileen eskubideak edo betebeharrak betetzen ez badira parte-hartzaile horiek kirol jardura horiek burutzen dituztenean, III. Atalburuko III. Kapituluan xedatutakoa aplikatuko da.

169. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

Estatutuetan eta Barne Araudi honetako III. Atalburuko III. Kapituluan finkatutakoaz gain, ondokoak ere hutsegiteak dira:

1. Jokabide desagokiak
 - a) Taldeko arduradunaren ustez, jokoarekin zerikusirik ez duten ekintza zigorgarriak.
 - b) Entrenamenduetara berandu heltzea justifikaziorik gabe.
 - c) Taldeko entrenatzaileari entrenamendura ezingo duela joan ez ohartaraztea.
 - d) Interes edo diziplina eza behin eta berriz adieraztea.
 - e) Biraoak eta hitz itsusiak erabiltzea.
 - f) Asmo txarrik gabe Ikastolaren materialean edo instalazioetan, edo beste instalazio batzuetan zein beste kirol-elkarte batekoetan kalteak sortzea.

- g) Asmo txarrik gabe *Urgatzi Kirol Klubeko*, Kooperatibako edo beste Kirol Talde bateko beste kide batzuen gauzetan kalteak sortzea.

2. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

- a) Zelaian kirolaz kanpoko ekintzak egin direlako zuzenean kanporatzea (adibidez: txartel gorria ateratzea) eta diziiplina-batzordeen behin betiko erabakiak.
- b) Asmo txarrarekin *Urgatzi Kirol Klubeko*, *Ikastolako* edo beste instalazio edo Kirol Talde bateko materiala edo instalazioak apurtzea edo horietan kalteak sortzea.
- c) *Urgatzi Kirol Klubeko*, *Ikastolako* edo beste Kirol Talde bateko beste kide batzuen gauzak nahita apurtzea edo kalteak sortzea.
- d) Monitore eta ordezkarien, aurkarien, epaileen, ikusleen eta *Urgatzi Kirol Klubeko* gainerako langileen duintasunari erasotzen dion edozein jarrera lotsagabe.
- e) Entrenatzaileak batere errurik eduki gabe, legez kanpo zerrendatzea.
- f) Ez jakinaraztea entrenatzaileari edo ordezkariari partidu edo lehiaketaren batera ez dela joango.
- g) Ez joatea entrenamendu eta lehiaketetara, baldin eta justifikaziorik ez badago. Lesioak edo gaixotasuna baino ez dira hartuko justifikaziotzat.
- h) Proba, lehiaketa eta gainerakoak arrazoirik gabe uztea, baldin eta taldeko entrenatzaile, arduradun edo ordezkariak halaxe egiteko agindu ez badu.

3. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak

- a) *Urgatzi Kirol Klubak* ezarritako zigorrak ez betetzea edo haustea.
- b) Eraso egitea taldekideei, monitoreei, *Urgatzi Kirol Klubeko* kideei, aurkariei, epaileei, ikusleei edo partiduan zein lehiaketan parte hartzen duten taldeetako ordezkari.

1.e), 2.b) eta c) eta 3.b) atalak ere bazkideei aplikatuko zaizkie (ikasle kirolarien aitak, amak edo lege-tutoreak).

170. artikulua. Jokabide desegokiak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Dagokion monitoreak edo entrenatzaileak zuzenduko du jokabide desegokia, eta ez da beharrezkoa idatziz izapidetzea. Monitoreak edo entrenatzaileak fitxa batean egindako jokabide desegokia erregistratu beharko du, baita zein egunetan egin den eta zein zigor ezarri duen ere.

- b) Neurri zuzentzaileak kirol jarduerarekin izan beharko du lotura. Hutsegina duena ez da inoiz kirol jardueratik baztertuko.
- c) Jokabide desegokia egin duela eta adostutako neurri zuzentzailea zein izan den jakinarazi behar zaie beti gurasoei edo lege-ordezkariei.

171. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Ezarritako neurri-zuzentzaileak zerikusia izan beharko luke kirol-jarduerekin.
- b) *Urgatzi Kirol Klubeko* koordinatzaileari, tutoreari eta familiari idatziz jakinaraziko zaie prozedura horri hasiera eman zaiola eta espedientearen jarraipenaren berri emango zaie.
- c) *Urgatzi Kirol Klubeko* koordinatzaileak erabakiko du zer neurri zuzentzaile jarri, betiere ere zuzendaritzaren oniritziarekin.

172. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

Ikastolako ikasleen kasuan, III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedurari jarraituko zaio.

Taldearekin bat egin duten pertsonen kasuan, Artezkaritza Kontseiluak, Kirol Elkartearen proposamenaren ondorioz, erabakitzen duena aplikatuko da.

VIII. ATALBURUA. KULTUR ELKARTEA

I. KAPITULUA. GOBERNUA, ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

173. artikulua. Kultur Elkartearen gobernu-a, ordezkaritza eta kudeaketa

1. *Olabide Ikastola Kooperatiba Elkarteko* Artezkaritza Kontseilua izango da Kultur Elkartearen gobernu-organoa.
2. Kultur Batzordea izango da *Kultur Elkartearen* eta horren Atalak ordezkatzeko eta kudeatzeko organoa. Kultur Batzorde hori hurrengo artikuluan arautuko da eta honako funtzio hauek izango ditu: *Kultur Elkartearen* eta kultur modalitate edo atalen administrazio-, ekonomia- eta kultura-kudeaketa, betiere Artezkaritza Kontseiluak gainbegiratuta.
3. Olabide Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak erabaki behar du *Kultur Elkartea* desegin eta likidatzea, Taldearen Kultur Batzordeak aldeztu aurretik txostena emanda. Gainera, horren berri eman beharko dio Batzar Nagusiari.

174. artikulua. Kirol Elkartea

1. Ondoko kideek osatuko dute *Kultur Elkartearen* Batzordea:

- a) Artezkaritza Kontseiluko hiru kide; kide horietako batek Batzordeko lehendakari lanak burutuko ditu.
 - b) Kultur Ataletako hiru ordezkari gehien jota.
 - c) Olabide Ikastolako Zuzendaritzako kide bat (hitz egin dezake baina ezin du botorik eman).
 - d) Kultura koordinatzaile orokorra (hitz egin dezake baina ez du botoa emateko eskubidea), Batzordeko idazkari lanak egingo ditu.
2. Artezkaritza Kontseiluak, Kultura Atalek proposatuta, Kultura Atal bakoitzaren ordezkariak eta kideak izendatuko ditu.
3. *Kultur Elkartearen* Batzordearen agintaldia behin betikoa izango da, Artezkaritza Kontseiluak amaitutzat ematea erabakitzen duen arte. Artezkaritza Kontseiluak berak eta Kooperatibaren Batzar Nagusiak xedatutakoaren menpe egongo da.
4. *Kultur Elkartearen* Batzordea, Kooperatibaren Artezkaritza Kontseiluak eta Batzar Nagusiak xedatutakoaren menpe egongo da eta behintzat ikasturtean hiruhilabetekoan behin bilduko da.
5. *Kultur Elkartearen* Batzordea behar bezala osatu dela ulertuko da kideen erdiak gehi bat joanez gero. Akten Liburuan zer erabaki hartu dituzten adierazi beharko dute. Artezkaritza Kontseiluko kide batek eta idazkariak sinatuko dituzte aktak, eta Artezkaritza Kontseilura bidaliko dira.
6. *Kultur Elkartearen* Batzordeak kultura modalitateetako atal bakoitzari galdetuko dio gai edo alderdiren bat hari eraginez gero.

II. KAPITULUA: EKONOMIA ETA AGIRI ARAUBIDEA

175. artikulua. Diru-sarrerak

Kultur Elkartek lortzen dituen diru-sarrera guztiak, Ikastolatik jasotakoak zein bere jardueraren ondoriozkoak, kultura adierazpenetan lortutako etekinak eta sariak barne, elkartearen kultura jarduerak bultzatzeko erabiliko dira, oso-osorik. Inondik ere ezin izango dira etekinak banatu kideen artean.

176. artikulua. Kooperatibarekiko mendetasuna.

- 1. Urteko aurrekontuak eta ekitaldiaren emaitzak Artezkaritza Kontseiluari helaraziko zaizkio, hark onetsi ditzan; halaber, Olabide Ikastolako urteko aurrekontuetan eta emaitza ekonomikoetan jaso beharko dira, Batzar Nagusiak onestearren.
- 2. *Kultur Elkartek* ezin izango du ondasun higiezinik kargatu edo besterendu, ezin izango du dirurik hartu mailegatuta, eta halaber, ezin izango du ondasunaren zati alikuota bati edo zor bati

dagokion titulu igorgarririk jaulki; horri guztiari dagokionez, Ikastolak ezarritako arauen menpe egongo da.

177. artikulua. Agirien araubidea

1. *Kultur Elkartek* gutxienez ondoko liburu hauek egin eta eguneratuko ditu:

- a) Akten Liburuak.
- b) Kontabilitateko Liburuak.
- c) Kideak, teknikariak eta beste estamentu batzuk Erregistratzeko Liburuak.

2. Administrazioko Arloak du *Kultur Elkartearen* agirien kudeaketaren ardura.

III. KAPITULUA. ELKARTEKIDEEEN ARAUBIDEA

178. artikulua. *Kultur Elkarteko* kideak.

1. *Kultur Elkartearen* kide izango dira, Olabide Ikastolako Kooperatibaren bazkide diren aita, ama edo lege-ordezkariek, betiere edozein hezkuntzako etapan dagoen eta kultur jardueraren bat egiten duen seme-alabarik badute.

2. *Kultur Elkarteko* kide izan daitezke ikasle ez diren teknikariak eta gurasoak edo adin txikiko seme-alaben lege jagoletza duten pertsonak, betiere *Kultur Elkartearekin* kultur jardueraren batean aritu edo horietakoren bat bultzatu nahi badute.

179. artikulua. Kideen eskubideak eta betebeharrak

1. *Kultur Elkarteko* kide guztiek, Ikastolako bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

2. 178.2 artikuluan aipatutako pertsonen, honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) *Kultur Elkartearen* helburuak lortzearen parte hartzea.
- b) Elkartean baja ematea ikasturtearen amaieran, inolako eperik gabe eta askatasun osoz.
- c) *Kultur Elkartek* egiten dituen jardueren berri izatea eta, *Kultur Elkartearen* Batzordeak aldeztutako baldintza onartuta, elkartearen beraren agiriak aztertzea.
- d) *Kultur Elkartean* beren iritzia, askatasun osoz, ematea.

3. Kirol jardueraren inguruan egiten diren irteeren kostuak, 231.3 artikulua araututakoaren arabera egotziko dira.

IV. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

180. artikulua. Diziplina ahalmena

Olabide Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak du, Kultur Atal guztietan, elkartekideak (178,2 artikuluan jasota daude) zehatzeko eskumena, betiere *Kultur Elkarteko* Kultur Batzordeak proposatuta.

181. artikulua. Diziplina araubidea

1. Bazkideek zigorra jaso dezakete Kooperatibaren Estatutuetan edo Barne Araudi honetan aldeztututik finkatutako hutsegiteengatik.

2. Kultur jardueretako parte-hartzaileen eskubideak edo betebeharrak betetzen ez badira parte-hartzaile horiek kultur jardura horiek burutzen dituztenean, III. Atalburuko III. Kapituluan xedatutakoa aplikatuko da.

182. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

Estatutuetan eta Barne Araudi honetako III. Atalburuko III. Kapituluan finkatutakoaz gain, ondokoak ere hutsegiteak dira:

1. Jokabide desegokiak:

- a) Saiotara berandu heltzea justifikaziorik gabe.
- b) Biraoak eta hitz itsusiak erabiltzea.
- c) Interes edo diziplina eza behin eta berriz adieraztea.
- d) Asmo txarrik gabe Ikastolaren material edo instalazioetan, beste instalazio edo Kultur Elkarteko batzuenetan edo *Kultur Elkarteko*, Ikastolako edo beste Kultur Elkarteko batzuetako beste kide batzuegan kalteak sortzea.
- e) Taldeko arduradunari saiotara joango ez dela ez ohartaraztea.

2. Bizikidetzaren kontrako jokabideak

- a) Asmo txarrarekin *Kultur Elkartean*, Ikastolaren edo beste instalazio edo Kultur Elkarteko batzuen materiala edo instalazioak apurtzea edo horietan kalteak sortzea eta *Kultur Elkarteko*, Ikastolako edo beste Kultur elkarteko batzuetako kideei kalteak sortzea.
- b) Monitore eta ordezkarien, ikusleen eta *Kultur Elkarteko* gainerako langileen duintasunari erasotzen dion edozein jarrera lotsagabe.

- c) Ez jakinaraztea taldeko arduradunari edo ordezkariari ekitaldi edo lehiaketaren batera ez dela joango.
- d) Ez joatea kontzertu, lehiaketa edo beste antzezpen batzuetara, baldin eta justifikaziorik ez badago. Lesioak edo gaixotasuna baino ez dira hartuko justifikaziotzat.
- e) Saioak, topaketak edo lehiaketak arrazoirik gabe uztea, baldin eta taldeko arduradunak edo ordezkariak halaxe egiteko agindu ez badu.

3. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak

- a) *Kultur Elkartearen* Batzordeak ezarritako zigorak ez betetzea edo haustea.
- b) Eraso egitea taldekideei, taldeko arduradunei, *Kultur Elkarteko* kideei, ikusleei edo ekitaldian edo zein lehiaketan parte hartzen duten taldeetako edo elkarteetako ordezkari.

2.b) eta c) eta 3.b) atalak ere bazkideei aplikatuko zaizkie (ikasleen aita, ama edo legetutoreak).

183. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Dagokion monitoreek edo arduradunek zuzenduko dituzte jokabide desagokiak, eta ez da beharrezkoa idatziz izapidetzea. Monitoreak edo arduradunak, alegia, fitxa batean egindako jokabide desagokia erregistratu beharko du, baita zein egunetan egin den eta zein zigor ezarri duen ere.
- b) Neurri zuzentzaileak kultur jarduerarekin izan beharko du lotura. Hutsegina duena ez da inoiz kultur jardueratik baztertuko.
- c) Jokabide desagokia egin duela eta adostutako neurri zuzentzailea zein izan den jakinarazi behar zaie beti gurasoei edo lege-ordezkariei.

184. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Ezarritako neurri-zuzentzaileak zerikusia izan beharko luke kultur jarduerekin.
- b) *Kultur Elkarteko* koordinatzaileari, tutoreari eta familiari idatziz jakinaraziko zaie prozedura horri hasiera eman zaiola eta espedientearen jarraipenaren berri emango zaie.
- c) *Kultur Elkarteko* koordinatzaileak erabakiko du zer neurri zuzentzaile jarri, betiere ere zuzendaritzaren oniritziarekin.

185. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

1. Ikastolako ikasleen kasuan, III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedurari jarraituko zaio.
2. Elkartearekin bat egin duten pertsonen kasuan, Artezkaritza Kontseiluak, *Kultur Elkarteko* Batzordearen proposamenaren ondorioz, erabakitzen duena aplikatuko da.

IX. ATALBURUA. JANTOKI-ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA ARAUAK

186. artikulua. Jantoki-zerbitzuaren xedea eta irismena

1. Jantokia gune hezitzailea da, eta beharrezkoa den elikadura funtzioaz gain, hezteko proiektzioa ere du, beraz, jantokiak erabiltzen dutenen artean ohitura osasungarriak eta hezgarriak sortzea izango du lehentasunezko helburutzat.
2. Jantokiko ordua eskola ordua da, ondorio guztietarako.
3. Bazkaldu aurretik eta ondoren astialdia hobeto erabil dezaten sustatuko da, eskolaz kanpoko jarduera batzuk eskaintzeaz gain, jarduera osagarri batzuen eskaintza egokia ere eginez. Monitoreek kontrolatuko dituzte uneoro jarduera horiek eta ikasleen artean jarduera sustatzeko orduan jarrera proaktiboa izango dute.
4. Erabiltzaileen eskaria ezagutu ondoren, jantokiko arduradunari dagokio jantoki-zerbitzua planifikatzea; horrez gain, Etapàko Zuzendaritzekin koordinatuta, jarduera osagarriak planifikatzeko ardura ere badu.

187. artikulua. Jantoki-zerbitzuan izena ematea.

1. Ikasturtea hasi baino lehen familiek jantoki-zerbitzuari buruzko informazio osoa jasoko dute, jarduera osagarriei buruzkoa barne; horrela bada, finkatutako epean, izena eman beharko dute eta zer erabilera modalitate eta maiztasun nahi duten eta zein jarduera osagarri aukeratuko dituzten adieraziko dute.
2. Hona hemen erabiltzeko modalitateak:
 - a) Asteko eskola-egun guztiak, astelehenetik ostiralera.
 - b) Astean lau egun
 - c) Astean hiru egun
 - d) Astean bi egun
 - e) Astean egun bat.

3. “Asteko egun bakarreko” modalitatea bakar-bakarrik aplikatuko da noizean behin zerbitzua erabiltzen dituztenen kasuetan. Ez da modalitate hori aintzat hartuta hilabetea hasita dagoela izena eman ez gero eta zerbitzua jarraian erabiliz gero; kasu horretan, erabilera-modalitatearen arabera dagokion tarifa aplikatuko da zerbitzua zenbait egun erabili dituen kontuan hartuta.
4. Goizez bakarrik eskola duten aldiak, iraila eta ekaina, gainontzeko hilabeteak bezala hartuko dira.
5. Zerbitzuaren zenbatekoka ez da itzuliko, ondokoan izan ezik: erabiltzaileak ezinbesteko kausagatik baja eman badu berriz aurkakoa adierazi arte.

188. artikulua. Jantoki-zerbitzuko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

1. Ikasleek jantoki-zerbitzua behar duten guztietan erabiltzeko eskubidea dute aurrez zerbitzuko ardura duen koordinatzaileari (egun bat lehenago) hala egingo dutela jakinarazi badiote. Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan, halaber, gurasoek edo legezko tutoreak tutoreari ere jakinarazi beharko diote.

2. Jantoki-zerbitzuko erabiltzaileek ondoko eskubideak dituzte:

- a) Dagozkien erreklamazioak eta iradokizunak egitea, eurek zuzenean edo legezko ordezkarien bidez, jantokia koordinatzen duen langileari edo monitoreen arduradunari.
- b) Atsedendian, bazkaldu aurretik eta ondoren, zer jarduera osagarri egin nahi dituzten aukeratzea, betiere antolakuntza aldetik dauden aukeren barruan.
- c) Menuei, programatutako jarduera osagarriari eta zerbitzuaren inguruko beste alderdiei batzuei buruzko informazioa jasotzea aldiro-aldiro.
- d) Dagokion protokoloari eta, zehazki, 244. artikuluan xedatutakoari jarraiki, dieta bereziak eskatzea. Salbuespen moduan, ondoeza izanez gero, dieta biguna eskatzea. Horretarako, egun horretako 10:00ak baino lehen ohartarazi behar da.
- e) Euren gurasoei edo lege-tutoreei portaerari, arauak betetzeari eta elikagai-moten onarpen mailari buruzko informazioa helarazi diezaieten.

3. Jantoki-zerbitzuko erabiltzaileek ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Jantoki-zerbitzuko arauak errespetatzea eta betetzea.
- b) Uneoro, errespetua eta lankidetzan aritzeko jarrera erakustea gainerako erabiltzaileei, monitoreei, sukaldeko langileei eta Olabideko gainerako langileei.
- c) Zuzen eta egoki erabiltzea Ikastolak eskaintzen dituen instalazioak, altzariak eta tresnak.

- d) Norberari egokitutako jantoki txanda eta programatutako jarduerak errespetatzea.
- e) Zerbitzuko koordinatzaile eta arduradunari, eta Haur edo Lehen Hezkuntzan tutoreari, aurreko egunean —eta salbuespen kasuetan, egun horretako 10:00ak baino lehen— jakinaraztea txandarekin edo eta jarduera osagarriekin edo menuarekin zein erabiltzailearen osasun egoerarekin lotura duen edozein aldaketa puntual edo egoeraren arabera aldaketa.
- f) Medikuen ziurtagiri baten bidez zerbitzuko koordinatzaile eta arduradunari menua aldatzeko beharra duela egiaztatzea.
- g) Eskaintako jardura osagarrien artean aukeratutako horiek burutzea.

189. artikulua. Jantoki-zerbitzuari buruzko informazioa eta familiekiko komunikazioa

1. Ikasleen gurasoek eta lege-tutoreek arduradunekin hitz egin ahal izango dute hara joanez, telefono bidez edo posta elektronikoaren bitartez. 2. Ikastolaren web orrian arduradunei, telefono-zenbakiei eta helbide elektronikoari buruzko informazio osoa jarriko da, baita hiru hilean behingo menuei buruzko informazioa, menu horiek aldatzeko oharrak eta zerbitzuarekin lotutako edozein jazoera edo gai ere.

3. Ikasturtea hasi aurretik, ikasleen gurasoek eta lege-tutoreek jantoki-zerbitzuari buruzko informazioa jasoko dute: txandak, ordutegiak, eguneko eta erabilera motaren arabera kostua, arauak eta jardura osagarriak (etapen eta hezkuntza zikloen arabera).

4. Familiek jantokiko ebaluazioaren inguruko txostena jasoko dute, elikatzeko ohiturei eta jokabideei buruzkoa, haiek aukeratutako moduan (paperez edo posta elektronikoz) eta ondoko maiztasunarekin:

- a) Haur Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleen familiek egunero jasoko dute buletin hori.
 - b) Haur Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen familiek astero (ostiraletan) jasoko dute buletin hori.
 - c) Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleen familiek hiruhileko bakoitza amaitutakoan jasoko dute buletina.
 - d) Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen familiek hiruhileko bakoitza amaitutakoan jasoko dute buletina.
6. Jazoeraren bat gertatuz gero edo ebaluazioa txarra baldin bada alderdiren baten inguruan, ez da hurrengo hiruhilekoaren buletinera itxarongo, familiei horren berri emango zaie ahalik eta lasterren.
7. Familiek jantokiko arduradunekin biltzea eska dezakete.

8. Ikasturtearen hasieran, jantokiko arduradunek informazio-bilerarako deialdia luzatuko diete familia erabiltzaileei.

190. artikulua. Jantokian bete beharreko arauak.

1. Erabiltzaileak ordenan, poliki eta oihurik gabe sartu eta aterako dira.
2. Jantokian euskara erabiliko dute, bai erabiltzaileek euren artean, bai erabiltzaileek eta monitoreekin eta gainontzeko langileekin hitz egiten dutenean, betiere aintzat hartuz Haur Hezkuntzako ikasleek dituzten berezitasunak eta duten jakite-maila.
3. Bazkaldu aurretik eta bazkaldu ondoren eskuak garbitu behar dituzte erabiltzaileek eta, gainera, bazkaldu ondoren hortzak ere garbituko dituzte. Horretarako, erabiltzaile guztiek eduki beharko dute jantokian beren nezeserra, eta hor izango dira hortzetako eskuila eta pasta.
4. Erabiltzaileek monitorean oharrei jaramon egin beharko dizkiete.
5. Mahaian egoki jokatu dute, behar bezala eseri eta jango dute, mahai-trenak egoki erabiliko dituzte eta gainoneko jankideak errespetatuko dituzte.
6. Bazkaldu ondoren, erabiltzaileek eserita itxaron beharko dute, monitorea esan arte; orduan, aukeratutako jarduera egin behar den tokira joan beharko dute, ezingo dira jantokian geratu.
7. Monitoreek erabiltzaileen artean txandaka “mahaiko arduradun” bat izendatuko dute eta horrek ondoko ardurak izango ditu:
 - a) Mahaikideei ogia eta ura eramatea, beharrezkoa denean.
 - b) Jantoki-zerbitzuaren jarraipena egiteko bileretara joatea eta bilera horietan hartzen diren erabakiak zabaltzea eta horien jarraipena egitea.
8. Bazkaltzeko orduan “mahaiko arduraduna” baino ezingo da mahaitik altxatu, ezinbesteko arrazoirik ez badago.
9. Haur Hezkuntzako erabiltzaileek amantala bat erabiliko dute, ezingo da beste helburu batzuetarako erabiltzen den amantala izan. Amantala horrek ondo identifikatuta egon beharko du. Astebururo amantalak etxera eramango dituzte garbitzeko.
10. Hiruhilekoa amaitzen denean, erabiltzaileen gauza guztiak kenduko dira.

191. artikulua. Atsedendian bete beharreko arauak

1. Korridoreak pasabideak dira; txukun egon behar dute, eta ikasleak ezin dira luzaroan egon horietan.
2. Bazkaldu aurretik eta ondoren egiten diren jarduera osagarriak derrigorrezkoak dira ikasle guztientzat. Eskaintzen diren jardueren artean aukeratu ahal izango dute, tutoreak edo

Zuzendariak, gurasoen edo lege-tutorearen berariazko baimenarekin, bestelakorik esaten ez badu.

3. Ikasleek erabat debekatuta daukate jantokiko erabiltzaileentzat ez diren tokietara sartzea, baldin eta ez badaude monitore batez lagunduta.

4. Haur Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan zerbitzuko erabiltzaileek bazkaldu ondoren lo-kuluxka egingo dute.

5. Haur Hezkuntzako 5. eta 6. mailako erabiltzaileek jarduera lasaiak gauzatuko dituzte bazkaldu eta gero.

II. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

192. artikulua. Diziiplina araubidea.

Jantokiko ordutegian (jarduera osagarriak barne) parte-hartzaileen eskubideak edo betebeharrak betetzen ez badira, III. Atalburuko III. Kapituluan xedatutakoa aplikatuko da.

193. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

Barne Araudi honetako III. Atalburuko III. Kapituluan finkatutakoaz gain, ondokoak ere hutsegiteak dira:

1. Jokabide desagokiak:

- a) Bazkari-txandara berandu iristea.
- b) Biraoak eta hitz itsusiak erabiltzea.
- c) Diziiplina eza behin eta berriz adieraztea.
- d) "Mahaiko arduradun" izendatuz gero, esleitutako lanak ez burutzea.

2. Bizikidetzaren kontrako jokabideak.

- a) Asmo txarrarekin Ikastolako material, gela edo instalazioetan edo beste erabiltzaile batzuen gauzetan kalteak sortzea.
- b) Monitore eta gainerako langileen duintasunari erasotzen dion edozein jarrera lotsagabe.
- c) Mahaia justifikaziorik gabe uztea, monitoreak altxatzeko esan ez badu.

3. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak:

- a) Jarritako zigorrak ez betetzea edo haustea.
- b) Ikaskideei, monitoreei eta gainontzeko langileei erasotzea.

194. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Dagokion monitoreek edo zerbitzuaren ardura duten koordinatzaileek zuzenduko dituzte jokabide desagokiak, eta ez da beharrezkoa idatziz izapidetzea. Monitoreak edo arduradunak, alegia, fitxa batean egindako jokabide desagokia erregistratu beharko du, baita zein egunetan egin den eta zein zigor ezarri duen ere.
- b) Neurri zuzentzaileak jarduerarekin izan beharko du lotura.
- c) Jokabide desagokia egin duela eta adostutako neurri zuzentzailea zein izan den jakinarazi behar zaie beti tutoreari, gurasoei edo lege-ordezkariei eta Zuzendaritzari.

195. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Ezarritako neurri-zuzentzaileak zerikusia izan beharko luke zerbitzuaren erabilerarekin.
- b) Bideratzaileari, tutoreari eta familiari idatziz jakinaraziko zaie prozedura horri hasiera eman zaiola eta espedientearen jarraipenaren berri emango zaie.
- c) Bideratzaileak erabakiko du zer neurri zuzentzaile jarri, betiere ere Zuzendaritzaren oniritziarekin.

196. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

Aurreko artikuluan jasotako neurriez gain, ondoko zigorra ere jar daiteke: zerbitzuko erabiltzaile izateari uztea epe batez. Epe hori ikasturtea amaitu artekoa izan daiteke.

X. ATALBURUA. AUTOBUS-ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ZERBITZUAREN IRISMENA ETA ARAUAK

197. artikulua. Autobus-zerbitzuaren xedea eta irismena

1. Ikastolak autobus-zerbitzua eskainiko die ikasleei Ikastolara joateko eta Ikastolatik etxera joateko.

2. Garraio-eremua eta -ordutegia eskola-ordutzat eta Ikastolaren eremutzat joko dira ondorio guztietarako; hori dela eta, araudi honetan araututakoa ezarriko da, zerbitzura egokituta betiere.

3. Geltokiak eta ibilbideak finkatzeko irizpideak:

Aurreko ikasturteko datuen arabera egindako aurreikuspenarekin eskainiko dira geltokiak.

Erabiltzaile finkoak dituzten geltokiak aktibatuko dira ordu bakoitzean urte osorako ikasturte bakoitzean. Behin ikasturteko ibilbideak finkatuta ez dira geltoki gehiago aktibatuko ikasturte horretan zehar.

Geltoki berriak jartzeko edo aldatzeko eskaerak aurreko ikasturteko martxoaren 15etik apirilaren 1erarte egingo dira. Proposamenak ez dira nahita ez onartuko eta beharrezkoak diren bideragarritasun analisien menpe egongo dira.

4. Ikasleek, euren erabilera beharrean arabera, txartela bat edukiko dute eta horretan erabiltzeko baldintzak jasoko dira (ordutegiak, geltokiak, harremana, etab.).

5. Kuotak hilean behin izango dira, 10 hilabetez, eta Batzar Nagusiak ikasturte bakoitzerako onartu beharko ditu.

198. artikulua. Autobus-zerbitzuan izena ematea.

1. Jardunaldi aldaketaren aurretik erabiltzaile bakoitzak eguna / ordua eta geltokia aukeratu beharko ditu. Datu hauekin itxiko dira ibilbideak (autobus kopurua) eta geltokiak aktibatuko dira jardunaldi horretarako.

Ordutegi bakoitzean, aurreikusten diren ibilbide kantitatearen arabera, geltoki kantitate bat eskainiko da. Geltokiren bat inork ez badu hautatzen epearen barruan, ez da ibilbideetan txertatuko jardunaldi ezta ordutegi horretan, beraz, ezin izango da geroago eskatu.

2. Zerbitzuko inskripzioa ikasturte osorako egingo da. Salbuespen gisa eta abenduko azken eskola-eguneko 13: 00ak baino lehen bakarrik onartuko dira zerbitzuko bajak.

3. Ezarritako epetik kanpo izena eman dutenei ez zaie zerbitzua bermatuko.

4. Zerbitzua noizean behin erabili ahal izango da lekurik badago eta garraio arduradunari araudi honetan finkatutako moduan eskaera egin beharko zaio.

5. Hona hemen erabiltzeko modalitateak:

ERABILTZAILE FINKOA BIDAIA KOPURUA ASTERO

GASTEIZ	HERRIAK
---------	---------

1	1
2	2
3	3
4	4
5	5
6	6
7	7
8	8
9	9
10	10
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	
18	
19	
20	

NOIZEAN BEHINEKO ERABILTZAILEA: BIDAIA SOLTEAK

6. Erabiltzaileen mesederako, finkatutako garraio-errutinetan ahalik eta aldaketa gutxien egitea saiatuko da. Esleitutako autobusa kasu jakin batzuetan aldatzeko beharra dutenek edo zerbitzua noizean behin erabiltzeko beharra dutenek, ondoko moduan egingo dute:

- a) Ikaslearen aitak, amak edo lege-tutoreak posta elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre Ikastolako garraio-arduradunari eta, Haur eta Lehen Hezkuntzakoa bada, tutoreari jakinaraziko die geltoki edo autobus aldaketa egin behar duela. **Aurreko eskola-egunean** jakinaraziko dio, 13:00 baino lehen.
- b) Ikastolako garraio-arduradunak aita, ama edo tutoreari eta ikasleari esango die lekuri dagoen edo ez eta, baldin badago, baimena emango du. Baimen hori, ikasleari esleituaz besteko autobus bat erabiltzeko aukera emango dion agiria da, aldez aurretik autobuseko arduradunari aurkeztu beharko dio. Ikastolako garraio-arduradunak, gainera, arduradunari aldaketaren berri emango dio.
- c) Autobus eta geltoki aldaketak kobratu egingo dira, bazkideen Batzar Nagusiak urtero zehazten duen prezioan.

7. Ikasturte hasieran eta jardunaldi aldaketak daudenean aukeratutako zerbitzuen aldaketa egiteko edo zerbitzua eskatzeko epea ikastolak bidalitako komunikazioen bitartez jakinaraziko zaizue.

199. artikulua. Autobus-zerbitzuko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

1. Autobus-zerbitzuko erabiltzaileek ondoko eskubideak dituzte:

- a) Dagozkien erreklamazioak eta iradokizunak egitea, eurek zuzenean edo legeko ordezkarien bidez, autobusak koordinatzen dituen pertsonari.
- b) Autobus-zerbitzuari buruzko gai guztien inguruan beharrezkoa duten informazioa jasotzea, bereziki, salbuespen egoeren ondorioz (greba deialdiak, elurteak, etab.) gerta daitezkeen jazoerei buruzkoa.

2. Autobus-zerbitzuko erabiltzaileek ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Autobus-zerbitzuko arauak errespetatzea eta betetzea.
- b) Uneoro, errespetua eta lankidetzan aritzeko jarrera erakustea gainerako erabiltzaileei, monitoreei, garraio-enpresako langileei eta Ikastolako gainerako langileei.
- c) Instalazioak eta autobusak ondo erabiltzea.
- d) Esleitutako autobusak, geltokiak eta eserlekuak errespetatzea.
- e) Zerbitzuaren aldaketa puntual edo egoeraren arabera aldaketaren bat egin behar bada, zerbitzuko koordinatzaileari jakinaraztea, Araudi honetan xedatutakoari jarraituz.
- f) Uneoroko txartela edo horren ordezkari agiria (Ikastolako administrazioaren baimena) eramatea.

- g) Autobuseko arduradunen batek, garraio-zerbitzuko langileren batek edo Ikastolako norbaitek eskatuz gero, txartela aurkeztea.

200. artikulua. Zerbitzuari buruzko informazioa eta familiekiko komunikazioa

1. Ikasleen gurasoek eta lege-tutoreek autobus-zerbitzuko arduradunekin hitz egin ahal izango dute hara joanez, telefono bidez edo posta elektronikoaren bitartez.
2. Ikastolaren web orrian zerbitzuari buruzko informazioa, harremanetan jartzeko telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoak jarriko dira, baita zerbitzuan egingo diren aldaketei buruzko informazioa eta zerbitzuarekin lotutako edozein jazoera edo gai garrantzitsu ere.
3. Ikasturtea hasi aurretik, ikasleen gurasoek eta lege-tutoreek autobus-zerbitzuari buruzko informazioa jasoko dute: ibilbideak, ordutegiak, erabilera motaren arabera kostuak eta arauak.

201. artikulua. Autobuseko arduradunen funtzioak

Autobusetako arduradunek ondoko funtzioak eta ardurak dituzte:

- a) Eskola-garraioko eremu eta orduetan ordena zaintzea eta arauak betetzen dituztela kontrolatzea.
- b) Erabiltzaileen igoerak eta jaitsierak eta autobusaren ate-itxierak kontrolatzea Araudi honek eta indarreko arautegiak xedatutakoarekin bat etorriz.
- c) Ikasle erabiltzaile guztiek txartela dutela (autobusari eta esleitutako geltokiari buruzko informazioarekin) edo, kasua balitz, aldaketaren baimena eramaten dutela kontrolatzea.
- d) Autobuseko arduradunak bakar-bakarrik utziko ditu ikasleak geltokietan senideren batekin edo pertsona ezagun batekin gelditzen badira. Unean-unean autobuseko arduradunak ezagutzen duen pertsonaren batek ezin badu joan, pertsona horrek arduradunari jaso behar duen umearen txartelen kopia bat erakutsi beharko dio (mugikorrean argazki bat izan daiteke).
- e) Adin txikikoaren bila pertsona jakin batek joan behar badu beti edo pertsona jakin batek ezin badu bila joan, egoera horren berri eman beharko zaio modu frogagarrian garraio-zerbitzuko arduradunari.

202. artikulua. Autobusean bete beharreko arauak.

Arau hauek guztiak aplikagarriak dira bai eskola-garraioaren esparruan egiten diren ibilbideetan, bai Ikastolak antolatutako beste edozein ekintza burutzeko egiten diren bidaietan (txangoak, irteerak eta trukealdiak, eskolaz kanpoko jarduerak, adibidez, antzerkia, zinea etab.).

1. Autobusean sartu eta irteterakoan ordena zainduko dute eta poliki ibiliko dira erabiltzaileak, oihukatu gabe, autobusera igotzea edo bertatik jaistea eragotz dezakeen gorabeherarik sortu gabe, eta beti autobuseko arduradunak esaten duena eginez.
2. Bidaia dirauen bitartean, erabiltzaileak ezin dira beren aukeratik jaiki eta egoki jokatu dute.
3. Segurtasun-uhala beti eta egoki erabili beharko dute eta ezingo dute kendu autobusa geltokian gelditu arte. Erabiltzaileak eserita geldituko dira autobusa guztiz gelditu arte.
4. Ezin da oihurik egin, abestu edo gidariaren kontzentrazioa eragotziko duten bestelako ekintzarik burutu.
5. Autobusean ezin da ezer edan edo jan. Arduradunak edari edo janaria kendu ahal izango dio erabiltzaileari eta bidaia amaitutakoan bidaiariari bueltatu edo, bere irizpidearen arabera, Ikastolako administrazioan utzi ahal izango du.
6. Araudi honen 54. artikuluan teknologia berrien erabilerari buruz araututakoa ere autobusean aplikatuko da.
7. Autobusean euskara erabiliko dute, bai erabiltzaileek euren artean, bai erabiltzaileek autobuseko arduradunekin hitz egiten dutenean, betiere aintzat hartuz Haur Hezkuntzako ikasleek dituzten berezitasunak.
8. Erabiltzaileek autobuseko arduradunen oharrei jaramon egin beharko dizkiete beti.
9. Garraio-enpresek autobusetan erabiltzeko ikus-entzunezko materiala emango diete erabiltzaileei, bakar-bakarrik euskaraz. Hori egiten ez badute, Ikastolak material hori emango die autobuseko arduradunei.

203. artikulua. Geltokietan bete beharreko arauak.

1. Geltokiak (hasiera eta helmugakoak zein Ikastolakoak) igortzeko eta zain egoteko lekuak dira, beraz ordena zainduz itxaron beharko da.
2. Geltokietan itxaroten daudenean, erabiltzaileek eta, kasua balitz, horiekin batera dauden helduek, gainontzeko herritarrak errespetatuz jokatu dute, oinezkoen joan-etorriak oztopatu gabe.
3. Erabiltzaileak ez dira espaloitik inoiz jaitsiko, ezta autobusera igotzeko ere, autobusa erabat geldi eta ateak irekita izan eta autobuseko arduradunak adierazi arte.
4. Oro har, saiatuko da markesinak eta plataforma goratuak dituzten geltokiak erabiltzen, erabiltzaileak espaloitik autobusera errazago igo daitezen.
5. Eskolatik irteten direnean, erabiltzaileak zuzenean joan beharko dira dagokien autobusera, autobusen atzetik betiere; erabat debekatuta dago espaloietatik kanpo ibiltzea.

6. Aurrez ezarritako orduan, autobusekoak ateak itxi egingo ditu, eta ibilbidea hasi ondoren ezin izango dira ireki.

7. Autobusa ibilbidean zehar egokitutako geltokietan baino ez da geratuko, larrialdi kasuetan izan ezik.

8. Autobusa ahalik eta gehien hurbilduko da espalora, erabiltzaileak errazago sar daitezen autobusean. Martxan jarri eta gero ez da geldituko, baldin eta ez badago larrialdi kasuren bat.

9. Autobuseko ateak ez dira irekiko autobusa guztiz gelditu arte eta ez dira itxiko erabiltzaile guztiak dagozkien eserlekuetan eseri arte.

10. Zerbitzuaren arduradunik ez badago, erabiltzaileak ez dira autobusera igoko arduraduna izendatuta dagoen ibilbideetan.

11. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak pertsona heldu batek jasoko dituenean baino ez dira autobusetik jaitsiko. Kasu horietan, ikasleak berriz Ikastolara eramango dituzte eta han izango dira norbait biltzera joan arte.

Gainerako ziklo eta etapetan, familiek idatziz baimendu dezakete seme-alabak edo tutoretzapean dituztenak geltokian jaisteko nahiz eta har edo horien ardura duena han ez izan. Sinatutako baimenik ez badu, ikaslea berriz Ikastolara eramango dute eta han izango da norbait biltzera joan arte.

12. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko autobusak erabil ditzakete, eta alderantziz, erabiltzaile guztiek garraio-zerbitzua ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

II. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

204. artikulua. Diziiplina araubidea

Garraio-zerbitzuko ordutegian parte-hartzaileen eskubideak edo betebeharrak betetzen ez badira, III. Atalburuko III. Kapituluan xedatutakoa aplikatuko da.

205. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

Barne Araudi honetako III. Atalburuko III. Kapituluan finkatutakoaz gain, ondokoak ere hutsegiteak dira:

1. Jokabide desegokiak:

- a) Diziiplina eza behin eta berriz adieraztea.
- b) Autobuseko arduradunaren edo gidariaren oharrak ez betetzea.
- c) Instalazioak eta autobusak behar bezala ez erabiltzea.

- d) Esleitutako autobusak, geltokiak eta eserlekuak ez errespetatzea.
- e) Uneoroko txartela edo horren ordezkoko agiria (Ikastolako administrazioaren baimena) ez eramatea.
- f) Autobusean sartu edo autobusetik ateratzea ordena zaindu gabe, korrika edo oihukatuz, edo autobusean sartzen edo autobusetik irteten direnei traba eginez.
- g) Bidaian dagokien eserlekutik altxatzea, autobusa guztiz gelditu ez bada.
- h) Autobusean zerbait jan edo edatea.
- i) Araudi honen 54. artikulua xedatutako hautsiz teknologia berriak erabiltzea.

2. Bizikidetzaren kontrako jokabideak:

- a) Asmo txarrarekin autobusean, Ikastolako instalazioetan edo beste erabiltzaile batzuen gauzetan kalteak sortzea.
- b) Errespetu eza eta lankidetzan ez aritzeko jarrera erakustea gainerako erabiltzaileei, monitoreei, garraio-enpresako langileei eta Olabide langileei.
- c) Autobuseko arduradunen eta gainerako langileen duintasunari erasotzen dion edozein jarrera lotsagabe.
- d) Geltokietan gainerako herritarrak ez errespetatzeko eta oinezkoiei trabak sortzeko jokabideak.
- e) Espaloitik jaistea autobusa guztiz gelditu ez bada, aterak ireki ez baditu eta autobuseko arduradunak jaisteko agindua eman ez badu.
- f) Ikastolatik irteterakoan, autobusaren aurrealdean eta espaloitik kanpo ibiltzea.

3. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak:

- a) Jarritako zigorrak ez betetzea edo haustea.
- b) Ikaskideei, monitoreei eta gainontzeko langileei eraso fisiko edo hitzezko eraso egitea.
- c) Oihukatzea, abestea edo gidariaren kontzentrazioa eragotziko duten bestelako ekintza batzuk burutzea.

206. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Dagokion monitoreek edo zerbitzuaren ardura duten koordinatzaileek zuzenduko dituzte jokabide desagokiak, eta ez da beharrezkoa idatziz izapidetzea. Monitoreak edo arduradunak, alegia, fitxa batean egindako jokabide desagokia erregistratu beharko du, baita zein egunetan egin den eta zein zigor ezarri duen ere.
- b) Neurri zuzentzaileak jarduerarekin izan beharko du lotura.
- c) Jokabide desagokia egin duela eta adostutako neurri zuzentzailea zein izan den jakinarazi behar zaie beti tutoreari, gurasoei edo lege-ordezkariei eta Zuzendaritzari.

207. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

- a) Ezarritako neurri-zuzentzaileak zerikusia izan beharko luke zerbitzuaren erabilerarekin.
- b) Bideratzaileari, tutoreari eta familiari idatziz jakinaraziko zaie prozedura horri hasiera eman zaiola eta espedientearen jarraipenaren berri emango zaie.
- c) Bideratzaileak erabakiko du zer neurri zuzentzaile jarri, betiere ere Zuzendaritzaren oniritziarekin.

208. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura.

III. Atalburuko III. Tituluan araututako prozedura jarraituko da ondoko zehaztapenekin:

Aurreko artikuluan jasotako neurriez gain, ondoko zigorra ere jar daiteke: zerbitzuko erabiltzaile izateari uztea epe batez; epe hori ikasturtea amaitu artekoa izan daiteke.

XI. ATALBURUA. ZAINZA-ZERBITZUA

209. artikulua. Zaintza-zerbitzuaren xedea

1. Zaintza-zerbitzuak familiei lan-esparrua eta familia bateratzen laguntzea du helburu.
2. Zaintza-zerbitzua Haur Hezkuntzako hirugarren maila (bi urtekoen gela) eta Lehen Hezkuntzako seigarren maila bitartean dauden ikasleei zuzenduta dago.
3. Hiru urtera arteko ikasleek ezingo dute Ikastolaren esparruan zortzi ordu baino gehiago egon, eta beti errespetatuko da eskola-ordutegia.

Haur Hezkuntzako Garapen Taldeak du familiei arau hori gogorarazteko ardura.

210. artikulua. Zaintza-zerbitzuaren arduradunak

Zerbitzuko langile arduradunak, Zuzendaritza Nagusiaren pean egongo dira; hala ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Zuzendaritzek berrikusiko dute zerbitzua.

211. artikulua. Zaintzako aldian egingo diren jarduerak

1. Zaintza-zerbitzuan, oro har, laguntza-jarduerak burutuko dira, jolas librea abiapuntu izanik.
2. Baina Lehen Hezkuntzako ikasleek, nahi izanez gero, eskolako lanak ere burutu ditzakete.

212. artikulua. Zaintza-zerbitzuko ikasle erabiltzaileen ordutegiak eta ekarri eta jasotzeko lekuak

1. Hona hemen Zaintza-zerbitzuaren ordutegia:

- a) Goizez: 7:45etik 8:45era
- b) Arratsaldez: 16:40 a 17:40

2. 8:45ean Ikastolara sartzeko aterak irekiko dira. 8:45etatik 8:55era irakasleek korridorea zainduko dute, eta Haur Hezkuntzako ikasleen familiek eraikinera sartzeko atera baino ezingo diete ikasleei lagundu, Haur Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan izan ezik; izan ere, ikasturtearen lehen hiruhilekoan soilik izango dute familiaren laguntza.

3. Goizeko zerbitzuan uzteko, Haur Hezkuntzako gela batera eta Lehen Hezkuntzako gela batera joan beharko da; gela horiek beharrezko moduan seinaleztatuko dira etapa bakoitzeko ikasleentzat. Arratsaldez zerbitzuko langileek ikasleei irteerara edo, kasua balitz, autobusera, lagunduko diete; hala ere, gurasoek edo legezko ordezkariak jaso ditzakete zerbitzurako finkatutako ordutegian.

5. Goizeko 8:45ak baino lehen eta arratsaldeko 16:40tik aurrera Ikastolako instalazioetan dauden Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak, zaintza zerbitzuko orduetan zerbitzu horretarako geletara eramango dituzte, eta zerbitzu horretako erabiltzaile bihurtuko dira ondorio guztietarako.

213. artikulua. Jatea eta higiena Zaintza-zerbitzuan

1. Zaintza-zerbitzuko arduradunak zerbitzu hori erabiltzen dituztenen higiena-beharrez arduratuko dira.
2. Arratsaldez zerbitzua erabiltzen dutenek etxetik ekarritako askaria har dezakete.

XII. ATALBURUA. APARKALEKUAK

I. KAPITULUA. AZPIEGITURAREN IRISMENA ETA ARAUAK

214. artikulua. Aparkaleku-motak eta funtzioak

1. Ikastolako aparkalekuak, ikastolako talde guztien erabilera sozialerako azpiegitura batzuk dira.

2. Aparkalekuen kudeaketak, eskolako autobusak eta bazkideen zein ikasleen gurasoen eta lege-ordezkarien ibilgailu pribatuak aparkatu ahal izatea izango du helburu.

3. Aparkalekuetan eskolako autobusak, familien ibilgailuak, motoak, motozikletak eta bizikletak utzi ahal izango dira.

4. Aparkalekuei dagokienez, indarreko arautegi sektoriala eta udal ordenantzak bete beharko dira.

215. artikulua. Aparkatzeko eremuak eta orduak

1. Talde bat edo batzuek bakarrik erabiltzeko moduko edo ibilgailu moten arabera erabiltzeko aparkaleku edo aparkatzeko zenbait eremu finkatu ahal izango dira, hobeto eta modu ordenatuagoan eta seguruagoan gidatu eta aparkatzeko helburuarekin.

2. Aparkaleku edo aparkatzeko eremu jakin batzuk esleituz gero, esleipen hori egiaztatzeko eta identifikatzeko txartelak banatuko dira.

3. Autobusen aparkalekua, oro har, ez dago beste erabiltzaile batzuentzat irekita, eta autobuseko arduradunek eta gidariek irekiko dute aparkaleku hori eskariaren arabera.

4. Ikastolako langileen aparkalekua, oro har, ez dago irekita beste erabiltzaile batzuentzat. Irekitzeko txartel baten bidez erabiliko da, eta itxita egongo dira beti, langile gehienek irteera eta sarrera orduetan izan ezik, ordu horietan irekiera automatikoa programatuko da. Así mismo se abrirá a las familias a las horas de entrada y salida del alumnado).

5. Familientzako aparkalekua 24 orduz, asteko zazpi egun irekita egongo da.

6. Larunbatetan eta jai-egunetan eskolaz kanpoko jardueren eta kirol eta kultur jardueren ondoriozko beharretara egokituko da.

7. Ordutegi orokorra, edozein egoeraren ondorioz sor daitezkeen behar berezien arabera egokituko da: eguraldia, kultur ekitaldiak, kirol lehiaketa eta ospakizun bereziak.

8. Ikastolaren web orrian aparkalekuei buruzko informazio osoa egongo da: kokapenak, erabiltzaileen arabeko eremuak, azpiegituraren ardura duen pertsonarekiko kontaktua (telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa) eta zerbitzuaren inguruan egon daitekeen edozein jazoera edo gai garrantzitsua, adibidez, obrak, aldaketak, eguraldi txarraren ondoriozko arazoak (izotza, elurra...).

216. artikulua. Aparkalekuen erabilerari buruzko arauak

1. Aparkalekuen erabiltzaileek, ikasleek zein euren familiek, honako betebeharrak dituzte:

a) Gainontzeko erabiltzaileei uneoro errespetua eta lankidetzarako jarrera erakustea.

- b) Autobusean edo ibilgailuan ordenan sartu eta irtetea, korrika egin gabe eta beste ibilgailuen eta pertsonen joan-etorriei traba egin gabe.
 - c) Aparkalekuen edo eremuen esleipena errespetatzea.
 - d) Esleitutako aparkalekuak edo eremuak behar bezala erabiltzea.
 - e) Aparkaleku guztietan elbarrientzako aparkaleku guztiak arduraz errespetatzea.
 - f) Gidariekin batera doazenek edo haren ardurapean dituen adin txikikoek instalazioak behar bezala erabiliko dituztela zaintzea eta horiek egindako ekintzen ardura gain hartzea.
 - g) Aparkalekuetako koordinatzaileak eta arduradunak egindako oharrak betetzea.
 - h) Aparkalekuaren funtzionamenduan eta helburuan eragina izan dezakeen edozein jazoera edo gairen berri ematea aparkalekuko koordinatzaileari eta arduradunari.
 - i) Banaketak burutzen dituzten eta zaborrak biltzen dituzten ibilgailuei lan egiten erraztea eta, bereziki, instalazioetako irteerak eta sarrerak erraztea.
 - j) Eskolako autobusen irteera eta sarrerei lehentasun ematea.
 - k) Eguraldi txarra dagoenean, zuhurtziaz jokatzeko eta elurra kentzeko ekipoei eta antzekoei lan egiten uztea.
 - l) Errepideetan edo sartzeko bideetan ez gelditzea bidaiariak igo eta jaitsi ditzaten edo gauzak ibilgailuan sartu edo handik irteteko, oso tarte laburrerako bada ere.
 - m) Gidaririk gabe bigarren ilaran ibilgailua ez uzten saiatzea.
 - n) Ez uztea inoiz ibilgailua Ikastolaren inguruneko errepideetan, ertzetan, nasatan, lur-bideetan eta aparkatze eremu moduan seinalizatuta ez dagoen beste edozein tokitan.
 - o) Ez utzi inoiz ibilgailua espaloien gainean.
 - p) Ez uztea inoiz ibilgailua autobusen aparkalekuetan.
 - q) Ez sartzeko oinezkoentzat diren eremuetan, hala nola, oinezkoentzako zebra-bideetan edo oinezkoentzat seinalizatuta dauden bideetan.
1. Ikastolak ez du izango aparkalekuetan egindako ekintzen eta beste pertsona, ibilgailu edo instalazio batzuetan eragindako ondorioen ardura; erantzukizuna hori egin duen erabiltzailearena izango da.

2. Celaya aparkalekua txandaka erabiltzeko da eta, betez ere, Haur Hezkuntzako ikasleen familiek erabiltzeko da, ikasleei Alberdi eraikinaren ateraino lagundu behar dietelako. Haur Hezkuntzako ikasleak sartu eta irteteko orduetan, ikasle horien familiek izango dute lehentasuna txandakako aparkalekua erabiltzeko.
3. Gainontzeko ikasleen familiek lehentasunez sei ibilgailuentzako gelditzeko eremua erabiliko dute. Eremu horietan familiek, ibilgailua utzi gabe, ikasleak utz ditzakete haiek bakarrik Ikastolan sar daitezten. Gainera, Olabide eraikineko aparkalekuak eta horren kanpoaldean diren lekuak erabil ditzakete.
4. Langileek ezingo dute Celaya eraikineko aparkalekua erabili, Haur Hezkuntzako geletan seme-alabarik ez badute eta, hala bada, goizean erabil dezakete.
5. Irakasleentzako aparkalekua (biribilgunero aparkalekua) ezin da erabili ikasleak Ikastolan uzteko, nahiz eta bertan ez aparkatu.
6. Bisitek Celaya eraikineko txandakako aparkalekua erabil dezakete, gehien jota 90 minutuz.
7. Celaya eraikinaren aurrean espaloiaaren parean dagoen aparkatzeko eremuan ezin da ibilgailua utzi, bakar-bakarrik ibilgailua gelditu daiteke, gidaria jaitsi gabe, ikaslea uzteko.
8. Ikasleen bizikletentzat dauden aparkalekuetan kasko, txirrina, argiak eta legeak eskatzen dituen guztiak derrigorrezkoak izango dira bertan bizikleta aparkatzeko, zeinahi den ikaslearen adina.

II. KAPITULUA. DIZIPLINA ARAUBIDEA

217. artikulua. Diziiplina araubidea

1. Araudi honetako III. Atalburuak xedatutakoaren eta jarraian adierazitako artikuluetan finkatutakoaren arabera arautuko da ikasleentzako aparkalekuen diziiplina araubidea, eskola-orduetan bezala.
2. Elkartearen Estatutuek arautuko dute bazkideentzako aparkalekuen diziiplina araubidea, betiere jarraian dauden artikuluetan jasotako berezitasunekin.

218. artikulua. Diziiplina ahalmena

Olabide Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak du Ikastolako aparkalekuen azpiegiturak erabiltzen dituzten pertsonak zehatzeko gaitasuna, betiere Zuzendaritzak edo eta aparkalekuaren koordinazioaz arduratzen den pertsonak edo beste bazkide kooperatibista batek proposatuta.

219. artikulua. Hutsegiteak sailkatzea

Barne Araudi honetako III. Atalburuko III. Kapituluan finkatutakoaz gain, ondokoak ere hutsegiteak dira:

1. Jokabide desagokiak: 216. artikuluan aipatutako betebeharrak behin edo kasu isolatu batzuetan ez betetzea.
2. Bizikidetzaren kontrako jokabideak: 216. artikuluan aipatutako betebeharrak behin baino gehiagotan edo modu adierazgarrian ez betetzea.
3. Bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak:
 - a) 216. artikuluan aipatutako betebeharrak bost aldiz baino gehiagotan ez betetzea.
 - b) Jarritako zehazpen zuzentzaileak ez betetzea edo haustea.
 - c) Pertsona bat hitzez edo fisikoki erasotzea.
 - d) Ibilgailuen eta pertsonen joan-etorriak segurtasunez egitea eragozten dituzten ekintzak burutzea.

220. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko prozedura eta neurriak.

1. Aparkalekuen ardura duen koordinatzaileak zuzendu beharko ditu jokabide desagokiak; hitzez edo idatziz (posta elektronikoz edo posta arruntez) ohartarazi beharko du.
2. Aparkalekuen ardura duen koordinatzaileak, alegia, fitxa batean erabiltzaile arau-hauslearen identitatea eta egindako jokabide desagokia erregistratu beharko du, baita zein egunetan egin den eta zein zigor ezarri duen ere.
3. Jokabide desagokia ikasle batek egin badu, jokabide hori eta neurri zuzentzailea zein izan den jakinarazi behar zaie gurasoei edo lege-ordezkariei eta Zuzendaritzari.

221. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozedura eta neurriak.

1. Zuzendaritzak jarriko ditu bizikidetzaren kontrako jokabideak zuzentzeko neurriak eta Artezkaritza Kontseilura eraman beharko ditu hark onetsi ditzan.
2. Aparkalekuen arduradunak fitxa batean erabiltzaile arau-hauselaren identitatea eta egindako jokabide desagokia erregistratu beharko du, baita zein egunetan egin den eta zein zigor ezarri duen ere.
3. Bizikidetzaren kontrako jokabidea ikasle batek egin badu, jokabide hori eta neurri zuzentzailea zein izan den idatziz jakinarazi behar zaie gurasoei edo lege-ordezkariei.
4. Aurreko artikuluan jasotako neurriez gain, ondoko zigorra ere jar daiteke: azpiegiturako erabiltzaile izateari uztea bi hilabetez eta identifikatzeko txartela eman behar izatea, halakorik balu.

222. artikulua. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko prozedura eta neurriak.

1. Zuzendaritzak jarriko ditu bizikidetzan kalte larriak sortzen dituzten jokabideak zuzentzeko neurriak eta Artezkaritza Kontseilura eraman beharko ditu hark onetsi ditzan.
2. Aparkalekuen arduradunak fitxa batean erabiltzaile arau-hauselaren identitatea eta egindako jokabide desagokia erregistratu beharko du, baita zein egunetan egin den eta zein zigor ezarri dituen ere.
3. Bizikidetzan kalte larriak sortzen dituen jokabidea ikasle batek egin badu, jokabide hori eta neurri zuzentzailea zein izan den idatziz jakinarazi behar zaie gurasoei edo lege-ordezkariei.
4. Aurreko artikuluetan jasotako neurriez gain, ondoko zigorrak ere jar daitezke:
 - a) Epe batez azpiegituraren erabiltzaile izateari uztea. Epe hori ikasturte bat edo batzuetakoa izan daiteke edo betiko. Gainera, identifikatzeko txartela galduko du.
 - b) Botoa emateko eskubidea galtzea, Kooperatibako bazkideen kasuan.

XIII. ATALBURUA. TRUKEALDIAK

I. KAPITULUA. HIZKUNTZAK IKASTEKO TRUKEALDIAK

223. artikulua. Trukealdien xedea

Trukealdien helburua, ikasleek Ikastolan ikasten dituzten hizkuntzak erabiltzeko motibazioa handiaraztea da.

224. artikulua. Ikasleak inskribatzeko prozedura

1. Familia guztiei posta elektronikoaren bidez zein Ikastolaren web orriaren bitartez behar bezala emango zaie trukealdien berri, irismena, helburuak, ibilbideak, garraiobideak, ordutegiak, egonaldiak, tokiak, arduradunak, kostuak etab. azalduz.
2. Deialdiak irekiak izango dira eta, beraz, ikasleen guraso edo lege-tutoreek aldeztu aurretik planifikatutako trukealdiaren berri izango dute, baita horren irismenaren eta ezaugarrien berri ere.
3. Aurretik izena emateko, ikasleek hizkuntza horren irakasle titularrari jakinaraziko diote trukealdi batean izena emateko asmoa dutela eta honek, aldi berean, etapako Garapen Taldeari jakinaraziko dio.
4. Trukealdi batean zein ikaslek hartuko duten parte erabakitzeko, ikasturte horretan beste trukealdi batean edo batzuetan parte hartu duen edo ez aintzat hartuko da, ez dira kalifikazio akademikoak edo beste irizpide akademikorik aintzat hartuko.

5. Eskaria eskaintza baina handiago bada, etapako Garapen Taldeak zozketa egingo du. Horretarako, alde aurretik inplikaturako ikasleei edo, gutxienez, gelako ordezkariari zozketara joateko deialdia luzatuko die.

6. Trukealdietan behin betiko izena emateko eta lekua erreserbatzeko, amak, aitak edo legezko tutoreak idazki bat egin beharko du, eta trukealdi bakoitzerako finkatuko den diru kopurua ordaindu beharko du. Diru hori ez zaie itzuliko trukealdian parte hartzen ez dutenei.

225. artikulua. Trukealdian ikasleek dituzten eskubideak eta betebeharrak

Araudi honetako III. Atalburuak xedatutakoaren arabera izango dira ikasleek trukealdietan dituzten eskubideak eta betebeharrak, eta eskola-orduetan dituztenak izango dira.

226. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzea

1. Eskola-orduetan bezala, Araudi honetako III. Atalburuak xedatutakoaren arabera arautuko da Trukealdien diziiplina araubidea, betiere hurrengo puntuan jasotako berezitasunarekin.

2. Bizikidetzaren aurkako jarreraren edo bizikidetzaren horretan kalte larriak egiten dituzten jarreraren kasuan, trukealdiaren ardura duenak ondoko neurri zuzentzailea jar dezake: ikaslea berehala eta trukealdia amaitu gabe etxera bidaltzea, eta familiak ordaindu beharko ditu horrek sortzen dituen gastu guztiak.

227. artikulua. Medikugaien inguruan

1. Ikasle bakoitzak ohiz erabiltzen dituen botikak eraman beharko ditu trukealdira, betiere 24. artikuluen 2. atalak xedatutakoa aintzat hartuta.

2. Izena ematen dutenean, familiak mediku-fitxa bat bete behar dute eta horretan beharrezkoa izan daitekeen ikaslearen buruzko informazioa jarriko dute, adibidez, alergia badu, medikuaren tratamenduren bat badu edo beste intereseko egoeraren bat.

228. artikulua. Trukealdiaren arduradunak

1. Trukealdiko ikasleen ardura, haiekin doan edo doazen arduradunarena/k da.

2. Trukealdian izango diren arduradunen kopurua ikaslearen kopuruaren arabera izango da eta kopuru horretarako egokia izango da.

3. Trukealdi guztietan arduradunek erantzukizun zibileko aseguru bat izango dute, Ikastolak kontratatutakoa.

4. Garapen Taldeak hautatuko ditu arduradun horiek, Ikastolako irakasleek eta langileek egin dituzten eskaerak ikusita. Trukealdien ardura gain hartzea borondatezkoa izango da, irizpide bakarra ondokoa izango da: egun horietan ahal izatea, Ikastolak berak dituen zerbitzu-beharrak gordez.

XIV. ATALBURUA. IRTEERAK, TXANGOAK ETA IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIAK

229. artikulua. Helburuak

1. Ikasturte amaierako txangoek taldearen bizikidetza eta kohesioa sustatzea izango dute helburu nagusitzat, baita josteta-jardueren bidez euskararen erabilera indartzea ere.
2. Etapa amaierako bidaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko azken ikasturteak amaitzen dituztenean egingo dute eta josteta-helburu nagusiarekin batera, zenbait kultura ibilbide eta bisita ere egingo dituzte.

230. artikulua. Irteerei eta txangoei buruzko informazioa.

1. Familia guztiei posta elektronikoaren bidez zein Ikastolaren web orriaren bitartez behar bezala emango zaie irteeren eta txangoen berri, irismena, helburuak, ibilbideak, garraiobideak, orduategiak, egonaldiak, tokiak, arduradunak, kostuak etab. azalduz.
2. Deialdia irekia izango da eta, beraz, ikasleen guraso edo eta lege-tutoreek aldeztu aurretik jakingo dute zein irteera edo txango planifikatu den eta horren irismena eta ezaugarriak zein diren.
3. Ikasturte bakoitzaren hasieran, Zuzendaritzak familiei eskatuko die idatziz baimena eman dezatela ikasleek planifikatutako eta ikasturterako aurreikus idiren irteerak egin ditzaten.

231. artikulua. Irteeretan eta txangoetan ikasleek dituzten eskubideak eta betebeharrak

1. Araudi honetako III. Atalburuak xedatutakoaren arabera izango dira ikasleek irteera eta txangoetan dituzten eskubideak eta betebeharrak, eta eskola-orduetan dituztenak izango dira.
2. Autobusez egiten diren bidaiei dagokionez, Araudi honen 199. artikulua jasotako arauak aplikatuko dira.
3. Kostuak egozteari dagokionez, ondokoak hartuko dira kontuan:
 - a) Derrigorrezko jardueren kasuan, inplikaturako ikasle guztiek (gela edo taldea) ordainduko dituzte gastu orokorrak (antolaketa, kudeatzeko eta antzekoak), jarduerara joan ala ez. Baina jardueran parte hartzen ez dituztenek ez dituzte beste gastu batzuk ordaindu beharko, mantenua, ostalua, sarrerak eta antzekoak, esaterako, betiere Ikastolari fakturatzeko ez bazaizkio.
 - b) Norberak nahita egiten dituen jarduerari dagokionez, gastuak parte hartzen duten ikasleek ordainduko dituzte soilik.

Mugatzat jarritako eguna igaro ostean baja emanez gero, beharrezko gastuak ordaindu beharko dira, baja horrek gainerako parte-hartzaileentzat gasturik sor ez distan.

- c) Halako jarduerekin familientzat ahalik eta inpaktu ekonomiko txikiena sortzearen, zenbateko osoa banakatuko da, eta ikasle bakoitzak hileko 25 euro ordaindu beharko du gehien jota jarduera bakoitzeko, ikasturte edo etapa amaierako bidaien kasuetan izan ezik.
- d) Kostu esanguratsua duten jardueren kasuan, hileko ordainketak finkatuko dira jarduera gauzatu baino lehen, eta jarduera amaituta kostuaren kitapena egingo da.

232. artikulua. Jokabide desegokiak zuzentzea

- 1. Eskola-orduetan bezala, Araudi honetako III. Atalburuak xedatutakoaren arabera arautuko da trukealdien diziplina araubidea, betiere hurrengo puntuan jasotako berezitasunarekin.
- 2. Bizikidetzaren aurkako jarreraren edo bizikidetza horretan kalte larriak egiten dituzten jarreraren kasuan, trukealdiaren ardura duenak ondoko neurri zuzentzailea jar dezake: ikaslea berehala eta trukealdia amaitu gabe etxera bidaltzea, eta familiak ordaindu beharko ditu horrek sortzen dituen gastu guztiak.

233. artikulua. Mediku-gaien inguruan

- 1. Ikasle bakoitzak ohiz erabiltzen dituen botikak eraman beharko ditu irteera, txango eta bidaietara, betiere 24. artikulua 2. atalak xedatutakoa aintzat hartuta.
- 2. Izena ematen dutenean, familiek mediku-fitxa bat bete behar dute eta horretan beharrezkoa izan daitekeen ikasleari buruzko informazioa jarriko dute, adibidez, alergia badu, medikuaren tratamenduren bat badu edo beste intereseko egoeraren bat.

234. artikulua. Bidai edo irteeraren arduradunak

- 1. Irteera eta txangoetan ikasleen ardura, haiekin doan/diazeb arduradunarena/k da. Haur Hezkuntzari dagokionez, pertsona bat baino gehiago joango da irteetara.
- 2. Ikasturte amaierako bidai bada, Ikastolako langile batzuk ikasleekin joan daitezke, baina ez dute etapako irakasle izan beharko.
- 3. Trukealdian izango diren arduradunen kopurua ikaslearen kopuruaren arabera eta kopuru horretarako egokia izango da.
- 4. Irteera, bidai edo txango guztietan arduradunek erantzukizun zibileko aseguru bat izango dute, Ikastolak kontratatutakoa.
- 5. Garapen Taldeak hautatuko ditu arduradun horiek, Ikastolako irakasleek eta langileek egin dituzten eskaerak ikusita. Trukealdien ardura gain hartzea borondatezkoa izango da, irizpide

bakarra ondokoa izango da: egun horietan ahal izatea, Ikastolak berak dituen zerbitzu-beharrak gordez.

XV. ATALBURUA. BERARIAZKO EREMU KOMUNEN ERABILERA

1. KAPITULUA. "IKASLE GUNEAK" EREMU SOZIALAK

235. artikulua. "Ikasle Guneak" eremu sozialen helburua

1. *"Ikasle Guneak"* izeneko eremuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek erabilera sozialerako dituzten eremu fisikoak dira. Eremu horietan nahi dituzten gaiak landu eta beren jarduerak buru ditzakete.
2. *Ikasle Guneak* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek lehentasunez erabiltzeko moduko eremuak dira, arduraz eta autonomiaz disfrutatzeko eta erabiltzeko dira eta, beraz, lehentasuna izango dute Ikastolako beste edozein taldek egiten duen beste eskaera arrazoituen aurrean.
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek izango dute eremu hori zaintzeko eta behar bezala erabiltzeko ardura.

236. artikulua. Familiek "Ikasle Guneak" erabiltzea

1. Familiek *"Ikasle Guneak"* erabili ahal izango dituzte ondoko helburuekin:

- a) Urtebetetze-jaiak egiteko ostiraletan 16:30etatik 19:00etara.

Horretarako, behintzat 24 orduz lehenago eskaera egin beharko diote Idazkaritzari. Guraso edo legezko tutore arduradunak gain hartuko du ondoko ardura: bertaratuko guztiek arau hauek eta erabiltzeko finkatutako baldintzak beteko dituztela. Hark izango du horren erantzukizuna eta amaieran instalazioak behar bezala utziko dituztela egiaztatuko du.

Idazkaritzan sartzeko txartela emango diote instalazioak ireki eta ixteko.

Ostiral bakoitzean ezingo da talde bat baino gehiago egon eta erabiltzeko baimena eskaera hurrenkeran emango da.

Zerbait gertatzen bada eta horrek Ikastolarako arduraren, gasturen edo eragozpenen bat sortzen badu, eskatzaileak gain hartuko du hori eta Ikastola edozein arduratik edo kudeaketatik aske utziko du.

- b) Gurasoek eskolaz kanpoko jarduerak amaitu arte seme-alabei itxaroteko duten leku gisa, astelehenetik ostiralera 16:45etik 17:40ra. Kasu horretan Celaya eta Alberdi eraikinen artean dagoen hesitik sartu eta irtengo dira. 17:40tik aurrera instalazio hori

itxiko da, eta ezingo da edozein bide erabiliz itxiera hori eragotzi aipatutako ordutik aurrera.

2. *Ikasle Guneak* eremuak erabiltzeko baimena, eremu horietarako soilik da eta horrek ez du esan nahi gainerako instalazioetan sartzeko edo horiek erabiltzeko baimena dutenik; gainera, instalazio horietan egiten diren jarduerak guztiz errespetatu beharko dituzte.
3. Familia erabiltzaileak, instalazioak egoki erabiltzeaz eta haiekin doazen eta zaintzen dituzten adin txikikoen ekintzez arduratuko dira; aurkitutako moduan utzi beharko dituzte instalazio horiek.
4. Ezingo dituzte eremu horiek erabili gurasoekin edo lege-tutoreekin edo horretarako baimendutako pertsonekin ez datozen ikasleek. Ikastolak ez du beste batzuegan edo instalazioetan eragina dituzten ekintzen ardura, familiek gain hartuko dute ardura hori.
5. Ikastolako ikasleen gurasoek edo lege-tutoreek, Ikastolako pertsonak egiten duten lana errespetatuko dute eta senideei eta haiekin datozenei errespetu hori irakatsiko diete.
6. Ikastolako Zuzendaritzak arau hauek betetzen direla ikusiko du, familia interesdun guztiek instalazio horiek erabiltzeko aukera izan dezaten.
7. Arau hauek betetzen ez badituzte, ikasturte horretan ez zaie erabiltzeko baimena emango.

2. KAPITULUA. LIBURUTEGIA

237. artikulua. Liburutegiaren helburua

1. Liburutegia, irakasleek eta ikasleek erabiltzeko moduko ekipamendu bat da; hantxe zenbait hezkuntza baliabide dituzte, bai paperez, bai euskarri elektronikoz: liburuak, aldizkariak, entziklopediak, filmak, etab. Eremu horretan kontsultatu ahal dituzte edo handik atera ditzakete Araudi honetan finkatutako eta Zuzendaritzak zehaztutako baldintzekin.
2. Liburutegian, gainera, Ikastolako kudeaketa organoen, Zuzendaritza organoen edo irakasleen bilerak egin daitezke.

238. artikulua. Liburutegia erabiltzeko arauak

1. Ikasleek eskola-orduetan erabil dezakete liburutegia, betiere irakasle baten ardurapean.
2. Zuzendaritzak finkatuko du liburutegiaren ordutegia (goizez eta arratsalde).
3. Liburutegiko materiala (liburuak, aldizkariak, filmak, etab.) arduraz erabili behar dira gainerako erabiltzaileek erabiltzeko aukera izan dezaten.
4. Liburutegiko materiala ezin da azpimarratu, pintatu, marraztu edo horretan markarik egin.
5. Ezin da liburutegitik entziklopedietako alerik, atlasik edo hizteirik atera.

6. Edozein hezkuntza baliabide liburutegitik ateratzeko, liburutegiko txartela aurkeztu behar da. Baliabide hori gehien jota 15 eskola-egun izan dezakete. Epe hori beste 15 eskola-egunez luza daiteke liburutegiko kudeaketaren arduradunari berariaz eskatuz gero hasieran emandako epea amaitu baino lehen.

7. Aurreko atalean aipatutako epea amaitzen bada eta baliabide hori itzuli ez badu ikasleak edo gaizki itzultzen badu, kostu horretaz arduratu beharko da eta hurrengo hileko kuotan sartuko zaio.

3. KAPITULUA. TABERNA ETA BESTE AISIALDI-EREMU BATZUK

239. artikulua.- Tabernaren eremuaren xedea

1. Taberna aisialdirako denon eremu bat da eta batez ere helburu soziala du, hots, Ikastolan diren taldeen eta bisitan datozen pertsonen arteko giroa sustatzea, elkarbizitzari laguntzea eta Ikastolakoa izatearen sentimendua sustatzea du helburu, baita Kultur eta Kirol Elkartetarako dirua lortzea ere.

240. araua. Tabernaren eta beste aisialdi-eremu batzuen erabilera

1. Oro har, Ikastolako aisialdirako eremuetan, gainontzeko lekuetan bete beharreko betebeharrak dituzte erabiltzaileek instalazioei eta altzariei zein gainontzeko pertsonei dagokienez.

2. Adin nagusiei alkohola eta tabakoa saltzeko eta horiek kontsumitzeko orduan, gai horretan indarrean dagoen arautegia bete beharko da.

3. Kultur Elkarteko eta Kirol Elkarteko zenbait boluntariok egingo dute arreta tabernan.

4. Tabernan arreta egiten dituzten pertsonak, Olabide Ikastolaren hezkuntza-proiektuaren isla dira; hori dela eta, aintzat hartuko dira modu atseginean eta adeitsuan arreta egitea eta euskararen erabilera.

5. Tabernako txanda bakoitzean taldea koordinatuko duen pertsona bat izango dute, eta ondoko lanen ardura izango du:

- a) Taldeko boluntarioen arteko lotura izatea.
- b) Bere taldeari jakinaraztea noiz duten tabernaren ardura.
- c) Tabernaren funtzionamendu-arauak jasotzea eta funtzioak eta lanak ezagutzen dituela egiaztatzea. Horretarako, aldeztatik Kirol Elkarteko koordinatzailearekin hitz egingo du.
- d) Taldeko pertsonen txandak eta telefono-zenbakiak antolatzea
- e) Eguna amaitutakoan, kontuak eta azken kontaketa egitea Kirol Elkarteko arduradunarekin batera eta bildutakoa hari ematea.

f) Taberna ixtea.

XVI. ATALBURUA. ESKOLA-OSASUNA, ISTRIPUEI AURREA HARTZEA ETA ESKOLA-JAZARPEN EGOERAK

241. artikulua. Arriskuari aurrea hartzea eta arriskua gutxitzea

1. Ikastolako komunitateko pertsona eta talde guztien lana da osasun arloko prebentzioa eta gaixotasunak kutsatzeko arriskua gutxitzea.

2. Ikasturte bakoitzaren hasieran Zuzendaritzak Haur Hezkuntzako gurasoei eta lege-ordezkariei bidaliko die, haiek aukeratutako kanalaren bitartez, haur eskoletan indarrean dagoen osasun-arautegia.

3. Ezingo da ikastolan egon edo sartu ondokoak dituen pertsona:

- a) Higiene-eza adierazten badu
- b) Parasitorik badu (zorriak, bartzak, etab.)
- c) Sukarra badu
- d) Beherakoa badu
- e) Azaleko negalak baditu, medikuaren txostena bidez kutsakorrak ez direla adierazten ez bada. Azaleko gaixotasun kronikoen kasuan, egoera hori egiaztatzen duen medikuaren txostenarekin nahikoa da.
- f) Konjuntibitisa badu
- g) Heste parasitosisia (zizareak...) badu
- h) Botaka egiten badu behin eta berriz
- i) Eztula handia badu edo tratamendurik ez duen mukien jariatze zornetsua badu. Kasu horretan medikuaren egiaztagiria beharko da, tratamenduan dagoela eta kutsakorra ez dela adieraztekoa.

4. Aurreko atalean jaso ez den beste gaixotasunen kasuan, Ikastolara berriz etortzeko medikuaren baimena beharko da.

242. artikulua. Medikatzea

1. Langileek ez dute ikasleei botikarik emateko baimenik.

2. Medikuak aginduta botikaren bat eman behar bada, gurasoek edo lege-tutoreak gelan bertan emango diote ikasleari.

243. artikulua. Elikadura-dieta bereziak

Medikuak aginduta pertsonaren batek dieta berezi bat behar badu, medikuaren txosten bat ekarri beharko du eta txosten horretan pertsona horrek zergatik behar duen menu hori azalduko da.

244. artikulua. Istripu kasuan jarraitu beharreko protokoloa

1. Ikastolak istripu kasuetarako jarduteko protokolo bat izango du, gai horretan indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz eta Araudi honen irizpideak aintzat hartuta.

2. Ikastolan lan egiten duen edonork, istripuren bat jasan duen beste bati lehendabizikoan arreta egiteko eta laguntzeko beharra du.

3. Istripu bat gertatzen denean, berehala, ahalik eta lasterren irismena eta gertatu diren kalteen larritasuna aztertuko dira; lasaitasuneko jarrera izango dugu eta istripua jasan duena lasaituko dugu. Zalantza edukiz gero, lesio garrantzitsutzat hartuko dira.

4. Lesio arinen kasuan, Ikastolako botikinean dauden baliabideez sendatuko dira, horren erabiltzeko protokoloari jarraiki.

5. Lesio larri edo oso larriak badira:

- a) Istripua jasan duena ospitalera eramango da eskura dauden bitartekoekin edo anbulantziari deituz, kasuan-kasuan.
- b) Ospitalean istripua jasan duenarekin geldituko gara horren senideren bat etorri arte.
- c) Aseguru-etxeari istripuaren berri emango zaio eta horren inguruko alderdi guztiak kudeatuko dira.

6. Kasu guztietan familiari ohartaraziko zaio telefonoz edo ahalik eta bitartekorik azkarrena erabiliz.

7. Kasu guztietan Zuzendaritzak informatzeko espediente bat irekiko du istripuaren arrazoiak aztertzeko, beharrezkoak diren aurrea hartzeko neurriak eta neurri zuzentzaileak antzemateko eta protokoloak aldatzeko beharra dagoen ikusteko, baita hori zabaltzeko eta jakinarazteko ere. Txosten hori Artezkaritza Kontseilura bideratuko da. Istripuaren lekukoen informazioa erabiliko da hori burutzeko.

245. artikulua. Eskola-jazarpenari buruz

1. Eskola-jazarpenaren aurrean ikasleei prebentzio eta babes handiena emateko azken helburuarekin, Araudi honetako III. Atalburuak araututakoaz gain, ondoko arauak ere aintzat hartu beharko dira.

2. Ikastolak eskola-jazarpen kasuetarako jarduteko protokolo bat izango du, gai horretan indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritik eta Araudi honen irizpideak aintzat hartuta. Protokolo hori Haur Hezkuntzako etapan aplikatuko da.

3. Ikastolako langile guztien jardueraren oinarria eskola-jazarpenari aurrea hartzea da eta tutoretzak, irakasleak birziklatzeko ikastaroak eta Gurasoen Eskolak programatzeko orduan lehenetsunezko zatik joko da.

4. Ikastolako langile guztiek, eskola-jazarpen kasuren baten susmoa edo frogarik edukiz gero, Zuzendaritzak ezarritako moduan horren berri eman behar dute eta, zehazki, familiek edo ikasleak kezka edo susmoen berri ematen badute.

5. Behin eta berriz batek erasoak jasaten dituela ikusiz gero —eraso fisikoak (bultzatzea, kolpeak, jipoiak, zirriak edo sexu-abusua, jokabide umilgarriak, lapurtzea edo gauzak, dirua, janaria, etab. emateko eskatzea...), hitzezko erasoak (moteak jarri, hitz mingarriak, edo komentario arrazistak eta antzekoak egitea) edo eraso psikologikoak (baztertzeta, marjintzea, etengabe alde batean uztea, salaketa bidegabeak, zurrumurruak eta gezurrak, etab.) badira ere—, protokoloa aktibatuko da berehala.

6. Aurreko atalean azaldutako egoerak ematen direnean, ondokoa egingo da:

- a) Orientazio Sailari berehala eta hari bakarrik jakinaraztea
- b) Orientazio Saileko Zuzendaritzak Ikastolako Garapen Taldeari eta Zuzendaritza Nagusiari eta tutoreari (informazio-iturria beste bat izan bada) jakinaraziko dio ahalik eta lasterren. Zuzendaritza Nagusiak berehala jakinaraziko dio Artezkaritza Kontseiluko lehendakariari.
- c) Tutoreak uneoro jakingo du zer urrats emango diren ikaslearen edo egoeraren inguruan eta lagunduko du hala eskatzen badiote.
- d) Eskola-jazarpen egoeran inplikaturik dauden pertsona guztien familiei egoera jakinaraztea eta horren inguruko informazioa ematea, horretan duten inplikazioa edozein izanda ere: biktima, erasotzailea, lekuko pasiboak etab.
- e) Gutxienez Ikastolak eta inplikaturik dauden ikasle guztien familiek bi bilera egingo dituzte, zehazki:
 - Ikaslearen gurasoen edo lege-tutorearen, Orientazio Sailaren eta Tutorearen arteko bilera.
 - Ikaslearen gurasoen edo lege-tutorearen, Orientazio Sailaren eta Tutorearen eta Etapako Garapen Taldearen arteko bilera.
- f) Ikasle guztien gurasoei eta lege-tutoreei azalbidez ematea ondoko aukera: inplikaturik dauden ikasle guztiekin egiten diren elkarriketa eta bileretan egoteko eskubideaz baliatzea.

- g) Orientazio Sailak egindako bilera guztien aktak egingo ditu eta espedientean sartuko dira.
- h) Eskola-jazarpen kasu bat izan daitekeela iritziz gero, diziplina-espedienteari hasiera emango zio indarreko legeriak eta Araudi honek aurreikusitakoarekin bat etorriz.
- i) Inplikaturako gelako edo geletako familia guztiak berariazko bilera bat egitea prozesuaren berri emateko, betiere informazio konfidentziala eman gabe.

7. Ustezko eskola-jazarpen kasuari buruzko informazio eta agiri guztiak eta, zehazki, inplikaturako pertsonen buruzkoak, konfidentzialak izango dira eta, beraz, Ikastolak egokiak diren neurriak hartuko dira informazio eta agiri horiek guztiak ondo babesteko.

XVII. ATALBURUA. KOMUNIKAZIOA, PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA

246. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak

1. Ikastolaren komunitatean diren talde guztien ardura da Olabide Ikastolaren eginbidea eta ikuspegia eta Hezkuntza Proiektua gauzatzea.
2. Ikastolaren proiektuaosatzen duten pertsonak ez dira zerbitzuen eta prestazioen jasotzaile hutsak; izan ere, euren parte-hartze aktiboa eskubidea eta betebeharra da.
3. Artezkaritza Kontseiluak zein Zuzendaritzak Ikastola irekia eta taldeekiko hurbila sustatu eta garatuko dute, eta Ikastolak efikaziaren, efizientziaren, gardentasunaren eta erantzukizunaren printzipioen arabera jokatu du.
4. Ikasleak inplikatzeko moduko informatzeko, komunikatzeko edo parte hartzeko ekintza guztietan berariaz bereiziko dira DBHko etapetako ikasleak eta Batxilergokoak.
5. Informatzeko, komunikatzeko eta parte hartzeko une, leku eta kanalei dagokienez, Olabide Ikastolan aintzat hartuko dira Atalburu honetako xedapenak eta Araudi honek horren inguruan egiten dituen erreferentziak. Zehazki, gurasoen eta legezko ordezkarien eta Ikastolaren arteko komunikazioari dagokionez, eta bereziki, irakasleekiko, tutoreekiko eta Zuzendaritzarekiko komunikazioari dagokionez, 137. eta 138. artikuluetan xedatutakoa beteko da.
6. Erabili beharreko hizkuntzari dagokionez, informazioari eta komunikazioari buruzko alderdi guztietan Hizpro Hizkuntza Proiektuak xedatutakoa beteko da.

247. artikulua. Komunikazio, gardentasun eta parte-hartze Batzordea eta Plana.

1. Olabide Ikastolaren Komunikazio, Gardentasun eta Parte Hartze Plana, gai horretan diren helburuak betetzearren etengabe berrikusi beharreko tresna bizi bat da.
2. Komunikazio Batzordea foro bat da, informazio, komunikazio eta parte hartze arloan parte hartzeko eta proposamenak egitekoa. Artezkaritza Kontseiluak eta, hala badagokio, Batzar Nagusiak du akordioak eta erabakiak hartzeko ardura.
3. Artezkaritza Kontseiluko Komunikazioaren arduradunak izango du Plana nola gauzatzen den azaltzeko ardura, baita gertaera garrantzitsuak eta produktu nagusiak azaltzekoa ere.
4. Proiektu/jarduera bakoitzaren garapenari eta gauzapenari buruzko informazioa horren ardura duen pertsonak bildu beharko du eta, gainera, zuzendari nagusiari eta Artezkaritza Kontseiluko Komunikazioko arduradunari burutzapenaren inguruko informazioa eman beharko die.
5. Ikasturtearen hasieran eta amaieran, Zuzendaritza Nagusiak Artezkaritza Kontseilura txosten bat bidaliko du, Planaren egoera laburtzekoa.

248. artikulua. Gardentasuna

1. Gardentasunaren inguruan indarrean diren arau-betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren prozesuak (agiriak normalizatzea, informazioaren irispina, lanen sekuentzia eta arduradunak, Ikastolaren web orrian argitaratzeko lekuak etab.) onetsiko ditu Artezkaritza Kontseiluak, Zuzendaritzak proposatuta. Horrela bada, eskatutako edukiak etengabe eguneratuta emango dira argitara.
2. Lege-aurreikuspenetan xedatutakoaz gain, Artezkaritza Kontseiluak abian dituen lan-eta kudeaketa-lerro nagusien berri emango du; horretarako, Ikastolaren web orrian argitaratuko ditu egiten dituen bilera bakoitzaren ostean.
3. Ikastolaren kudeaketa-lerro nagusiak ebaluatzeko prozesuak eta horien inguruan azalpenak emateko prozesuak ezartzea (informazio-fluxuak eta lanen, arduradunen eta epeen sekuentziak) proposatuko dio Zuzendaritzak Artezkaritza Kontseiluari, Kontseiluak onetsi ditzan, lerro horien inguruan erabakiak hartu ahal izateko. Gainera, web orrian egokia den informazioa argitaratuko da.

249. artikulua. Informazio eskubidea

1. Ikastolako organo eta pertsona guztiek dute informazio-eskubidea kide guztiei gauzarazteko eskubidea dute eta, zehazki, eskatutako informazioaren aurrean egokia den moduan, ahalik eta epe laburrenean eta finkatutako kanalen bidez erantzuteko betebeharra.

250. artikulua. Komunikazioa

1. Barruko zein kanpoko harremanetan kanal-aniztasuna erraztuko du Olabide Ikastolak, pixkanaka eta beharretara eta lehentasunetara egokituta.

2. Barne-komunikazioa da Ikastolako taldeetako zenbait pertsonaren artean gauzatzen dena finkatutako kanal eta protokoloak erabiliz:

3. Olabide Ikastolako kanpo-komunikazioa da hornitzaileekin, aliatuekin, beste ikastetxe batzuekin, elkarteekin, administrazioarekin, erakundeekin etab. ekin egiten dena.

4. Ikastolako kudeaketa-organoek informazioa emango dute eta antolakundeko talde guztiengana zabaltzen dela bermatuko dute, batez ere zuzenean edo zeharka eragin ahal dien gauzen inguruko informazioa. Hortaz, inplikatuak lehen mailako informazioa izango dute beti.

5. Ikastolako taldeetako pertsona guztiek dute gainontzeko pertsonekin komunikazio egokia egitearen ardura, une, leku, kanal eta edukiei dagokienez. Hori dela eta, norberaren ardura izango da informazio-iturri egokiak bilatzea Ikastolaren komunikazioekin nahikoa ez bada.

6. Ikastolako organo eta langile guztiek dute kanpoko komunikazioei erantzuteko beharra, kasu guztietan eta ahalik eta epe laburrenean, komunikazio horren kanala edozein izanda ere.

7. Organo eta zerbitzuei dagokienez, Ikastolaren posta elektronikoko helbideek izen orokorra izango dute.

8. Ikastolako langile edo Artezkaritza Kontseiluko kide ez denak ezingo du Ikastolaren informazio- eta komunikazio-sistemak erabili eta, zehazki, posta elektronikoen helbideak edo banatze-zerrendak, zeharka edo zuzenean, ezta beste pertsona batzuen bitartez ere.

251. artikulua.- Parte hartzea

1. Ikastolako taldeetako pertsona guztiek dute aktiboki edo pasiboki parte hartzeko eskubidea. Azken horrek parte ez hartzeko eskubidea aldarrikatuko luke kontzienteki; ondo informatutako pertsonak egikari dezaketen eskubidea da.

2. Artezkaritza Kontseiluak eta Zuzendaritzak kudeaketa parte-hartzailea sustatuko dute, denon konpromisoaren eragilea baita:

- a) Funtzionamendua eta kudatzeko prozesuak hobetuko dituzten zenbait aldaketa erraztuko dute, sareko edo lankidetzako prozesuak sortu ahal izateko.
- b) Erantzukidetasunerako aukera emango duten zenbait eremu sortu, sustatu eta garatuko dituzte.
- c) Kudeaketa parte hartzailean aurrera egiteko zenbait tresna eta mekanismo egitura daitezzen sustatuko dute; horiek elkarrekintza eta inplikazio handiagoa sortuko dute planak eta proiektuak diseinatzeko eta inplementatzeko orduan, baita denon intereseko arazoak ebazteko orduan ere.

3. Parte hartzeko eskubideak eta betebeharrak ez du eraldatuko organo bakoitzak eskumenekoak dituen erabakiak hartzeko duen ardura; finkatutako prozeduren, konfidentziasunaren eta gai batzuek exijitzen duten zuhurtziaren arabera hartuko da aipatutako ardura.

3. Hona hemen Ikastolaren parte-hartzeko eta ordezkaritza organoak:

- a) Batzar Nagusia
- b) Artezkaritza Kontseilua
- c) Zaintza Batzordea
- d) Zuzendaritza Kontseiluak eta Eskola Kontseilua
- e) Batzorde Ekonomikoa
- f) Mantentze-lanen eta Obren Batzordea
- g) Komunikazio Batzordea
- h) Hizkuntza Proiektuaren Batzordea, HizPro
- i) Garapen Taldea
- j) Gelako Ordezkarien Kontseilua

- k) Kultur Elkartea
 - l) Kirol Elkartea
 - m) Ikasleen Ordezkarien Ganbera
 - n) Zuzendaritza Taldea
 - o) Sailak
 - p) Klaustroa
 - q) Matrikulazio berrietarako bisitak koordinatzeko taldea
 - r) Kalitatea koordinatzeko taldea
 - s) Enpresa Batzordea
 - t) Segurtasunaren Osasunaren Batzordea
4. Proposamenak eta iradokizunak bideratzeko beharrezkoa diren bitartekoak eta egitura emango du Ikastolak.
5. Familiekiko inkesten ondoriozko hobekuntzak elkartuko dira ezagutu ditzaten.

XVIII. ATALBURUA. HIZPRO PROIEKTUA

252. artikulua. Hizpro proiektuaren helburuak eta funtzioak

1. Olabide Ikastolaren hizkuntza-proiektuaren helburua, hizkuntzen irakaskuntza/ikaskuntzari zein horien erabilerari koherentzia ematea da, Ikastolatik kanpoko harremanak barne hartuta. Horrela bada, hizkuntzekin lotura duen guztia gain hartzen duen esparrua da.
2. Proiektuaren lan-lerroen ardatza euskara izango da, eta azken helburua eleaniztasuna garatzea da eta, zehazki, ondokoak lortzea:
- a) Hizkuntza Plan eraginkor bat finkatzea
 - b) Hizkuntza bakoitzaren funtzioak eta esparruak zehaztea
 - c) Hizkuntza irakaskuntza/ikaskuntzan erabiltzen diren metodologiak eta ikuspuntuak bateratzea
 - d) Curriculum osoan hizkuntzen erabilera instrumentalaren eraginkortasuna bermatzea
3. Ikastetxearen hizkuntza-proiektua lan-tresna integrala da, eta Ikastolaren komunikazio-testuinguru osoa gain hartzen du. Ondokoak dira tresna horren funtzioak:
- a) Esparru pedagogikoan zein erakunde mailan egiten diren jarduerak aztertzea.

- b) Hezkuntza-komunitate osoaren lana modu sistematikoan eta bateratuan sustatzea, antzemandako beharrei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko.
- c) Ikastetxean irakasten diren hizkuntza guztiak modu integralean lantzea.

253. artikulua. Hizpro proiektuaren ezaugarriak

Esparru integralak behar dituen baldintza guztiak bete ditzan, Hizkuntza Proiektuak ondoko baldintzak bete behar ditu:

- a) Koherentzia: koherente izango da Olabide Ikastolaren hezkuntza-proiektuan definitu diren izaerarekin eta helburuekin
- b) Egokitasuna: Olabideren hizkuntza-proiektuak gure testuinguru sozio-ekonomiko eta kulturalera egokitutako ibilbidea egingo du.
- c) Legalitatea: ikastetxearen hizkuntza-proiektuak aintzat hartuko du gure administrazio-lurraldean (EAE) dugun hizkuntzaren legezko esparrua, betiere Ikastolaren hezkuntza-proiektuarekin koherente izanik.
- d) Integrala eta elkarlanekoa: Ikastolako hezkuntza-komunitate osoan izango du eragina hizkuntza-proiektuak; hortaz, komunitate horretako parte-hartzaile guztien parte hartzea eta inplikazioa izango dira hemen jasotako irizpideen adierazleak. Proiektuan hartzen diren erabaki guztiek, kide guztien konpromisoa sortuko dute. Gainera, printzipioen ondoriozko ekintzek sustatzaile dinamiko izan beharko dute Ikastolaren bizitzan

XIX. ATALBURUA. XEDAPEN GEHIGARRIAK

1. Barne Araudi hau Ikastolaren esparruan aplikatuko da, baita Ikastolak antolatutako jarduerak burutzeko (edozein irteera eta bidai barne) erabiltzen diren kanpoko lekuetan ere.
2. Artezkaritza Kontseiluak egin beharko du Barne Araudia aldatzeko proposamena, baina bazkideek Kontseilu horri horren inguruko proposamenak helarazi ahal izango dizkiote Barne Araudiak berak horretarako finkatu dituen moduei jarraituz.
3. Ikastolako Zuzendaritzak uneoro zainduko du Araudia bete egiten dela, baita eguneratzen dela ere. Horretarako, urtero-urtero, egokiak edo beharrezkoak jo diren aldaketak Artezkaritza Kontseiluari bidaliko dizkio, onets ditzan, Batzar Nagusira bidali baino lehen.

1. ERANSKINA. Haur Hezkuntzan ebaluatzeko sistematika eta txostenak eta familiekiko komunikazioa

1. Familiek informazioa jasoko dute seme-alaben irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren inguruan, gutxienez, hiru hilabetea behin
2. Sistematika hori aplikatuko da HH3n tutore bera baldin badute eta 3 urtez HH4, HH5 eta HH6n tutore bera baldin badute.

IKASTA ROA	IRAILA Gelako Guraso Bilera	Guraso Banakako Elkarrizketa	Ebaluaketa Txostena	EKAINA Gelako Guraso Bilera
HH3	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez egitea	Ikasturte amaierako txosten idatzia egitea	Ekaineko guraso bilera egitea
HH4	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez egitea	Ikasturte amaierako txosten idatzia egitea	
HH5	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez egitea	Ikasturte amaierako txosten idatzia egitea	
HH6	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez egitea	Ikasturte amaierako txosten idatzia egitea	Ekaineko guraso bilera egitea

2. ERANSKINA (28. artikularen 3. G puntuari dagokiona) Lehen Hezkuntzako ebaluatzeko sistematika eta txostenak eta familiekiko komunikazioa.

Familiek informazioa jasoo dute seme alaben irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren inguruan gutxienez hiru hilabetea behin nota buletinaren bitartez.

IKASTAROA	IRAILA Gelako Guraso Bilera	Guraso Banakako Elkarrizketa	Ebaluaketa Txostena	EKAINA Gelako Guraso Bilera
LH 1	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez	Hiru hilero nota buletina eta bakarkako oharrak	
LH 2	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez	Hiru hilero nota buletina eta bakarkako oharrak	Ekaineko guraso bilera egitea
LH 3	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez	Hiru hilero nota buletina eta bakarkako oharrak	
LH 4	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez	Hiru hilero nota buletina eta bakarkako oharrak	Ekaineko guraso bilera egitea
LH 5	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez	Hiru hilero nota buletina eta bakarkako oharrak	
LH 6	Iraileko guraso bilera egitea	Banakako bi guraso elkarrizketa gutxienez	Hiru hilero nota buletina eta bakarkako oharrak	Ekaineko guraso bilera egitea

Ekaineko guraso bilera LH 1, 3 eta 5. mailan kenduko dugu beti ere bermatzen bada ez dela tutore alaketarik egongo.